



LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Sailek gobernu-planak egiteko orientabideak

2012ko maiatza

Edukia

1.	AURREKARIAK ETA APLIKAZIO EREMUA	5
1.1	Aurrekariak	5
1.2	Orientabideen aplikazio-eremua	6
1.2.1	Orientabideen hartzailea	7
2.	GOBERNU EKIMENAK PRESTATZEKO PROZESUA.....	8
2.1	Sekuentzia orokorra: Hasierako planteamendutik azken ebaluaziora	8
2.2	Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren beste organo batzuen kontsulta eta lankidetzeta	10
2.3	«Gobernu Onaren» printzipioak planak prestatzeko orduan: Herritarren eta interes-taldeen parte-hartzea. Kokapena prozesuaren sekuentzia orokorrean.....	11
3.	GOBERNU PLANAK EGITEA	15
3.1	Egutegia prestatzeko fasea: Oinarrizko informazioa eta aurreikusitako eraginak	15
3.2	Oinarrizko ildo estrategiko eta ekonomikoen dokumentua.....	17
3.2.1	Dokumentuaren helburua	17
3.2.2	Dokumentuaren edukia	19
3.2.3	KINaren eta Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzaren txostena.....	20
3.3	Gobernu Planen dokumentuzko egitura eta edukia.....	21
3.3.1	Planaren egitura	21
3.3.2	KINaren txostena eta gomendioak	33
4.	JASANGARRITASUN IKUSPEGIA ESPEZIFIKOKI TXERTATZEA. JASANGARRITASUNAREN GAINEKO ERAGINEN EX ANTE EBALUAZIOA	34
4.1.	Aurretiko azterketa: garrantziaren azterketa	35
4.2.	Eraginen neurtzea plana egiteko fasean	36
4.3.	Azken ondorioak	37
5.	GOBERNU EKIMENEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	38
5.1	Eskema orokorra	38
5.2	Ebaluazioa ezartzea Gobernuaren plangintzan	39
5.2.1	Ebaluagarritasun-baldintzak	39
5.2.2	Ikuspegia eta printzipio zuzentzaileak	40
5.2.3	Ebaluazioaren kudeaketa Faseak.....	42
	ERANSKINA	44
	SARRERA: Prozesuaren ikuspegi orokorra	44
A.1.	JASANGARRITASUN PRINTZIBIOAK	47
A.2.	JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK OINARRIZKO INFORMAZIOAN	50
A.3.	AURRERAPEN DOKUMENTUA (OINARRIZKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKONOMIKOAK) ETA BERE HEDAPENA: JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK.....	58
3.1	Dokumentuaren asmoa eta edukia	58
3.2	Planak 2020rako EGJEn helburuei egindako ekarpena	58
3.3	Ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-eragin ebaluazioa	72
3.3.1	Hiru fasetako ariketa	72
3.3.2	Aurretiazko analisia: Eragin garrantzia eta haien azterketaren irismena.....	74
3.3.3	Eragin analisia	81
3.3.4	Amaierako ondorioak	82

A.4. GOBERNU PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA: 2020RAKO EGJE-REN JASANGARRITASUN ADIERAZLEAK	85
A.5. EX POST EBALUAZIO TXOSTENA	89

Irudien aurkibidea

1. irudia. Gobernu-planak egiteko prozesua	9
2. irudia. Ebaluazioaren hurbilketa integrala.....	41
3. Irudia. Urratsak jasangarritasuna aztertzeko prozesuan.....	73
4. Irudia. Jasangarritasuneko eragina ebaluatzeko aurretiazko analisisa.....	74
5. Irudia. Garrantziaren azterketa: Emaizten aurkezpen grafikoa irizpideen arabera	77
6. Irudia. Garrantziaren azterketa: Emaizten aurkezpen grafikoa irizpide osagarrien arabera	78
7. Irudia. Garrantziaren azterketa: Emaizten aurkezpen grafikoa jasangarritasun-bektoreen arabera	78
8. Irudia. Eraginen analisi-faserako etapak.....	82
9. Irudia. Eraginen analisiaren ondorioak.....	83
10. Irudia. Eraginen analisisa. Ebaluazio-prozesua	84

Laukien aurkibidea

1. laukia. Jasangarritasun-printzipioak	49
2. laukia. Prestaketa-fasearen oinarrizko informazioa: Jasangarritasun-irizpideekin lotutako gida-galderak.....	51
3. laukia. Balizko eragin ekonomikoak identifikatzeko gida	53
4. laukia. Balizko eragin sozialak identifikatzeko gida	54
5. laukia. Balizko ingurumen-eraginak identifikatzeko gida	56
6. laukia. 1. helburu estrategikorako ekarpena.....	59
7. laukia. 2. helburu estrategikorako ekarpena.....	60
8. laukia. 3. helburu estrategikorako ekarpena.....	61
9. laukia. 4. helburu estrategikorako ekarpena.....	62
10. laukia. 5. helburu estrategikorako ekarpena.....	63
11. laukia. 6. helburu estrategikorako ekarpena.....	64
12. laukia. 7. helburu estrategikorako ekarpena.....	65
13. laukia. 8. helburu estrategikorako ekarpena.....	66
14. laukia. 9. helburu estrategikorako ekarpena.....	67
15. laukia. Zeharkako 1. Ikuspegirako ekarpena.	68
16. laukia. Zeharkako 2. Ikuspegirako ekarpena.	69
17. laukia. Zeharkako 3. Ikuspegirako ekarpena.	70
18. laukia. Zeharkako 4. Ikuspegirako ekarpena.	71
19. laukia. Jasangarritasun-irizpideak.....	75
20. laukia. Zerrenda laburraren irizpideen deskribapena.	76
21. laukia. Irizpide gehigarriak.....	77
21. laukia. Irizpide gehigarriak.....	80
23. laukia. Ex post ebaluazio baten fitxa sinoptikoa.....	89
24. laukia. Erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazio mailaren balorazioa zuzentzeko galderak.....	91
25. laukia. Interes-taldeen partaidetzaren balorazioa zuzentzeko galderak.....	92
26. laukia. Helburu eta adierazle estrategikoei egindako ekarpenaren ebaluazioa zuzentzeko galderak.....	93

Taulen aurkibidea

1. taula. 2020rako EGJ Eren Aginte Taula:.....	85
2. taula. Politiken jarraipen-adierazleak.....	86

1. AURREKARIAK ETA APLIKAZIO EREMUA

1.1 Aurrekariak

Gobernu-planak egiteko oraingo erreferentzia Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiaren (hemendik aurrera, KIN) 2010/04/13ko *Sailek gobernu-planak egiteko orientabideak* agirian jasota dago (hemendik aurrera, 2010eko Orientabideak)¹.

Geroago, 2011ko uztailaren 5ean, *Euskadiko Garapen Jasangarrirako Estrategia 2020 onartu zuen Eusko Jaurlaritzak (hemendik aurrera, EGJE 2020)*; berau zeharkako tresna da garapen jasangarriko eredu batean aurrera egiteko, hazkunde ekonomikoaren, gizarte-ongizatearen eta gure ingurumen-aktiboen zaintzaren arteko loturak egoki lotzen dituen ekonomia aldarrikatuz.

Aitortutako zeharkako izaera integratzaile horrekin batera, zehazten du gobernu-plan guztiek eta, oro har, herri-administrazioko organoen jarduera guztiek jasangarritasun ekonomiko, sozial eta ambientaleko helburuak eduki behar dituztela. Zehazki, 2020rako EGJEk ildo batzuk ezartzen ditu 10. kapituluan sailen politiketan jasangarritasun-irizpideak eranstea. Berau irismen ezberdineko bi ikuspegitatik aztertzen da:

- Zentzu zabalagoan, xedea sailek jasangarritasun-irizpideak barneratzea da, eta politiketan zein ohiko jardueretan txertatzea, antolaketaren lau esparrutan islaturik (politikak, gobernantza eta lidergoa, pertsonak eta, kudeaketa operatiboa).
- Zentzu mugatuagoan, helburua plan-gobernutzat hartutako planek jasangarritasun-irizpideak eraginkortasunez jasotzea da.

Bigarren alderdi horri erantzuteko proposamenak garatzen dira agiri honetan, sailek prestatutako gobernu-planen adierazpena mugatuta; horiek Gobernu Kontseiluak onartutako Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia osatzen dute. Hori ez da eragozpen, dena den, prestatu, gauzatu edo ebaluatu beharreko sailen beste edozein planetan jasangarritasuneko metodoa eta ikuspegia eranstea orientagarria eta lagungarria izan dadin.

Jarraibideen agiri berriak jasangarritasunaren analisisia haren hiru ikuspegietako edozeinetan eranstea baino ez du aldaketarik egiten: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Horretarako, *laguntzeko galdera-zerrendak* proposatzen dira eranskinean *check-list* modura, eta, hala badagokio, baita aurreikusten diren inpaktuen neurketa kuantitatiboa egiteko irizpideak ere, zeinak sailei baliagarri gerta dakizkiekeen planak prestatzeko zein erregelamenduaren bidez KINari dagokion gainbegiratze-lana egiteko.

¹ Agiri hori egin eta gobernu-sailei banatu zitzaizen 2010/04/13ko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren laugarren paragrafoan aurreikusitakoa betez. Beraren bidez, «**2009/2013 IX. Legegintzaldirako Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia**» onartu zen, eta halaber, gobernuaren plan eta egitasmo esanguratsuen prestatzeko, izapidetzeko, onartzeko eta jarraitzeko prozedura ere jasotzen zuen (hemendik aurrera, prozedura). *2010eko Orientabideak* dokumenturako aurreikusitako formulak prozesu planifikatzaileari buruzko izaera ilustratzailea eta didaktikoa zuen, eta zehatz-mehatz azaltzen zituen akordioak berak ezarritako planen beharrezko edukia.

Lotura-puntuak ugari dira:

- ✓ egoera-analisien mailan (Diagnostikoa...)
- ✓ proposatzen diren helburuen mailan
- ✓ ildo estrategikoen eta funtsezko jardueren mailan
- ✓ (inpaktuko eta jarraipeneko) adierazleen mailan

2010eko Orientabideak agiria bezalaxe, hau ere laguntza-tresna bat da sailen planak eta estrategiak prestatzeko prozesua hobetzeko.

1.2 Orientabideen aplikazio-eremua

Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegian jasotako gobernu-planak egiteko prozedurari dagozkio *2010eko Orientabideak*; nolahi ere, aplikatzekoak ere badira edozer jarduera planifikatzailetan (ez prozedurako alderdi formaletan, baina bai kontzeptualetan), are gehiago Gobernu Kontseiluak onartu behar baditu edo Eusko Legebiltzarrera bidali behar badira.

Gobernu-planak, formalki beste modu batera deituta ere, gobernu-ekintzaren tresna esanguratsuak dira, zeinetan herritarren aurrean konprometitutako jarrera politiko batek eta esku hartzen duten esparruari dagokion garrantzi sozial batek bat egiten duten; hori dela eta, konpromiso sozial eta politikoko maila handia dutenez, Gobernu Kontseiluari aurkezten zaizkio, onar ditzan.

Praktikan, **gobernu-plantzat** hartzen dira gobernuak legegintzaldiaren hasieran horrelakotzat jotzen dituenak; orduan Legegintzaldi Egutegia eta, Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia zehazten dira, eta hori, berez, legegintzaldirako jarduerak planifikatzeko (lehenestea, antolatzea) lehen ekintza da.

Esparru horretan plan bat jasotzeko edo ez, hainbat ezaugarri eduki behar ditu, eta horiek garrantzi esanguratsua ematen diete sailen gainerako planen eta ekintzen aurrean. Gainerako «**planak**», aldiz, izendapen formalean hitz hori eduki edo ez, ez daude lotuta Gobernu Kontseiluaren erabaki horretan ezarritako prozedurari. Hala ere, prozeduratik kanpo bada ere, jasangarritasun-analisia aplikatzea komenigarria da, oinarritzko mailan bada ere, *EcoEuskadi 2020 – Garapen Jasangarrirako Estrategiarekin* bat datozela bermatzearren.

Sektore jakin batzuen antolamendu teknikorako planei ere ez zaie prozedura aplikatu behar (**bereziki natur baliabideak eta lurraldekoak edo azpiegiturak**), **baldin eta beren edukiak eta prozedura arautzen dituen araudi propioa badute**; horrelakoak dira Lurraldearen Antolamendurako, hidrologia-plangintzarako araudian edo antzekoetan jasotakoak, baita beste kasu zehatz batzuk ere, Estatistika Plana adibidez. Lehenengoek lurraldea arautzea dakartenez, ingurumen-eragineko prozedura tasatuari loturik gelditzen dira, eta tresna horietara bideratutako legeria espezifikoak dute; edozelan ere, agiri honetan aurreikusitako eragin sozialen eta ekonomikoen garrantziaren analiziaz osatu ahal izango litzateke.

Nolanahi ere, Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegian jaso gabeko plan bat edozer arrazoiagatik Legebiltzarrera igorri behar bada, aldez aurretik horren berri Gobernu Kontseiluari² eman beharko zaio. Horretarako, sustatzen duen sailak dagokion plana gutxienez 30 egun lehenago³ igorriko dio KINari.

Nolanahi ere, jasangarritasun-irizpideak sartzeko jarraibideak berdin erabili edo aplikatuko zaizkie Jaurlearitzak sustatuko beste programa, proiektu edo ekimen batzuei.

1.2.1 Orientabideen hartzailea

Orientabideok izaera praktikoko dokumentu irekizat hartzen dira, sailek planak errazago egin ditzaten; batetik, gobernu-ekintzaren koherentzia globala bermatuta eta, bestetik, jasangarritasun-irizpideak betetzearen ikuspegia txertatuta.

Ikuspegi osagarri batetik, KINaren jarduna zuzentzeko koherentzia globala gainbegiratzeko eginkizuna gauzatzeko garaian jarraibideak finkatzeko tresna da, baita sailen politika publikoak planifikatzeko eta gauzatzeko eginkizunari dagokionez ere, eta, zehazkiago, Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia 2020⁴ren xedapenak abiarazitako Garapen Jasangarriko Bulegoarenari dagokionez (hemendik aurrera, GJB).

Azken batean, orientabideen agiri hau gobernu-ekintzaren planak eta estrategia garrantzitsuak diseinatzeko moduan etengabeko hobekuntza errazteko tresna bat da.

² Ikus Prozeduraren 1.2 paragrafoa. Gobernu Kontseiluari dagokio Legebiltzarrera igortzeko agintzea, eskatzen den izapidetze mota jasota.

³ Gobernu Kontseiluaren aurreko akordio-proposamenarekin batera organo horren esku-hartzeagatik eta erabakiaren beraren izaeragatik eskatu beharreko txostenak aurkeztuko dira eta, zehazki, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena; Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 22.1 artikulua a) paragrafoak eskatzen du txosten hori.

⁴ EcoEuskadi 2020 Kudeaketa Ereduari jarraiki, Garapen Jasangarriko Bulegoa (GJB) EGJE 2020rako garapen jasangarriko estrategia txertatzeko prozesuaren koordinazio- eta laguntza-organoa da. Lehendakaria da burua.

GJB honela egituratuta dago, sinplifikazio, sail arteko lankidetzeta eta baliabideak aurrezteko irizpideen arabera (xehetasuna <http://www.ecoeuskadi2020.net/pdf/eu/EcoEuskadi-Estrategia.pdf> agiriaren 75. eta hurrengo orrietako «EcoEuskadi 2020 Kudeaketa Eredua»ren paragrafoan dago):

- Eusko Jaurlearitzaren sailen arteko batzorde bat
- Erakunde arteko batzorde bat
- Batzorde tekniko bat
- Jarraipeneko batzorde bat
- Idazkaritza tekniko bat

2. GOBERNU EKIMENAK PRESTATZEKO PROZESUA

2.1 Sekuentzia orokorra: Hasierako planteamendutik azken ebaluaziora

Gobernuaren planak prestatzeko prozesua legegintzaldiaren hasieran hasten da, lehentasun politikak zehazten direnean; gaur egun, horri Legegintzaldi Egutegia eta, Gobernuaren Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia esaten zaio. Era horretan, garrantzitsuak direlako gobernu-planak eta jasangarritasun-analisiak egin eta ondoren onartzeko prozedura jarraitu beharreko planek bete behar duten prozedura zehazten da.


Legegintzaldi hasieran behin baino ez da egiten, baina urtero egokitu daiteke plan edo proiektu berriak erantsiz (edo gutxiagotan, jarduera jakin bati kategoria kenduz edo). Era horretan urtero egokiturik egoten da plan garrantzitsuen zerrenda, zeinen koordinazioaz eta jarraipenaz Koordinaziorako Idazkaritza Nagusia arduratzen baita⁵.

Gobernu-plantzat hartutako planek Jarraibideen agiri honetan zehaztutako prozesua jarraituko dute, 1. irudian ageri dena. Hiru aldi daude, eta horien inguruan antolatzen da KINari dagokion koordinazio-lana.

- Lehenik, planaren ildo nagusiak zehazteko fasea; bertan, prozeduraren arabera, **Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak** dokumentua egin behar da, eta KINari aurkeztu behar zaio honek egiazta dezan; Aurrekontuen sailburuordetzak ere hartzen du parte lan horretan. Dokumentu horretan alderdi prozesalak (erakundeen arteko koordinazio-mekanismoak eta intereseko taldeen parte-hartzea) eta funtsezkoak (ildo estrategikoak eta aurrekontuetakoak) jasotzen dira, eta aurrerago, 3.2. paragrafoan dago adierazita. KINek egokitzen jotako oharrak egingo ditu gobernu-ekintzaren koordinazio globaleko eskakizunetan oinarriturik, eta horretan garrantzi berezia izango du Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategian finkatutako jasangarritasun-irizpideetan bat etortzeak. Egindako oharrak *kontuan hartu* beharko ditu sail sustatzaileak, eta uneoro justifikatu beharko du hartutako erabakia. Koherentea da fase honi legegintzaldiaren hasieran ekitea, aztergai dagoen gaiarekin lotutako planek oraindik indarrean egon arren. Nolanahi ere, egiten lehena izango da beti fase hau..

⁵ Legegintzaldiaren edozein momentutan has daiteke plan jakin batzuk eransteko edo baztertzeko prozedura, hala badagokio, eta egoera aztertu ondoren. **Egutegian proposamen berriak eransteko prozesuan** egun egutegia osatzen duten planetarako egindako **prestateta-lan berak** egin beharko dira; hots, lehentasunak aztertzea eta planaren oinarrizko informazioa betetzea. Eduki horiek dokumentatu eta igorri beharko dira Koordinaziorako Idazkaritza Nagusira, eta honek egiaztatu beharko du, egutegiarekin egin modura, proposatu egin duen sailaren irizpena bat datorrela gobernu-planen egutegian planak txertatzeko jarraitutako parametroekin. Egindako proposamenak gobernu-plantzat hartzeko ezaugarriak dituela erabakitakoan, akordio-proposamen bat izapidetu beharko da Gobernu Kontseiluak egutegian txertatzea eta Eusko Legebiltzarrerara bidaltzea onartzeko. Egutegian jadanik onartuta dauden **proposamenak ezabatzeko prozesuan**, berriz, informazio dokumentatuta bidali beharko da Koordinaziorako Idazkaritza Nagusira Gobernu Kontseilura bideratzeko eta, ondoren, Eusko Legebiltzarrari jakinarazteko (Prozedura, 2-3. or.).

1. irudia. Gobernu-planak egiteko prozesua



- Bigarrenik, **plana egitea** funtsean; zeregin horretan administrazioaren beste eragile batzuek ere hartuko dute parte, lantaldetan edo egiaztatze-taldetan antolatuta, dagokionaren arabera, baita aurreko fasean aurreikusitako herritarren eta intereseko taldeen eragile batzuek ere. Sailari dagokio plana bultzatzea eta bere lanak aurreratzea; halere, aditu batzuek ere parte hartu ahal izango dute lan horretan, eta egoki iritziz gero, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen irizpena ere eskatu ahal izango da⁶. Planaren eduki guztiak hedatutakoan (helburuak, estrategiak, ekintzak, aurreikusitako aurrekontu-baliabideak), KINek berriro ere egiaztatu beharko du, eta planaren edukari buruzko txosten bat ere egingo du. Sail sustatzaileak, bere aldetik, txosten horren proposamenak edo iradokizunak onartzeko edo baztertze aukera izango du, baina, onartu ezean, erabaki hori arrazoitu beharko du, plana onartzeko orduan gobernuak behar beste irizpen-elementu izan ditzan hartu beharreko erabakiari begira.
- Azkenik, Gobernu Kontseiluak **plan hori onartzean**, ebaluatze eta jarraitze sistema ere zehaztu beharko du.

2020rako EGJEk dioen moduan, Garapen Jasangarriko Bulegoa KINari aholkularitza emateko organoa da, baita gobernu-sailei eta, behar denean, horrela eskatzen duten foru- eta toki-administrazioei laguntza ematekoa ere.

Plana abiarazi eta gauzaten hastearekin bat, etapa berri bati ekingo zaio, ekintzak jarraitze eta ebaluatze aldiari, alegia; fase horretan lortutako emaitzetatik ikastea izango da garrantzitsuena, bai planaren indarraldiaren gainerako aldiari jarduerak berrorientatzeko (bitarteko ebaluazioak), bai ordezkatzen duten planen diseinua hobetzeko (gertaera ondoko ebaluazioa).

Bi helburu izango ditu KINek etapa horietan guztietan: (i) gobernu-planen prestaketa homogeneizatzeko lan-jarraibide batzuk finkatzea, metodologia-alderdiak indarturik; eta (ii) bermatzea sailen ekimenek elkarren artean ahalik eta funtsik handiena dutela, eta legegintzaldirako gobernu-ekintza zehazten duten ildoekin bat datozela. Ildo definitzaile horietako bat 2020rako EGJEn jasota dago, eta ikuspegi integratzailea, sailen artekoa eta erakundeen artekoa du. Horregatik, sailen ekimenek jasangarritasun-irizpideekin duten koherentzia kontrolatzea etengabeko erreferentzia-puntua da prozesu osoan zehar.

2.2 Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren beste organo batzuen kontsulta eta lankidetzak

«Arloen»⁷ dekretuek sail bakoitzaren eskumenen funtzio-eremuak eta irismena mugatzen dituzte. Hala ere, oso kasu bakanetan esan daiteke esleitutako eremuek atal itxiak osatzen dituztela sail bakar baten barruan. Horregatik, plana abiarazten den unetik bertatik, sustatzen duen sailak beste gobernu-sail batzuen eta beste herri-administrazio batzuen (foru-, estatu-, udal-administrazioak) lankidetzak bilatu behar du sinergiak sortzeko. Askotan, gainera, komenigarria ere bada sailen arteko lantaldeak eratzea,

⁶ 9/1997 Legearen arabera, EGABari dagokio Jaurilaritzak irizpena eskatzen dion **politika ekonomikoarekin eta sozialarekin** lotutako gaien buruzko irizpenak ematea. Irizpen hori **nahitaezkoa** da lege-proiektuei eta Gobernuaren iritziz *garrantzitsuak* diren gobernu-dekretuei dagokienez. Gainerako kasuetan **hautazkoa** da txostenaren izapide hori, Gobernuaren iritzia araberakoa. Hilabeteko epea du EGABek txostena emateko lege-proiektuen kasuan, eta hamabost eguneko dekretuenean; halaber, epeok erdira murrizten dituen premiazko prozedura ere badago, baina ezin dira inola ere 15 egun baino txikiagoak izan.

⁷ Une honetan, maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-sailak sortzeko, kentzeko eta aldatzeko balio duena eta sailen funtzioak eta jarduerak zehazten dituena.

plan batean elkartu behar eta ahal diren ikuspegiak hasieratik bertatik txertatzeko. Administrazioaren⁸ beste organo batzuei kontsultak nahiko goiz egitea eta lankidetzan aritzea oso komenigarria da, planaren aurreragoko faseetan ikuspuntuak noiz alderatuko itxaron beharrean; era horretan, emaitzen arabera, *ad hoc* formulak azter daitezke plana egiteko orduan erakundeen arteko elkarlana egituratzeko.

Oso egokia izango litzateke Gobernu-planen eta ekintza esanguratsuen egutegia prestatzeko fasearen barruan egitea; hori, planaren aurretiko informazioarekin batera, Planaren⁹ **Ibilbide Orria** deitu liteke. Kontsultarako eta sailen zein erakundeen arteko lankidetzarako aurretiko galdetegiaren 3. eta 8. paragrafoak jasotzen dira; egutegia prestatu aurretiko fasean bete behar da galdetegi hori.

Nolanahi ere, erakundeen arteko lankidetzaren planteamendua *Oinarrizko ildo estrategikoen eta ekonomikoak* agiriaren puntu zehatz bat da (*vide infra*), eta zehatzago hitz egingo dugu horretaz.

2.3 «Gobernu Onaren» printzipioak planak prestatzeko orduan: Herritarren eta interes-taldeen parte-hartzea. Kokapena prozesuaren sekuentzia orokorrean

Europako Gobernantzaren Liburu Zuriak honako hau adierazi du: «*Gobernantza onaren eta proposatutako aldaketan oinarria bost printzipiok osatzen dute...: irekitasunak, parte-hartzeak, erantzukizunak, efikaziak eta koherentziak*». «*Gobernantza demokratikoa ezartzeko*» oinarrizkoak diren printzipio horiek erreferentetzat jotzen dira, Batasunaren eremuko erakunde publikoetako jardura orokorrean, eta politika publikoen plangintza da –bai eta horren inguruan garatzen diren fase eta jarduketa guztiak ere– Gobernantza Ona eta horri egozten zaizkion xedeak ezartzeak ondorio argiagok eman ditzakeen eremuetako bat.

Oro har, aipatutako printzipioak abian jartzeak dakar honako alderdi hauei, besteak beste, erantzuna ematea:

- **Irekitasuna**, funtzionamendu irekiagoa sustatzen ote den baloratzea, komunikazio eraginkorragoa eta jendearentzat oro har ulergarriagoa den hizkera sustatuz.
- **Parte-hartzea**, tartean diren eragile guztien beharra eta inplikazio erreala baloratzea.
- **Erantzukizuna**, kontuak eskatzeko eta azalpenak ematea exijitzeko mekanismoak ote dauden baloratzea.
- **Efikazia**, lortutako emaitzak baloratzea.
- **Koherentzia**, xedeak lortzeko esku-hartzea egokia ote den baloratzea, bai eta eremu berean dauden bestelako esku-hartzeekin bat ote datorren ere.

Herritarren eta interes-taldeen parte-hartzeak sistema demokratikoa sendotzen laguntzen du; izan ere:

- Tradiziozko demokrazia ordezkatzaileria handitzen du; horretarako, erakunde-tresna irekiko zaie herritarrei, tradizionalki irizpide politiko eta ordezkatzaileraren zerbitzura, eta, horretarako, politika publikoen konfigurazioan esku hartzeko bideak antolatuko dira, dauden faseetan (parte-

⁸ Hurrengo paragrafoan heltzen zaie herritarren eta interes-taldeen kontsultari eta parte-hartzeari.

⁹ Europako Batzordeak hartutako terminologia. Prozedurarekin bat etorritik, *oinarrizko informazioa* prestatu behar dute sailek, «*proposamena aztertze eta egutegiarekin batera argitaratzeko baliagarria dena, ekintza publikoaren gardentasuna sustatzearen*».

hartze honek ez dakar irizpide tekniko eta profesionala aldatu beharra, ez eta organo politiko eta ordezkatzailen ordezkagaitasuna ordezkatu beharra ere, baizik eta herritarrak tresna burokratiko eta instituzionalera berriro hurbiltzeko testuinguruan sortzen da).

- Herritarrek gobernarekin duten elkartzea da, politika eta kudeaketa publikoen gaineko gatazken adostasuna edo konponbidea bilatzeko.
- Gobernua eta ordezkari politikoak gehiago kontrolatzea ahalbidetzen dio hauteskunde batetik bestera, eta kudeaketa publikoa gardenagoa izatea sustatzen du.

Plano teorikotik erakundeen jardueran egindako partaidetza-bideen zehaztasun materialerako jauziak dakar gauzatzeko zailtasun garrantzitsuak saihestea, besteak beste: elkarrizketa parte-hartzailea ezartzeko kontuan hartuko diren subjektu edo agenteekiko identifikazioa eta plana egin, ezarri eta ebaluatzeko prozesuan parte-hartze erreala eta eraginkorra izateko jarraituko den metodoa edo sistematika.

Hori horrela, oro har, onartu egiten da eragile horiek lan- edo ekoizpen-harremanak hitzartzeko mekanismoetan agente sozioekonomiko hauek sartzea, baina gatazkak konpontzeari edo prozesu politikoak abiarazteko adostasunari dagokionez, egokiagoa da herritarren inplikazioa bilatzea eta, gero, inplikazio hori nola isla daitekeen aztertzea. Hau da, herritarren ordezkari- eta mobilizazio-foroak identifikatu beharko dira, betiere, erakundeetako foroak abiapuntutzat hartuz.

Parte-hartze horrek era ezberdinak izan ditzake gaiaren arabera, eta ardura duen sailak askatasun osoa du berau zehazteko. Era horretako esperientziak ugaritutakoan, sistematika komuna bilatu behar da gobernuaren ekintzari koherentzia emateko; dena den, aitortu beharra dago plan guztiei ezin zaiela kortse zurrun eta uniformerik aplikatu.

Zergatik/zertarako kontsultatu?

Politika edo neurri berri batek eragin behar ditueni edo aplikatu beharko dutenei kontsultak egitea ezinbestekoa da kalitate-proposamen sinesgarriak lortzearen. Kontsulta horiek neurrien eraginkortasuna eta efikazia hobetzen dituzte, eta aldi berean, politiken zilegitasuna handitzen dute herritarren eta interes-taldeek ikuspegitik.

Zer eta noiz?

Kasu bakoitzaren arabera, kontsulta ez da planaren elementu berei buruzkoa izango. Kontsulta ez da une zehatz bakar batean egin behar, baizik eta hainbat etapatan egindako prozesu dinamikoa izan behar dela. Ondorioz, plana prestatzen hasten denean aurreikusi behar da kontsulta edo, bestela, oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak prestatu aurretik; herritarrek eta interes-taldeek kontsulta horri buruz dituzten ikuspegiak, orobat, nahiko garaiz bildu behar dira.

Honako hau zehaztu behar da kontsultaren prozesua diseinatzeko orduan:

- Zein da helburua? Ideia berriak ematea, datuak biltzea edo hipotesiak balidatzea, adibidez.
- Planaren zer osagai kontsultatu behar dira? Arazoa zein den, helburuak eta neurriak, eraginak, ordezeko aukeren arteko konparazioa, kostuen eta onuren ebaluazioa.
- Zer xede-talderi zuzenduko zaie? Herritarrei oro har, interes-talde jakin batzuei, erakunde edo pertsona jakin batzuei.
- Zer kontsulta-tresna erabiliko dira? Aholku-batzordeak, aditu-taldeak, jendaurreko entzunaldiak (saioak), *ad hoc* bilerak, kontsulta telematikoa, galdetegiak, talde fokalak, mintegiak/tailerrak,...

- Noiz izango da unerik egokiena kontsulta(k) egiteko? Prozesuaren hainbat aldi edo unetan egin daite(z)ke.

Kontsulten gutxieneko eskakizunak

Kontsulta gobernu-plan bakoitzaren ezaugarrietara egokitu behar da; hori jakina da, baina bete beharreko gutxieneko eskakizun batzuk daude kontsulta onargarria izan dadin¹⁰:

- Kontsultan behar bezain prestaturik parte hartzeko beharrezko informazio guztia jasotzen duten dokumentu argiak eta zehatzak ematea.
- Kontsulta-galdetegietan anbigutasunak saihestea.
- Helburu-kolektibo garrantzitsu guztiak jasotzea. Honako galdera honi erantzutea: Neurriek norengan eragingo dute? Nork aplikatu behar ditu?...
- Prozesuari behar beste publikitatea ematea, eta tresna egokiak aukeratzea helburu-talde bakoitzarentzat.
- Erantzunak emateko behar beste denbora ematea. (Jendaurreko kontsulta idatziek gutxienez zortzi aste behar dituzte, baina kontsulta konplexua edo korapilatsua bada baliteke denbora gehiago behar izatea - ahal izanez gero, oporraldiak tartean ez egotea-. Bilerak hilabeteko aurrerapenez deitu behar dira).
- Proposamenak jaso izana taldeka edo banaka jakinaraztea, eta horien gorabeherak arrazoituta jakinaraztea –baztertzea, zehaztea edo onartzea–.
- Kontsulta-prozesuaren emaitzaren berri ematea, planaren memoriarekin batera doan dokumentu espezifiko batean jasota: Nola jokatu den eta dokumentuetan bildutako iritziek zer isla duten, eta emaitzak *Irekia* plataforman argitaratzea.

Emaitzak modu orekatu batez txertatzea

Funtsezkoa da **iritziaren eta begien bistako gauzen artean bereizi** ahal izatea. Iritzi guztiek ez dute berdin balio, eta interes-talde guztiek ez dute iritzia adierazteko gaitasun bera. Horregatik, prozedura irekiek nekez emango dute iritzi publikoa behar bezala ordezkatzeko duen irudirik. Ahalegin berezia egin behar da interes-talde guztiek ekarpenak egiteko ezagutza eta gaitasuna dituztela bermatzeko, eta bereziki zaindu behar da interes sorta mugatu bati dagokion erantzun kopuru txikia ez egotea.

Kontsulta datuak eskuratzeko erabiliz gero, erabilitako metodoak eta emaitzen sendotasuna egiaztatu behar dira; horretarako, honako metodo hauek erabiliko dira, besteak beste: *benchmarkinga* (metodoa ebaluatzen du alde aurretik edo beste erakunde batzuetan erabilitako beste batzuekin alderatuz), *peer-reviewa* (prozesutik kanpoko aditu batek (edo batzuek) prozesuaren kalitatea aztertzen du(te)) edo aldagaietan aldaketa txikiak eginez emaitzen aldakortasuna egiaztatzea ahalbidetzen duten sentikortasun-analisiak.

Nolanahi ere, prozesu parte-hartzaileek ez dute honako hauek itxuragabetu behar: izendatutako eragile politikoez, ezarritako erakunde bideen arabera, duten erantzukizuna; plangintza sustatzen duen administrazioaren lurralde-eremuak, eta planifikatutako programa-xedeak lortzeko ezinbesteko tresna den finantza- eta aurrekontu-autonomia. Erantzukizunaren mugaketa nabarmentzeko beharra, une oro ordezkari politikoez izan behar dutena, plangintzaren eremuan indartuta geratzen da; izan ere, jarduera hau demokratikoki aukeratutako gobernariak herritarren aurrean hartutako konpromisoekin lotzen da.

Botere publikoetan gizarte-partaidetzaren sustapenean garrantzitsua den beste alderdi bat da partaidetzako prozesu demokratiko orok duen bitartekoen kostua edo bolumena. Hori horrela, identifikazio-prozesuak, prozesuaren ezarpenak eta garapen materialak baloratu beharreko baliabide pertsonalak eta materialak eta denboraren baliabidea izatea dakar. Balorazio horretan, kontrol demokratikoaren mekanismoen indartzeak balio

¹⁰ Cf. COM (2002) 704 final: *Towards a reinforced culture of consultation and dialogue – General principles and minimum standards for consultation of interested parties by the Commission.*

handiagoa duela oinarri hartuta, bereziki garrantzitsua izan daiteke aurretik dauden egiturak optimizatzea (erakundeen artekoa eta gizarte-bokazioa duena), berrindartzeko edo berriro ateratzeko aukera izatea eta teknologia-bideak ezartzea (bai aurretik dauden egitura horien funtzionamendura aplikatuak, bai bide berrien diseinuan).

Hori horrela, prozesu parte-hartzaileen abiarazteak, gaur egun, erakundeen web guneen inguruan indartzen ari diren teknologia-plataformak ditu, bide biziak eta noranzko bikoak antolatzeko, horien bidez, Gobernantzaren esparruan xede parte-hartzaileari aurre egiteko. Hala, «Irekia» plataforma aipatzekoa da (<http://www.irekia.euskadi.net>); bertan parte hartzeko hainbat espazio daude.

3. GOBERNU PLANAK EGITEA

3.1 Egutegia prestatzeko fasea: Oinarrizko informazioa eta aurreikusitako eraginak

Gobernu Kontseiluaren 2009/12/22ko akordioak, IX. legegintzaldiaren Gobernuaren Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia egiteko prestaketa-ekintzei buruzkoak, planak *gobernukotzat* jotzekoak diren edo ekintzak izaera hori jasotzeko bezain *esanguratsuak* diren adierazteko irizpideak ezarri zituen.

Plan bat hauxe dela uler dezakegu: dokumentu berean zehaztutako xede edo helburu bat asetzeko ekintza egituratuak eta koherenteak jasotzen dituen ekimena, eta definizioaren eta erabil daitezkeen baliabideen ereduari heltzen dio nahiz ekintzak hainbat eskumen-eremu edo -arlotan antolatzeko eta kudeatzeko ereduari. Halaber, barne hartzen ditu beharrezko jarraipen-, ebaluazio- eta egokitzapen-metodoak.

Plan esanguratsuenak horrela baloratzeko, sailek aurreikusitako ekimenei buruz aurkeztu beharreko **oinarrizko informazioaren** edukia¹¹ finkatu du KINEk; informazio hori Gobernuaren Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegian eranskin gisa dago argitaraturik.

2020rako EGJEn aurreikuspenak aintzat hartuta, egiturak eskema hau jarraituko luke:

1. Helburuak.
2. Aurrekariak
3. Esku hartzen duten sailak eta eskumen-informazioa
4. Jardueraren eragina:
 - Ekonomiako, gizarteko eta ingurumeneko eragin aurreikusgarriak
 - Arauetan izango duen eragina
 - Antolamenduan izango duen eragina
 - Aurrekontuetan eta finantzetan izango duen eragina
 - Bestelako eragin batzuk
 - Eragina erakundeen arteko harremanetan
5. Izapidetzeko egutegia eta faseak
6. Gauzatzeko epea
7. Planaren jarraipena eta ebaluazioa
8. Esku hartzen duten erakundeen arteko lankidetzarako metodologia
9. Herritarren eta interes-taldeen parte-hartzea
10. Plana hedatzea

¹¹

Eranskinaren A.2ko 2. laukian hainbat galdera daude atalek jasangarritasunarekin lotutako alderdiak zehazki jaso ditzaten laguntzeko.

Informazio hori, hortaz, **gobernantzaren printzipio batzuk hasieratik txertatzeko** abiapuntu onena da:

- a) Planek izango dituzten eragin aurreikusgarrien ikuspegia ekonomiako, gizarteko eta ingurumeneko jasangarritasunaren gainean.
- b) Euskal administrazioko eta beste herri-administrazio batzuetako beste organo batzuekiko erlazioa eta lankidetzeta.
- c) Interes-taldeen eta, oro har, herritarren parte-hartzea.

Fitxek Gobernu Kontseiluak plana onartu arteko prozesuaren hari eroalea marrazten dute. Planaren *Ibilbide-orria* delakoa osatzen dute, eta, lehenengoari dagokionez, *Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak* dokumentuan lehen isla bat izango du, eta azkenik, planean bertan eta haren euskarri-dokumentuetan jasoko dira.

Asmoa da momentu honetatik bertatik planaren irismen globalari buruzko lehen gogoeta bat txertatzea; bereziki EAEko gizartearen jasangarritasun ekonomikoan, sozialean eta ingurumenekoan zer eragin duen, eta beste organo eta administrazio batzuekiko koordinazioan zer eragin duen. Planaren amaierako diseinua laguntzeko xedea du; horretarako hauxe jakin behar da:

- Zein dira planaren ondorio aurreikusgarriak ekonomiako, gizarteko eta ingurumeneko esparruan?
- Hiru dimentsioen eta planaren helburuen artean interes-gatazkak al daude?
- Nola hobetu daiteke plana jasangarritasunaren ikuspegitik?

Erantsitako dokumentuan galdetegi bat¹² atxiki da gogoeta-prozesu hori laguntzearren; baliteke luzeegia izatea plana prestatzeko hasierako fase honetan, baina planaren sustatzaileentzat ikuspegi global batetik baliagarri izan daiteke (azaletik baina aurretiaz) zehatz dezaten ea jasangarritasunaren alderdiren batean garrantzitsua izan daitekeen.

Autoebaluazioko sistema hori baliagarria ere izan daiteke ekintza esanguratsuetan eta sailen beste edozein planetan, baita jarduera-proiektu edo -programa zehatzetan ere.

Eraginen analisisan inpliziturik dagoen ideiarene arabera, planek, helburu espezifikoak bilatzen dituztenez, ez dute eragin behar kolektibo eta eremu geografiko guztietan eta, sarritan, beste eragin negatibo batzuk izaten dituzte; ondorioz, gatazkak sortu ohi dira onuradunen eta kaltetuen artean. *Ex ante* ebaluazioaren xedea gatazka horiek ahalik eta lasterren zehaztea da, ukatu gabe, irtenbiderik onena hautatu ahal izateko, eta erabakiak gardentasunez har daitezen, kostuak eta onurak eta zenbait gizarte-kolektiboren arteko banaketa neurtuta.

Ingurunea *historikoki metatutako* hiru motatako baliabideen *kapitaltzat* har daiteke: ekonomikoak, naturalak eta sozialak. Giza esku-hartzeek eraldaketak eta trukeak eragiten dituzte kapital horren era batzuen eta besteen artean. Ingurumen-balio jakin bat *galtzea* eta balio ekonomiko edo sozial *handiagoa bihurtzea* sozialki onargarria izan daiteke, beti muga batzuen barruan. Edo alderantziz. *Transferentzia* horiek onargarriak izateko, irabaziak eta galerak balioztatzekeo prozesuak gardena izan behar du. Horrez

¹² Ikus Europako Batzordeak erkidegoko ekimenen eraginak ebaluatzekeo sistemaren barruan proposatutako galdetegiaren eranskin egokituaren A.2ko 3. eta hurrengo taulak.

gain, ezin da sistematikoki dimentsioetako baten kontra egin, eta oro har, balioaren igoera garbia gertatu behar da.

Edozelan ere, dimentsioen **ordezkagarritasunak** baditu bere **mugak**; izan ere, galera batzuk onartezintzat har daitezke, eta ez lirateke konpentsatuko beste bi dimentsioetan lortutako hobekuntzekin¹³. Era honetako mugak dira:

- ✓ Ez dira **gutxieneko muga batzuk** gainditu behar alderdi sozialei, ekonomikoei edo ingurumenekoei dagokienez. Honako hauek jasotzen ditu: nahitaez bete beharreko lege-arauak (isuriaren arloan, adibidez), lege-arauetan oraindik jaso gabeko irizpide zientifikoak (lurraren berotzearen buruz, adibidez), eskubide soziopolitikoak (aukera-berdintasuna, gutxieneko soldata, bizi-baldintza duinak, gizarte-segurantza edo giza baliabideak edo gutxiengo etnikoen kultur nortasuna bermatzea).
- ✓ Jarduera jakin batzuek eragindako kalteen **itzulezintasuna**.
- ✓ **Etorkezuneko belaunaldiei** berekin batera dagozkien onurak ez dituzten kargak **helaraztea**.
- ✓ **Beste herrialde** edo eskualde **batzuei** ingurumen-kutsadura edo gizarte-arazo propioak transferitzea.
- ✓ Nahikoa ezagutza ez izateagatik **zalantzak** edo arriskuak sortzen dituzten egoerak, edo gertatzeko aukera txikia izan arren kaltea oso handia egin dezaketenak.
- ✓ Dagoeneko jasangarritasun-arazo larriak dituzten eremuetan edo arazoak okerragotu daitezkeenetan **hondatze jarraitua** gertatzea.

3.2 Oinarrizko ildo estrategiko eta ekonomikoen dokumentua

3.2.1 Dokumentuaren helburua

Legegintzaldi hasieran egindako plangintzarekin bat etorritik, eta oinarrizko informazioko fitxetara eramanda, **Gobernu Planak** egiteko prozesuaren lehen mugaria **Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak** izeneko dokumentua da, zeinak amaiera ematen baitio *Gobernuaren Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuak prestatu, izapidetu, onartu, jarraitu eta ebaluatzeko prozedura* dokumentuan (Gobernu Kontseiluaren 2010eko apirilaren 13ko akordioaren III. paragrafoa) prestaketa-fasetzat¹⁴ hartzen denari.

Dokumentuaren izenak berak iradoki bezalaxe, xedea planaren oinarrizko ezaugarriak zehaztea da (oinarrizko informazioko fitxetan aurreratuta), ikuspegi hirukoitza kontuan hartuta:

- Identifikatutako arazoak eta gizarte-eskaera zehaztea.
- Aurreikusitako eraginak eta estrategia mugatzea, jasangarritasunari dagokionez.
- Planaren kuantifikazio ekonomikoa eta aurrekontukoa.

¹³ Ikus A.3ko 21. laukia eraginaren arteko ordezkagarritasunaren era honetako mugak kontuan hartzeko bereziki diseinatutako irizpideak dituen eranskinean.

¹⁴ *Gobernuaren Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuak prestatu, izapidetu, onartu, jarraitu eta ebaluatzeko prozeduraren* 1. fasearekin bat dator; horrek *Oinarrizko ildo estrategiko eta ekonomikoak markatzea* izendatzen du. Oinarrizko ildo estrategiko eta ekonomikoak bazeuden aurreikusita 2006ko ekainaren 27ko Gobernu Kontseiluaren akordioan; beraren bidez, 2005-2009 epeko VIII. Legegintzako Gobernu Ekintza Planifikatzeko Dokumenta onartu zen.

Fase horren helburua planaren orientabide orokorraren eta legegintzaldiko funtsezko elementuen arteko **kontraste aurreratua** egitea, eta gobernu-jarduera osoari barneko koherentzia handiagoa ematen saiatzea.

Horretarako, kontuan hartu behar dugu ildo estrategiko eta ekonomikoak ez direla behin betiko planaren aurretiko elementu formal hutsa (eta, ondorioz, ez da egokia planaren oso fase aurreratu batean aurkeztea, horren laburpen hutsa izanik); halaber, ekin beharreko plangintzaren zutabeak aurreratu gabe (aurretiko faseari dagokio) planteamendu oso orokorrak aurkezten dituzten asmo-adierazpen bat ere ez dira. Bi ikuspegi horiek prestaketa-fasearen zentzua edukiz husten dute, eta **nahi ez diren eraginak** izaten dituzte; hala nola:

- ✓ Planean funtsezkoak izan daitezkeen elementuak ez nabarmentzea.
- ✓ Gizarte-eskaeraren, gobernuaren programa-konpromisoen eta ikuspegi teoriko edo teknikoaren arteko bat etortzearen gaineko kontrastea eta gogoeta ez ahalbidetzea.
- ✓ Beste gobernu-politika batzuekiko loturaren edo erakunde-egituratzearen gaineko kontrastea eta gogoeta ez ahalbidetzea.
- ✓ Dauden aukerak ez aurkeztea eta, ondorioz, ez ebaluatzea edo gardentasunez ez aurkeztea; azken hori funtsezkoa da eta zentzua ematen dio interes-taldeentz eta, oro har, herritarren partaidetzari. Hortaz, esparru batean egon litekeen sakrifizioa (ekonomikoa, soziala edo ingurumenekoa) beste bietan irabazten denegatik justifikatzen da.
- ✓ Plana egiteko prozesuan aztertu eta zehaztu beharreko edukiak aurreratzea (testuinguruaren beharrezko diagnostikoa eta analisia eduki ondoren; eragileen, erakundeentz eta interesdunen parte-hartzea erraztu ondoren; hasi beharreko zenbait neurriren egokitasuna argitasunez identifikatu ondoren, etab.).
- ✓ Aukera aurreratu horiei eustea, hasierako koherentzia bat, behar adina alderatu gabe dagoena, erakusteko helburu bakarraz; Plana egiteko fasean formulatutako beste ikuspuntu edo aukera batzuk gehitzea baztertuz edo mugatuz (erabilgarri dauden baliabideak direla eta).

Ondorioz, Oinarrizko ildo estrategiko eta ekonomikoek plangintza hobea egiteko tresna programatikoa izan behar dute; era berean, plangintza horrek modu koherente batez lotu behar ditu planaren helburu estrategikoak gobernuaren beste helburu estrategiko batzuekin (eta, bereziki, Euskadiko Garapen Jasangarrirako Estrategia 2020renak); arazoaren edo gizarte-eskaeraren funtsezko puntuak identifikatu behar ditu kontraste sozialari eta herritarren zein interes-taldeentz partaidetzari begira, orientazioa erkatu behar du beste erakunde-esparru batzuetan hartutako jarraibideekin (lokalak, foralak, Estatukoak, beste autonomia-erkidego batzuetakoak, Europako Erkidegokoak, Nazioarteko Agentzietakoak edo Batasuneko beste kide batzuetako eskualde-agintariak).

3.2.2 Dokumentuaren edukia

Gobernuak onartutako prozeduran ezarritako irizpideetan oinarriturik, eta aurretiko fasean prestatutako oinarritzko informaziotik abiatuta, oinarritzko ildo estrategiko eta ekonomikoen dokumentuak egitura hau izan dezake:

1. Testuingurua eta aurrekariak

- Heldu nahi zaien gizarteko arazoak, eskariak edo premiak zehaztea, eragindako kolektiboak identifikaturik.
- Erabilgarri dauden diagnostikoak txertatzea, ekonomia, gizarte edo ingurumeneko arazoei espresuki erreferentzia eginez.
- Orientabide orokorrak ingurune orokorreko edo sektorekako ingurune espezifikoko politika publikoetan.

2. Planaren asmoa

- Planak dituen misio edo xedearen eta ikuspegiaren adierazpenean ageri den gobernu-filosofiarekin, hasieratik jasangarritasuneko ideia duenarekin, bat egitea.
- Ardatz estrategikoak, abiapuntuko egoera hobetzen lagundu behar duten jarraibide gisa.
- Helburu estrategikoak. 2020rako EGJErako ekarpena zehaztea.
- Ildo estrategikoekin lotutako jarduketa-ildo nagusiak.

3. Erakundeen koordinazio- eta lankidetzaz- (sailen artekoa eta erakundeen artekoa)

- Esku-hartzearen eskumen-esparrua.
- Esku hartutako sailak eta erakundeak.
- Eragin aurreikusgarria gobernuaren beste jarduera batzuetan eta beste erakunde batzuen jardueretan. Sailen arteko eta erakunde arteko koordinazioaren beharra edo aukera.
- Esku hartzen duten erakundeen artean proposatutako lankidetzarako metodologia.

4. Eraginaren eta bere garrantziaren aurretiko azterketa¹⁵

- Zehaztutako eraginen garrantzia, horien arteko lehentasuna eta justifikazioa aurreratuta, oinarritzko informaziotik abiatuta.
- Jarraitu beharreko metodologiaren proposamena, eta bere irismena, ondoren, hala badagokio, antzemandako eragin nagusiak aztertze.

5. Herritarren eta interes-taldearen parte-hartzea eta jendaurreko komunikazioa

- Zehaztutako interes-taldeak eta banakoak.
- Parte hartzeko eta kontsultako prozesuak jarraituko dituzten planaren alderdiak (diagnostikoa, helburuak, ildo estrategikoak, neurriak).
- Erabili nahi diren mekanismoak/metodologia.
- Plana egiteko prozesuan zehar eta onartutakoan aurreikusitako komunikazio-ekintzak.

6. Aurrekontu-aurreikuspenak

- Planifikatutako aldiaren Eusko Jaurlaritzak urteko zuzendu beharreko baliabideen aurreikuspena, sailen arabera nolabaiteko banaketa eginda.
- Eragindako nagusien aurrekontu-programak.

¹⁵ 4. atalean paragrafo hau betetzeko arau espezifikoak ematen dira.

- Proposatutako lerroekin lotuta indarrean dauden diruz lagun daitezkeen programak edo lerroak, inbertsiokoak...
- Epe ertain eta luzeko eragin ekonomikoa.
- Beste aurrekontu batzuen aurrekontu-inplikazioaren aurreikuspena.

3.2.3 KINaren eta Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzaren txostena

Ildo Estrategikoen dokumentua Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari igortzen zaio; batetik, Koordinazio Zuzendaritzak (hemendik aurrera, KZ) txostena egin dezan, eta bestetik, Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzari eska diezaion proposamena antolamendu ekonomikora eta aurrekontu-aurreikuspenetara egokitzeari buruzko txostena egiteko.

Koordinazio Zuzendaritzaren txostenak *Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak* dokumentuaren koherentzia aztertuko du honako hauekin erkatuz: Hauteskunde Programan, Gobernu Programan edo Inbestidura Akordioan ezarritako edukiekin eta helburuekin; bere arloan beste administrazio-esparru batzuetan egindako politikekin (Europar Batasuna, Estatua, autonomia-erkidegoa...); Gobernuaren plangintza nagusiarekin; Euskadiko erakunde-egiturara duen doikuntza juridikoarekin eta eskumenekoarekin, eta plangintzaren oinarrizko alderdietan ikuspegi metodologikotik duen koherentziarekin. Orobat, Garapen Jasangarriko Bulegoaren laguntza teknikoarekin, hauxe ere identifikatuko du:

- ✓ Estrategia 2020rako EGJEra egokitzen den.
- ✓ Planak jasangarritasunaren gainean dituen eraginen garrantzia (hiru alderdiei dagokienez) eta, ondorioz, horien sakoneko azterketa-aurreikuspenen egokitzapena.

Txostenetan adierazitako gai horiek tratatzeko proposamenak ere jaso ahal izango dira.

Sail sustatzaileek, egindako txostenak ikusita, aldaketa egokiak egingo dituzte; halere, txostenen irizpideren bati kasu ez egiteko arrazoiak espresuki eta behar bezala arrazoitzen beharko dituzte. Justifikazio horiek planari buruzko txostenekin batera jasoko dira espedientean, Gobernu Kontseiluak dagokion akordioa har dezan planaren testua onartzeko aurkeztutakoan.

Indarreko araudiari jarraiki nahitaezkoa den beste edozein txosten ere jasoko da espedientean, bi txosten horiek egiteari kalte egin gabe, eta Gobernu Kontseiluak irizpena eman aurretik.

3.3 Gobernu Planen dokumentuzko egitura eta edukia

3.3.1 Planaren egitura

Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak egin eta jakinarazitakoan, hasierako planteamenduetatik abiatuta garatzen da plana, eta dokumentu-euskarria osatzeko haietan proposatutako azterlanetan eta jardueretan oinarritzen da (hasierako diagnostikoak sakontzea, azterketa espezifikoak, lankidetzaz beste sail eta herri-erakunde batzuekin, kontrastea gizarte-eragileekin eta interes-taldeekin, etab.).

Paragrafo bakoitzak jarraitutako eraikitze-prozesua hasierako planteamenduekin eta Gobernuaren orientabide politikoarekin koherentea izango da, baita zehaztutako helburu estrategikoak lortzeko funtsezkotzat jotzen diren faktore tekniko guztiekin ere. Egindako azterlanen ondorioz eta, batez ere, kontraste- eta adoste-prozesuaren ondorioz, hasiera batean jaso gabeko gorabeherak agertzen badira, planteamendu berri batzuk egin ahal izango dira, eta hasiera batean pentsatutako ildo estrategikoetan eta jarduketa-ildoetan eragin ahal izango dute; horrelakoak, jarraitutako egite-prozeduraren berezko ondorioak dira, eta Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiarekin berriro egiaztatzea justifikatzen dute, eta, aurrekontuan aldaketarik egon bada, Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzarekin ere egin beharko da kontraste hori.

Nolanahi ere, planetarako egitura komun hau proposatzen da¹⁶:

1. Planteamendu objektiboa. Programako erreferenteak

Lehen paragrafo hau lotuta dago *Ildo estrategikoak eta ekonomikoak* dokumentuan aurkeztutako *Testuingurua eta aurrekariak* eta *Planaren asmoa* puntuekin. Bertan honako kontu hauei erantzun behar zaie:

- **Bete beharreko gizarte-eskaerak edo –beharrak hautatzea erraztu duten iturriak identifikatzea.** Gizartetik datozen eskaerak balioztatzeaz gain, kontuan izan behar dira Gobernuaren programazio-xedeak, eta xede horiek epe ertainera eta luzera lortzeko ikuspuntua (Gizarteko kideei egindako kontsulta zehatzek ahalegin guztia jartzen dute berehalako arazoetan edo indarrean dauden arazoetan, eta epe ertainerako eta luzerako ikuspuntua alde batera uzten dute). Paragrafo hau kontestualizazio soziologiko batekin lotu behar da (kontestualizazio horren funtsezko edukia egoeraren diagnostikoan kokatuko da).
- **Lortu beharreko programazio-helburua edo -xede** Helburu edo xede hori lotuta egongo da Erakundeari dagokion «misio» delakoarekin eta Erakundeak botere publikoek eremu horretan izan beharreko jardunari buruz duen «ikuspenarekin». Ildo horretatik, garrantzitsuak izango dira erreferentziazko dokumentuak, hala nola erakundeen programazio-deklarazioak edo -adierazpenak, Gobernuak kideek Parlamentuaren aurrean esandako diskurtsoak, Parlamentuan hartutako akordioak, sailburuek parlamentu-batzordeen aurrean egindako agerraldiak, etab.
- **Beste programazio-xede osagarri batzuk** Gobernu Ekintzaren funtsezko helburuak erreferentziaz hartuta, egokia da identifikatzea helburu horietako zein bultzatuko den

¹⁶ 2010eko apirilaren 13ko Gobernu Kontseiluaren Akordioaren 4. paragrafoan onartuta. Zerrendak ez du izaera zurrunik edo sakonik. Baina «nolanahi ere, paragrafo hauek planaren edukietan argi eta garbi identifikaturik gelditu beharko dira».

nabarmenki gobernuaren jarduna xede nagusian sustatzen denean (hala, adibidez, lanerako neurriak planifikatzeak eragina du gizarte gaietarako eta langileen osasunaren esparruan, edo beste esparru batzuetan helburuak lortzean). Funtsezko koherentzia-elementua delakoan, ezinbestekoa da paragrafo honetan espresuki aipatzea planak 2020rako EGJEn helburuak lortzeko egindako ekarpena¹⁷.

2. Egoeraren diagnostia eta testuingurua

Planak adierazi beharko du **zer testuingururen arabera formulatu diren planaren edukiak**. Diagnostikoa ondo egitea ezinbestekoa da hauek identifikatzeko: zer arazotan esku hartu behar den, ordura arte nola landu diren, zer lorpen izan dituzten, eta okertzeak eta nahi ez ziren edo programatu gabeko efektuak. Diagnostikoa ongi egitea beharrezkoa den arren, onartu behar da diagnostikoaren formulazioak errealitatearen balorazio-elementuak eta ikuspuntu partzialak izango dituela, eta planak landuko duen xedeak markatuko duela.

Honetan lagundu behar du diagnostikoak ikuspegi operatibo batetik:

- **Arazoa definitzea:** Abiapuntuko egoera ezaugarritzen duten faktore ekonomikoak, sozialak edo ingurumenekoak, honako hauek ere identifikaturik: eragindako kolektiboak, arazoa pairatzen duen biztanle-bolumena, gainerako biztanleengandik bereizteko ezaugarriak, lurralde-dimentsioa, eta arazoa eragiten duten kausak.
- **Hornitu behar diren zerbitzuen edo prestazioen tipologia eta bolumena identifikatzea:** Arazoa pairatzen duten pertsonen zer prestazio edo zerbitzu erabili beharko zituzten (intentsitatea eta maiztasuna); arazoaren larritasunaren arabera, zerbitzuak bereizteko edo ez bereizteko beharra.
- **Dagoenaren beharraren, eskaeraren eta erabilera-mailaren berri izatea:** Bete gabeko beharrak dagoen eskaerarekiko, artatu gabeko eskaera beharrezkoa denarekiko; beharrezkoa ez den eskaera artatuarekiko; eskura dagoen erabili gabeko eskaintza. Hori guztia funtzionatzen ari den politikarekin lotuta, eta politika berri bat bada, beste lurralde-testuinguru batean eskura dauden datuekin lotuta.

Laburbilduz, **diagnostikoak ezagutarazi behar du esku-hartzea zergatik egiten den, esku-hartze publikoa zer arazo edo egoera txarrek eragiten duen.**

Planaren diagnostikoa Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak egiteko fasean egin zen diagnostikoan oinarritzen da. Horrenbestez, Planean informazio kopuru handiagoa jasoko da, aurretiko diagnostiko horrekiko koherentzian, aldatu nahi den errealitatearen bilakaera-jarduerak eta adierazleak identifikatzeko aukera ematen duten egoera-elementuak iturburu izanda. Hala eta guztiz ere, askotariko egoerak direla kausa, *Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak* prestatzeko momentuan egindakotik aldentzen den diagnostikoa egin daiteke, betiere behar bezain oinarrituta badago.

¹⁷ Eranskineko A.3ko 6. eta hurrengo laukietan 2020rako EGJEn helburu estrategikoen zerrenda jasota dago, baita lotutako jardueren zerrenda bat ere.

Beraz, diagnostikoak hauen ikuspuntua eskainiko du:

- **Jardun-eremuaren gizarte-testuinguru orokorra eta berariazkoa** (paragrafo honetan, aurreko paragrafoan gizarte-eskaerak hautatzean horri buruz egindako zehaztaileen bidez adierazitako testuingurua harremanetan jartzeko beharra sortzen da).
- Testuinguru orokorrak joera orohartzaileak hautemango ditu eta Euskaditik kanpoko inguruneari buruzko ikuspuntua integratuko du (batez ere Estatuarekin eta EBrekiko erlazioak).
- **Planaren edo aurretik egindako jardueren ebaluaziotik ikasitako irakaspenak eta ondorioak kontuan hartzen ditu**¹⁸. Era berean, gertuko jardun-eremuei buruz jardutean, ebaluazio-ondorioak edo -emaitzak Administrazio berak hasitako beste plan batzuetan sartu behar dira.
- **Giza baliabideen eta baliabide materialen baliagarritasuna** Zer gizarte-behar ase behar diren zehazten duen kanpoko errealitatearen berri izateaz gain, jakin behar da zer baliabide izan dituen Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak eremu horiek artatzeko. Euskadiko erakunde-egitura kontuan hartuta, kontuan izan beharko da (hurrengo paragrafoan eskaintzen den eskumen-esparruarekin) zer baliabide iraunkor eskaini dituzten Udal Administrazioak eta Foru Administrazioak, eta hala dagokionean, Estatuak.
- **Gizarte-pertzepzioaren** berri izateko gaitutako tresnak eta **herritarren eta eragile gaituen parte-hartzea** errazteko tresnak, bai eta diagnostikoa eta Planean jasotako neurriak formulatzean izandako eragina ere.
- Edonola ere, diagnostiko-prozesua **datuak lortzeko eta erabiltzeko objektibotasunaren eta zintzotasunaren printzipioen** arabera zuzenduko da. Ildo horretan, **diagnostikoa eratzeko iturrien aberastasuna eta aniztasuna** lagungarria izango da errealitate posibleen alderaketa handiagoa egiteko. Horretarako, hainbat informazio-iturri erabili beharko dira: gizarte-ikerketari buruzko dokumentuak, langile adituen iritzia (kudeatzaileak, politikariak...), herritarren ikuspena edo ikuspuntua gai horri buruz, administrazio-erregistroak, zeharkako kalkuluak egiteko estatistika-iturriak.

3. Jardun-eremuak, eskumen-esparruak eta funtzioen erreferentziako esparru juridikoa mugatzea

Estatuaren lurralde-eraketaren arabera, formalki ezarritako eskumen-mugak herri-administrazioei dagokien eskumen-esparrua eta -muga finkatzen ditu.

Jarduketa-esparru horrek Administrazioak eremu jakin batean har ditzakeen neurrien (araudiak, garapeneak, betearazteak) tipologia zehazten du. Halaber, eskumen-banaketan inplikaturako gainerako Administrazioekin indar daitezkeen harreman-tresnak sustatzeko beharra sumatzeko aukera ematen du, bai eta politika publiko batean esku hartzean zer eskumen-esparru lotuta egon daitezkeen identifikatzeko ere.

Lurralde-mailetan eskumen-banaketa hori ikusteko aukera ematen duen esparru juridiko egonkor samarra badago ere, oraindik beharrezkoa da eskumen-banaketari buruzko kalkulu zehatza egitea. Kalkulu horri esker, berezko eremuekiko plangintza osoa, eta beste erakunde-

¹⁸ Kontuan izan behar da aurrerago «Ebaluazioari» buruz jarduten den 4. paragrafoaren edukia.

maila batzuek legez esleituta dituzten zereginak errespetatzen dituen, behar bezala muga daiteke¹⁹.

Eskumen-mugari esker (hala ere, interpretazio-desberdintasunak dituzten eremu handiak daude oraindik), Autonomia Erkidegoko Administrazioak formulatutako Planak jaso behar duenaren ikuspuntu errealistagoa lor daiteke, eta nabarmendu zer esparrutan lor daitekeen akordio bat inplikaturako gainerako erakunde-mailekin.

Analisi horrek eskumenen erakunde-mailak argitzeaz gain, jardun-arloen barne-banaketa berari jarri behar dio arreta, xede hauetarako: planifikazio publikoaren xede den gai nagusiar dagokionez funtzioak betetzen dituen sailaren buruzagitza adierazteko; eta elkarrizketa eta lankidetzaren esanguratsua eduki behar den barne-egiturako gainerako subjektuak identifikatzeko, bai eta lantzen dituzten politikei dagokienez koordinatzeko beharra identifikatzeko.

Horrelakoei jarraiki, plangintzak hauxe argitu behar du:

- **Inplikaturako eskumen-esparruak (erakundeen arteko esparruan, gertuko erakunde-ingurunean hasi diren eta hasten ari diren planak edo programak barne hartuta) eta erreferentziazko esparru juridikoa mugatzea.**
- **Autonomia Erkidegoko Administrazioaren barne-esparruan funtzioak mugatzea, erreferentziazko esparru juridikoa barne hartuta.** Paragrafo honetan, jardun-arloak eta -eremuak identifikatzeaz gain, egokia da beste Gobernu Plan batzuen arduradunekin harremanetan jartzen hastea. Beste Gobernu Plan horiek beste gizarte-eskaera batzuei (batzuk gertukoagoak beste batzuk baino) erantzuten diete, eta osagarriak izan daitezke.
- Jarduten den esparruan erakundeen arteko lankidetzaren eta/edo koordinaziorako mekanismoak sartzeko beharra edo egokitasuna, betiere ezarritako eskumen-esparrua errespetaturik, politika publikoak gauzatzeko orduan bikoiztasunak eta gainjartzeak egotea saihestearren.

4. Egoerak deskribatzea eta hautatuko ekintzaren aukera

Analisi hori *Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak* dokumentuan aurreratu zen, eta Diagnostikoaren izaera bera du; horrela bada, formulatutako ebaluazioa, sumaturako bilakaera eta hautemandako joerak kontuan hartuz, hau dakar berekin: erreferente horiek aurreratzea eta garatzea, etorkizunean gerta daitezkeen arazoei aurrea hartu ahal izateko, eta horri esker, nahi ez diren etorkizuneko egoerak zuzentzeko neurri posibleak kontuan izateko; edo datozen belaunaldiak barne hartzen dituen etorkizuneko ikuspuntu batetik, gizarte-ongizatean zaintzeko eta aurreratzeko egokitzen jutzen diren beste neurri batzuk sustatzea.

Oro har, edozer politika publiko har daiteke kausa-erlaziotzat: «*Politika jakin bat gauzatzeko badugu (neurri zehatzekin) arazo jakin bat konpontzeko edo arinduko dugu*», beste hipotesi partzial batzuekin batera: «*Baliabide nahikoak baditugu, jarduera jakin batzuk egoki egiten ditugu*;

¹⁹ Esparru juridiko hori erlatiboa da, Estatu-Autonomia Erkidego mailan transferitzeke dauden eskumen-eremuak baitaude, eta eremu horien irismenari buruzko ezaugarriak baitago oraindik, besteak beste sektore-legeen onarpenean eta Lurralde Historikoaren Legearen (zalantzan jarri da, eta sarritan, Lege horri aldaketak egitea aurreikusitako) interpretazioan desadostasunak agertzea. Tokiko mailan, kalkulatu da Euskadiko Udalen Legea onartzea, IX. Legegintzaldirako Legeen Egutegiaren barne dagoena (aurreko Legegintzaldien Egutegietan ere aurreikusitako), lagungarria izango dela erakunde-maila horretan sakontzeko.

diseinatutako produktuak sortzen ditugu, eta esku-hartzeari zentzua emango dioten eragin jakin batzuk izaten ditugu».

Plangintzaren zeregin oinarritzkoenak kontuan hartuta (antolaketa eta langileak) etorkizuneko egoerak aurreikusteak zehazten du zer neurri hartu behar diren, nahi den helburu bat sustatzeko, edo gogoko ez diren egoeren eraginak kentzeko edo murrizteko.

Metodologia bakar batek ere ezin du kendu ziurgabetasuneko eta zehaztasun ezeko marjina, eta horrenbestez, aldagai guztiak, barnekoak zein kanpokoak, kontuan hartzea ezinezkoa da (eta, nolabait, ez da eraginkorra, aldagai horiek guztiak tratatzeko baliabide ugari beharko bailirateke). Beraz, Planak aldagai garrantzitsuenak hautatu beharko ditu, eta aldagai horien arabera, baldintzatzaile nabarmenenak identifikatu beharko ditu, definitutako xede estrategikoa lortzeko. Kontuan hartutako aldagai multzoak zenbait bilakaera zenbatetsi emango ditu, eta aldi berean, egoera aldakorrek izateagatik barne hartutako jarduketa-neurriak berriz eratzeko zenbait patroi erabiltzeko aukera emango du.

Paragrafo honetan, bestalde, planaren²⁰ jarduera nagusiek ekonomiako, gizarteko eta ingurumeneko jasangarritasunaren gainean duen eraginaren azterketa espezifikoaren berri labur-labur emango da, eta, hala badagokio, gauza bera egingo da ikuspegi alternatiboen artean egindako hautapenari dagokionez.

Azaldutako guztiaren arabera, planak hau adieraziko du:

- **Nagusitzak** jotako **joerak eta parametroetan zer eragin duten**, epe laburrerako, ertainerako eta luzerako ikuspuntuan parametroen bilakaera hobeak eta okerragoak sortutako egoera anitzak eskainiz.
- **Etorkizuneko egoerak diseinatzeko zer parametro hautatu diren, eta parametroen hautaketa zertan oinarritu den.**
- **Planaren aurreikusitako eraginaren ebaluazioa** ekonomia, gizarte eta ingurumeneko ikuspegi hirukoitzean.
- **Hautatutako egoera** (nagusitzak edo gertagarritzat hartua), parametroen hautaketa zertan oinarritu den eta bere gain hartu daitezkeen gorabehera-marjinak azalduz. Hautatutako egoerak egoera-parametro objektiboak ditu, helburuen helmena eta Planaren ebaluazio-planteamenduan definitutako betetze-adierazleekin zer alde duen zehazteko.

5. Jardueraren estrategia-ardatzak ezartzea, eta hala dagokionean, ardatz bakoitzari esleitutako jarduketa-ildoak. Planaren antolaketa- eta sistematika-elementuak

Zehaztutako arazoa edo beharra konpontzeko planak zer esku-hartze egin nahi duen eta zer helburu bilatzen dituen aintzat hartuta erabakiko dira ardatz estrategikoak. Helburu horiek oinarri hartuta, estrategia-ardatzek ekintza publikoaren oinarritzko esparruak adieraziko dituzte. Harreman horrek xede estrategikoak zehaztera behartzen du, eta lotu egiten ditu

²⁰ Garrantzia eta balioespena. Ikus beherago, 4. paragrafoa.

lehen ataleko edukiekin. Lehen paragrafoa identifikatutako beharrei eta proposatutako plangintzari lehenetsuna emateko erabiltzen den programazio-xedeari buruzkoa da (Ildo estrategikoek aurreratutako elementurik garrantzitsuenetako bat da).

Estrategia-ardatzak barne-euskarria edo -egitura izango dira, eta ardatz horien inguruan sistematizatuko dira identifikatutako beharrei heltzeko jarduketak, etorkizuneko bilakaerari buruzko aukeratutako aurreikuspenaren arabera.

Estrategia-ardatzak formulatzeak premisa gisa behar ditu kopuruan mugatutako helburu batzuk, hedaturaz argi eta zehaztasunez definitutakoak. Premisa horren arabera, proposatutako ardatzek jarduketan ondoko kategorizazioa zailduko duten anbiguotasunak edo zentzu-aniztasunak eragotziko dituzte (hala ere, ustezkoen eta irizpideen aniztasuna kontuan hartuta, eta sistematizazio-kategorietara zehazki egokitzea zaila dela kontuan izanda, proposatutako jarduketak ardatzekin lotzeko mekanismoak sar daitezke, deskribatutako ardatz batean kokatu behar badira ere).

Planaren ekintzarako edukiak antolatzeko egitura gisa, bi eraketa-maila posible aurreikusten dira. **Estrategia-ardatzak**, Planaren helburuekin lotuak; eta **jarduketa-ildoak**, ardatz bakoitzean hasi beharreko administrazio-ekintzen tipologiari buruzkoak.

Epe laburrera, ertainera edo luzera lor daitezkeen inpaktuak kontuan hartuz helburuak formula daitezkeen neurrian, estrategia-ardatzek politika publiko batean hiru mailatan lortu nahi diren inpaktuen aurreikuspena sar dezakete beren egituran:

- Esku-hartzearekin zuzenean lotutako epe laburrerako eraginak (helburu operatiboak)
- Aurrekoek eragindako bitarteko eraginak (helburu espezifikoak)
- Bitarteko eraginak pilotzean sortzen diren epe luzerako edo amaierako eraginak (helburu orokorrak)

Bestalde, **jarduketa-ildoak administrazio-egiturak heldu beharreko ekintzen tipologiekin lotuta egongo dira** (araudia, sustapenekoak, erakundeen arteko koordinaziokoak, beste eragile batzuekin lankidetzan aritzekoak), eta aztertutako ardatz guztientzat antzeko jarduketa-ildoak jaso ahal izango dira.

Ardatzak eta ildoak planteatzeko orduan, Euskadiko Garapen Jasangarrirako Estrategia 2020n azaldutako jarduketa-ildoekiko egokitzapena nabarmenduko da.

6. Proposatutako estrategia-ardatzen eta ardatz horiek ezartzeko tresna formalen arabera garatu beharreko ekintzei buruzko azalpen zehatza

Ekintzen katalogo osoa da, eta ekintza horien bidez identifikatutako gizarte-beharren inguruan definitutako helburuak bete nahi dira, Gobernuak herritarrekin konprometitu dituen programazio-ildoekiko koherentzian.

Ekintzen katalogoa proposatutako estrategia ardatzen arabera egituratuko da. Ardatz bakoitzaren barruan, sistematik definitutako jarduketa-ildoei jarraituko die (edo hala ezin bada, estrategia-ardatz guztiei sistematika homogeneo bat aplikatuz, jarduketak zer-nolakoak diren kontuan hartuta), eta era berean, egutegi batean adieraziko dira, non jarduketei heltzeko aurreikusitako datak jasoko diren. Egutegi horrek koherentzia izango du aurrekontu-programazioarekin, uztartutako jarduketek aldi baterako eskatutakoarekin (adibidez, eremu batean laguntzak arautzea arau orokorren bidez, eta ondoren, laguntzen deialdiak egitea, dagokien aldian).

Jarduerek oinarritzko deskribapena aurreratuko dute:

- Produktuen ondorioz hautemango diren **onurak**, aurreikuspenen arabera (epe laburrerako eragina) eta denborak aurrera egin ahala, aurreikuspenen arabera, sortuko diren oinarritzko aldaketak (epe luzerako eragina).
- **Modu eraginkorrean burutzeko beharrezko baliabideak**, alegia, jarduketak garatutako jardun-eremuari emandako baliabide erabilgarrietara eta gainerako giza baliabideetara eta baliabide materialetara egokituta. Baliabideak jasangarritasuna aintzat hartuta egindako azterketa-prozesu baten ondorioz zehaztu eta hautatuko dira.
- **Jarduketen bat etortzea**, eskuragarri dauden baliabideetatik haratago; alegia, bideragarritasun juridiko eta materiala kontuan hartuta eta aurretik egindako antzeko ekintzekin bat datorren sortzeko eta ezartzeko errealismoa kontuan hartuta.

Jarduketen zerrendak, **planaren bidez lortu nahi diren xedeetan ondorio zuzena eta berehalakoa izanik, planaren lehentasunekoak diren sailek kudeatzen dituztenak sartu ahal eta beharko ditu.** Gobernu Planak segurtasuna bermatu behar du, Eusko Jaurlaritzaren barruan garatzen diren ekintzetan, deskribatutako xedeak lortzeko, osotasun horri uko egin gabe, ezarritako sailen banaketaren arabera. Segurtasun horrek eskatzen du sailen arteko harremanak, plangintza-prozesu osoan beharrezkoa denak, garrantzi berezia izatea, plana adierazteko eta jarduketa materialak identifikatzeko fasean. Horrelakoak hartu behar dira kontuan jarduketa baten gauzapenean hainbat administrazioek esku hartzen badute.

Ezarri beharreko ekintzen **denbora-ikuspegia** (azken batean, planifikatutako denbora-tartea), legezko aurreikuspena egon ezean edo planifikatutako eremuaren izaerak berak eskatu ezean, Gobernuaren Ekintzaren plangintzak duen izaera politikoarekin bat etorrira, **dagokion Legegintzaldiaren ikuspegira egokitu beharko litzateke.** Denbora-tarte honetan Gobernuari, ohiko zerbitzuak emateko hausturarik gabeko ikuspegiaren, berehalako erabakiak bideratu ahal izateko tresna izateko aukera emango dion Legegintzaldiaren amaierako ekitaldia sar daiteke.

Ekintza zehatzak planteatzeko garaian, hala badagokio, EGJE 2020n (EcoEuskadi 2020) ezarritako jarraibideekin duen bat etortzea nabarmenduko da.

7. Planteamendu subjektiboa.- Erakundeen arteko erlaziorako eta herritarren eta interes-taldeen partaidetzarako formulak

Paragrafo hau honako honekin lotuta dago: **inguruko gainerako subjektuekiko harreman-esparrua eta elkarrizketa arina izateko aukera emango duten bideak bideratzeko beharra** (arina eta, gainera, jarreraren trukeekin), desberdintasunak eta gatazkak konpontzeko edo proposatutako jarduketan ondorioa indartzeko formulen gaineko erabakiak hartzeko.

Bi bloke bereizten dira **harremanetan jar daitezkeen erakundeen izaeraren arabera**: Alde batetik, **eremu publikoa**, «*erakundeen arteko erlazio*» gisa identifikatua; bestetik, **elkarri eragiteko gainerako subjektuak**, oro har, herritarrak eta interes-taldeak.

7.1.- Eremu publikoan, aldi berean, barneko eta kanpoko eremuaren artean bereizten da. Lehenengoa, Eusko Jaurlaritza osatzen duten gainerako sailekiko harreman-esparrua, eta bigarrena, dituzten eskumenak erabilia, landutako Planaren ekintzen eremuko herri-administrazioekiko harreman-esparrua.

a) Barneko eremuari dagokionez, harreman zehatzen identifikazioa lor daiteke; horretarako, «*arloen*»²¹ dekretua, dagokion Legegintzaldikoa, eta sailen «*egitura organikoaren*» gaineko dekretuak daude. Hala ere, ez da harreman horiekiko banan-banako tratamenduaren alde egiten, bereziki «*Gobernu Planetan*», baizik eta, **inplikaturako jardun-arlo handiak identifikatuta, egon daitezkeen elkartzeko organoen ezagutzan sakondu beharko da, edo orain arte programa konkurrenteetan egindako lanetan edo Planaren xede estrategikoetan laguntzen duten lanetan eta legegintza-egutegian edo sailaren planen eta jarduketa garrantzitsuen egutegian proposatutako neurrietan.**

Horrela, organoek ezar ditzaketen banakako harremanak gorabehera, gainerako sailen ezagutzan aurrera egin ahala, bidezkoa da sailtako goi-mailako karguen edo titularren mailan bateratze-lana egokitzea, hori eskatzen duten alderdi zehatzak egokitu eta moldatzeko²².

Barneko eremuan, erakundeen administrazioaren gainerako erakundeen tratamenduan sakondu daiteke edo beste sail batzuei lotutako **Euskal Sektore Publikoko gainerako subjektuen** tratamenduan. Hori horrela, erakunde horietako gobernu-organismoetan sailtako arduradunek berek erantzukizun handiak dituztela kontuan hartuta, uste da, hasiera batean, horiekiko harremanean, era berean, beste erakunde horietako egitekoen eremua ere aurreikusi beharko litzatekeela.

Era berean, beharrezkoa da, **plan bakoitza egitean, indarrean dagoen barne-koordinazioaren egitura organikoa** ezagutzera, sortutako organo horien aukerak optimizatzeko, zehazki, sailen arteko harremana optimizatzeko.

²¹ Une honetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua, Lehendakariaren uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuak aldatu duena.

²² Hori guztia, marjinaren barruan eta, zehazki, Lehendakariari dagokion sailen arteko eskumen-gatazken gaineko ebazpenaren eta Gobernuaren Ekintzaren arteko koordinazioari dagokionez egon daitezkeen betekizunen aurretik, Gobernuaren 7/1981Legearen 8. artikulua xedatutakoari jarraiki.

b) Kanpoko eremua. Koordinazio, lankidetzeta edo kooperaziorako egitura antolatzaile hori ezagutzeko eta abiarazteko prozesuak garrantzi bera edo handiagoa du erakundeen arteko esparruan; beraz, dauden foroek, lantzen ari den Planari dagokion eremu zehatza ezagutzeaz gain, ikuspegi zabalagoa izan dezakete, bai hurbileko beste eremu batzuei dagokienez, bai gaien gaineko bilakaera historikoari dagokionez.

Balorazio horrek **erakundeen arteko harremanaren funtsezko abiaburua** osatzen du; beraz, Plangintzaren prozesuak premisatzat hartu behar du, izaera teknikoko harremana eta bilerak ezartzeko edo erabakiak hartzeko oztoporik gabe, egokiagoa dela dauden egituretara jotzea, horiek optimizatzeko. Gainera, eskumenen hedapenaren gaineko mugak eta zalantzak argituta, planak, berezko neurri gisa, koordinaziorako egitura egonkorrak finkatzeko indarrean dagoen araudi-esparruaren berrikuspenera sar dezake, dagokion planaren esparruan xede hori lortzeko eta kanpoko beste jarduketa batzuetan erabiliak izateko.

7.2.- Herritarren eta interes-taldearen partaidetzari dagokionez –«gizarte zibila» deitutakoa–, paragrafo honetan eragileen zerrenda eta erabilitako komunikazio- eta partaidetza-tresnak zehatz-mehatz²³ azalduko dira, arazoak eta jarduketa-proposamenak lehenesteko horren ondorioz atera diren emaitzak nabarmenduta.

Nolanahi ere, argi geratu behar da eragile publikoekiko eta pribatuekiko harremana beharrezkoa dela, beren esparruan hartutako plangintza eta neurriak eguneratuta mantentzeko eta aurreikusitako egoeratik eta gerta daitezkeen desadostasun edo gatazketatik urruntzen diren gertaeren bilakaerarentzako tratamendu egokia sartzeko, ahalik eta dinamikoan.

Horrela, bada, plangintzak, beren zereginengatik tartean izan daitezkeen edo aurreikusitako jarduketaren ezarpenaren hobekuntzan lagun dezaketen inguruko subjektuekiko erlaziozko tresna eta bideen aplikazio praktiko eta iraunkorra eskatzeaz gain, Plana egin aurretik erabilitako koordinazio, lankidetzeta eta parte-hartzeko mekanismoak azaldu beharko ditu; horiek Plana gauzatu bitartean baliatuko ditu, subjektu horien lankidetzaz eta parte-hartzeaz jarraipena diseinatuz. Azkenik, erakunde eta pertsona horien ikuspegia gogoan hartuko duen ebaluazioa egiteko egokitzat jotzen dituenak baliatuko ditu; lortutako emaitzen berri emango dio, modu kualifikatuan.

8. Aurreikusitako ekonomia-baliabideen zehaztapena.

Plangintza hertsiki loturik dago dauden baliabideen erabilgarritasun eta optimizazioarekin Ekonomia-baliabideak (eta, zehatz, giza baliabideen erabilgarritasuna eta gainerako bitarteko materialak ekonomia-baliabideak egoteari lotuta daude) Politika Publikoetara heltzeko baldintzarik nagusia dira (agerikoa da, ekonomia-baliabideak mugagabeak balira, plangintzak zentzua galduko lukeela).

Ekonomiaren ikuspegia sartzeko konstantziala da, plangintzari dagokionez, eta zentzua ematen dio (ekonomiaren ikuspegi erreala lotuta ez dagoen plangintza ez litzateke borondate oneko

²³ Eranskin edo dokumentu independente bat jaso beharko litzateke, kontsulta- eta partaidetza-prozesua eta planaren formulazioan duen azken eragina zehatz-mehatz islatzeko.

ekintza bat baino gehiago izango). Aurrekontu publikoen ziklo arrunta (urte naturalarekin bat datorren aurrekontu-ekitaldiari lotuta) eta Planen izaera kontuan hartuta, etorkizuneko aurreikuspen gisa (hasiera batean, Legegintzaldiari egokituta), Planaren edukiek, zenbait baliabide etorkizuneko ekintza zehatzetara lotzeko aukera ematen duten aurrekontu-tresnak gauzatu ez diren neurrian, borondate politikoko izaera mantentzen dute, problematika bati aurre egiteko, bai eta politika horiei baliabideen zifra zehatza hitzemandako borondatearen aurrerapena ere.

Egun arte, ez da zalantzan jarri botere politikoak duen borondatezko izaera, eta eremu politikoan planifikatutakoaren exigentzia mantendu da, eta ez da planifikatuaren gaineko betearazpenari buruzko demanda juridikorik jaso (planen azaldutako izaera horrekin bat eta lotura juridikotik kanpo).

Horrela bada, planaren ekonomia-aurreikuspenek ez dute planaren neurri edo jarduketa zehatz bakoitzari heltzea exijitzen, baizik eta, neurri nagusien kasuan salbu, deskribatutako ardatz estrategikoen inguruan bil daitezke.

Era berean, plan batek, konpromiso politikoa erabiltzeari dagokionez, hasiera batean, ez du oinarri izan behar aurrekontutik kanpoko baliabideen eskarirako; izan ere, Gobernuaren plangintza estrategikoan ezartzen da, eta hori baliatzen da politika bakoitzaren finantzako ingurutzailerak identifikatzeko.

Sustatzailearen sailei dagozkien baliabideen identifikazioa egin daiteke, baldin eta horiekin horrela erabaki bada edo arauak hala ezartzen badu, legearen arabera, eta, edonola ere, sail sustatzaileak berarentzat aurreikusten direnetatik bereizi behar dira.

Beste erakunde batzuen baliabideak bereiz azaldu beharko dira, eta ez dira zenbateko osoan erantsiko, harik eta tresna formal egokiaren bidez konprometituta dauden arte.

9. Plana kudeatzeko eredua

Eduki honek eskatzen du planak planaren kudeaketaren organigrama diseinatu eta sartzeko, Planak eragindako fase bakoitzaren organo arduraduna argi zehaztuta. Kontuan hartu da planak berak ibilbide garrantzitsua izan duela, organo eskudunak egin eta onetsi aurretik, eta, beraz, agerrarazi beharko da zein organok landu duten fase eta jarduketa bakoitza, bai plan estrategikotik, bai betearazpen-planetik.

Zein organok parte hartu duten argi geratu ondoren, eta aurretiko jardueretan zein neurritan esku hartu duten, plana kudeatzeko ereduak erantzukizun estrategiko eta betearazle horien esleipena jaso beharko du, plana onetsi ondoren, horren aurreikuspenen arabera ezartzeko, planifikatutako epeko parte-hartzea eta jarraipena eta emaitzen ebaluazioa eta zabalkundea barne, epe hori amaitzean.

Plana kudeatzeko eredua prestatzean, planaren buru den sailaren egituraren gaineko dekretuan aurreikusitako zereginen banaketa kontuan hartu behar da, bai eta tartean dauden gainerako sailena ere. Planaren sustatzaileek kontuan hartu behar dute, nahitaez eta modu xedaezinean, arau juridikoak baitira, eta, era berean, kontuan hartu behar da gero eta

kide anitzeko organo gehiago dagoela eta horiek zenbait planen jarraipenaren gaineko betekizun espezifikoak dituztela (horrela, jarraipenaren edo ebaluazioaren gainean informazioa jasotzeko beharra, horri buruzko iritzia emateko).

Araudiaren gainean egon daitezkeen aurreikuspenak sailek planaren xedeak modu arinean eta eraginkortasunez lortzeko duten borondateaz adostu beharko dira. Horretarako, egokitzat jotzen da Kudeaketa Eredua proposatzea, dauden egituren oinarriaren gainean, dauden instantzia organikoak eta sailak optimizatzeko eta zereginak ez sakabanatzeko, aurretik dauden horien bidez estaltzen diren eta planifikatutako eremuaren ikuspegi iragazgaitza eragin dezaketan «*ad hoc*» formulak sortuz.

«*Gobernu Planez*» ari garela kontuan hartuta, **beharrezkotzat jotzen da Kudeaketa Ereduak Gobernu Kontseiluaren esku-hartzea aurreikustea, planifikatutako epean, eta goragoko mailako eskumenak aitortzea, bai planaren bilakaeraren eta jarraipenaren ezagutzari buruzkoak, bai esku-hartzeari buruzkoak, edukien berrikuspen garrantzitsuari dagokionez.** Era berean, Gobernu Plan gisa hartzeak dakar **Planaren Ebaluazioa Gobernu Kontseiluari bideratzea**, horren ondorio eta oharrekin, estrategikotzat aitortutako eta dagokion plana Legegintzaldiko Planen Egutegian sartzea eragin zuten sektore horien ezagutza nahikoa izateko.

Gobernu Kontseiluaren Kudeaketa Ereduan nahitaez egoteak zehazten du, era berean, sailaren pertsona titularraren nahitaezko presentzia, horrek planaren gaineko gaiak goi-mailako organo horri eman behar dizkion neurrian.

Azkenik, ezin da adierazi gabe utzi «*kanpoko eragileek*» administrazioaren egituren bertan duten presentzia handia; horiek Gobernu Sailek sustatutako planak prestatzen, parte-hartzea dinamizatzen, idazten eta horien jarraipena egiten parte hartzen dute (bai Gobernu Kontseiluak onetsitako planak, bai sailen beste plan batzuk).

Jarduketa hori, oro har, kontratu publikoen bidez gauzatzen da (nahiz eta, unibertitate zein eremu publikoko bestelako subjektuek esku hartu duten kasu batzuetan, lankidetzarako formuletara jo izan den, hitzarmenen bidez edo bestelako administrazio-bideren baten bidez) eta plan baten fase zehatzetara zein plan osora zabaltzen da.

Kanpoko eragile horien esku-hartzeak ez dakar organo politikoei oro har dagokien plangintzaren erantzukizuna gutxitu edo lausotzea, ez eta organo horiek agiri hauen orientazio politikoa zehaztuko duten urratsak edo funtsezko oinarriak ezartzea ere. Horrenbestez, horien jarduera aholkularitza adituaren edo jarduera materialen eremuan sartu beharko da.

Horrela, esku hartzen dutenean, Kudeaketa Ereduak onetsi aurretik egindako faseetan gauzatutako jardueren gaineko aipamenak jasoko ditu, bai eta esleitzea aurreikusitakoak ere; horretarako, administrazio-egituraren organoa izendatuko da, eta horren mende garatuko da jarduera, zuzenean.

10. Planeatutako xedeak edo helburuak jarraitzeko eta ebaluatzeko sistema

Ebaluazioaren atala botere publikoen jardunean gero eta garrantzi handiagoa hartzen joan da. Ekintza publikoa arduradun politikoen eta kudeatzaile politikoen interesekoa baino ez zelako ideia gainditu ondoren, hartutako neurrien arrakasta-maila ezagutzeko, jarduera horren gaineko ezagutza gizarte osoari ireki zaio, bai eta gauzatutakoaren gaineko azterketaren balioa ere, etorkizunean erabakiak hartzeko erreferentea izan dadin. Ebaluazioa, bestalde, ezinbesteko baldintza da plangintza etengabe hobetzeko dinamika sartzeko. Gogoan izan behar dugu, halaber, plana egiteko hasiera-fasean aurreko plangintza-ariketen gainean egindako ebaluazioetatik abiatu garela.

Politika publikoen ebaluazioari oinarrizko balioa aitortu zaio, proposatutako konpromiso politikoen betearazpen-mailaren erreferente gisa, eta arduradunek zerbitzua ematen jarraitzeko edo jarduera publikoarekin aurrera jarraitzeko erabakia hartzeko erreferente gisa.

Ebaluazioak helburu eta adierazleen sistema kuantifikagarria eta, ondorioz, kudeagarria edukitzea eskatzen du. Ondorioz, planaren amaierako fase honetan hauek jasoko dira:

- *Aginte-koadroa* osatzen duen adierazle-sistema; horri esker, planaren lorpenak ebaluatu daitezke hitzartutako ekintzen eta horretarako zuzendutako baliabideen arabera.
- Ebaluazioa egiteko prozedura eta aldizkakotasuna; planaren bitarteko ebaluazio bat egitea ere komenigarria izango litzateke (indarraldiaren erdian edo), eta, ezinbestekoa, *ex post* ebaluazio bat.

Bitarteko ebaluazioa gomendagarria da; izan ere, indarraldiaren barruan planaren jarduketak eta baliabideak berrorientatzeko aukera eman nahi du, helburuak berriro neurtzea eskatzen duten gorabehera-aldaketak eta/edo planaren ekintzetan ikusitako egokitasuna eta eraginkortasuna aintzat hartuta.

5. atalean **ikuspegi zehatzagoa eta espezifikagoa eman da politika publikoen ebaluazioari buruzkoa, Gobernuaren Plangintzari aplikatua**. Nahikoa da une honetatik nabarmentzea tratamendu sistematiko eta iraunkor baten helburu izateko beharra, plangintza-prozesu osoan; alegia, planaren beraren ikuskeratik, aurretik dauden erreferenteak kontuan hartuta, etorkizunean erabakiak hartzeko unean hobekuntza eragiteko garatutako Planaren *ex post* ebaluaziora.

3.3.2 KINaren txostena eta gomendioak

Testua «...*plana*» izeneko dokumentu moduan bidaliko zaio Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari, eta honek, **aurrekontu-aldaketak badaude** aurretik irizpena emandako «...*planaren oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak*» dokumentuaren aldean, **Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzari** eskatuko dio txostena emateko, ea proposamena antolamendu ekonomikora eta planaren denbora-tarteari dagozkion aurrekontu-aurreikuspenetara egokitzen den.

Halaber, Koordinazio Zuzendaritzari ere eskatuko dio **txosten bat** egiteko honako honekin lotuta:

- Hauteskunde Programan, Gobernu Programan edo Inbestidura Akordioan ezarritako edukiak eta helburuak.
- Bere arloan beste administrazio-eremu batzuetan (Europar Batasuna, Estatua, autonomia-erkidegoak...) egiten dituzten politikak.
- Gobernuaren plangintza nagusia eta, zehazki, Garapen Jasangarrirako Estrategia 2020ra egokitzen den, ekonomia, gizarte eta ingurumeneko jasangarritasun-eraginen garrantzia eta kuantifikazioa, bere helburuak, jarduketa-ildoak eta ebaluazio-adierazleak aztertzeari dagokionez.
- Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-egiturara juridikoki eta eskumenei dagokienez egokitzen den, baita herritarrek eta interes-taldeek parte hartzeko mekanismoak ere.
- Plangintzaren oinarrizko alderdietan ikuspegi metodologikotik koherentzia teknikoa duen.

Koordinazio Zuzendaritzak Garapen Jasangarriko Bulegoaren laguntza eduki ahal izango du ekonomia, gizarte eta ingurumeneko jasangarritasun-eraginen garrantzia eta kuantifikazioa aztertzeko, ildo estrategikoak eta helburuak 2020rako EGJEn onartutakoetara egokitzen diren ikusteko eta, planean zehaztutako adierazleak eta aginte-koadroak eta 2020rako EGJE horretan finkatutakoak bat datozen egiaztatzeko.

Sail sustatzaileek, egindako txostenak ikusita, aldaketa egokiak egingo dituzte; halere, txostenen irizpideren bati kasu ez egiteko arrazoiak espresuki eta behar bezala arrazoitzen beharko dituzte. Justifikazio horiek planari buruzko txostenekin batera jasoko dira espedientean, Gobernu Kontseiluak dagokion akordioa har dezan planaren testua onartzeko aurkezten denean.

Indarreko araudiari jarraiki nahitaezkoa den beste edozein txosten ere jasoko da espedientean, txosten horiek egiteari kalte egin gabe, eta Gobernu Kontseiluak irizpena eman aurretik.

4. JASANGARRITASUN IKUSPEGIA ESPEZIFIKOKI TXERTATZEA. JASANGARRITASUNAREN GAINEKO ERAGINEN EX ANTE EBALUAZIOA

Euskadiko Garapen Jasangarrirako Estrategia 2020 onartzean, garapen jasangarriaren ikuspegia bere plan, programa eta estrategia guztietan txertatzeko konpromisoa hartzen du Gobernuak. Horrek, halere, ez dakar berez administrazio-baldintza gehigarriak eskatzea, egoerak, helburuak eta tresnak agertzeko eta aztertzeke beste ikuspegi bat da azken batean, proposatzen diren politiken eta jarduketan eragin sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak modu jasangarriago batez aztertuta.

Estrategiaren gidalerroek diote gobernu-sail eta -organismo bakoitzak aztertu behar duela neurrian jasangarritasuna. Edozelan ere, KINek eskatuta, aholkularitza eman diezaieke Garapen Jasangarriko Bulegoak gobernu-sailei eta -erakundeei azterketa hori egiteko garaian; hala, analisi hori gobernu-planak onartzeko egun indarrean dauden prozeduren barruan txertatzen da, eta horiekin sinergiak bilatzen ditu eta prozedurak gainjartzea saihesten du.

Ex ante ebaluazioko prozedurek ezaugarri hauek izaten dituzte:

- Planaren **bultzatzaileekin batera** garatu beharreko **prozesu errepikakorak** dira. **Ikaskuntza**-prozesutzat hartu behar da, zeinaren azken xedea baita ekimena hobetzea ekonomia, gizarte eta ingurumeneko garapenaren gaineko baterako eraginei dagokienez.
- Proiektuaren **kudeaketa-tresna** bat da, orientazio praktikoa eta eraginkorra duena. Ez da gainditu beharreko oztopo edo azterketa bat.
- Prozedura **malguak** dira, eta askatasun handia onartzen dute azterketarako metodoak eta irizpideak hartzeko (plan bakoitzaren berezitasunen arabera), baina, era berean, etapa eta oinarritzko irizpide komun batzuk jarraitu behar dituzte.
- Prozedura **osoak** dira, eta ikuspegi kuantitatiboak (sarritan zailak dira edozein *ekimen* diseinatzeke hasierako faseetan) eta kualitatiboak dituzte eragin eta aurreikusitako emaitza guztiak atzeman ahal izateko.
- Eta, azkenik, prozedura gardenak dira, plana egiteko prozesua dokumentatzeko eta hartutako erabakiak justifikatzeko balio baitute.

Eragin ekonomikoen, sozialen eta ingurumenekoaren ebaluazioa prozesu errepikakorra da, plana egiteko fase bakoitzean egiten baita²⁴. 3.1. atalean adierazi bezala, planaren oinarritzko informazioarekin batera haren eragin ekonomikoari, sozialari eta ingurumenekoari buruzko gogoeta bat (kualitatiboa eta subjektiboa, dena den) egin behar da, plana garatzeko ibilbide-orria finkatzeko baliagarri izan dakigun. Atal honen asmoa, berriz, gogoeta horretan sakontzea da; horretarako, planaren prestaketa-fasean (Oinarritzko ildo estrategiko eta ekonomikoei dagokie) zein garapen-fasean egingo dugu eraginaren balioztapena. Etengabeko prozesua da, atal bakarrean landuko dugu horregatik. Prozesu horrek hiru fase ditu:

- **Garrantzia aztertzeke** lehen fase bat, aurreikusitako eraginek hiru garapen-ardatzetan duten garrantzia balioztatzeko eta ondorengo analisiaren sakontasuna horren arabera zehazteke

²⁴ 1. irudian erabilitako terminologiari jarraiki, plana aurreikusteko, prestatzeko, egiteko eta jarraitzeko faseetan.

(metodoa eta prozedura). Lehen fase hori plana prestatzeko lanari dagokio, eta *Ildo estrategikoak eta ekonomikoak* dokumentuan zehatz-mehatz islatu behar da.

- **Eraginak neurtzeko** bigarren fase bat (gutxienez, kualitatiboa). Bertan, identifikatutako irizpide garrantzitsu guztiei helduko zaie; hala, eragina eta, eragindako kolektiboen (positiboki edo negatiboki) arteko banaketa gardentasunez azalduko dira, eta alderdi ekonomikoetan, sozialetan edo ingurumenekoetan duten eragin ezberdinagatik edo interes-taldeen artean dagoen banaketa desberdinagatik sor litezkeen gatazkei aurrea hartuko zaie. **Plana egiteko** garaian egin beharreko azterlanetako bat da, eta emaitzak eskuragarri egon behar dira herritarrekin eta interes-taldeekin **partaidetza- edo egiaztatze-jarduerak** egin arretik, horien berri izan eta iritzia eman dezaten.
- Amaierako fasean **ondorioak** aterako dira; horrenbestez, aurreikusitako eraginetan oinarriturik bere elementu batzuk zuzenduko dira (planak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena hobetzea) edo neurri osagarriak erantsiko dira hautemandako ondorio negatiboak *orekatzearren*. Ebaluazioaren ondorioei esker, osotara hartuta aukera egokiena hautatzea gardentasunez justifikatuko genuke, betiere ordezkotako neurrien eraginak aztertu badira. Fase horren bidez justifikatzen da garapen jasangarriko irizpideak txertatzea planaren diseinua hobetzeko tresna bat dela. Hortaz, lagungarri izango da interes-taldeen proposamenak errazago onartzeko.

Eranskinaren A.3ko *Ekonomia, gizarte eta ingurumeneko eraginen ebaluazioa* deritzon 3.3. paragrafoan metodologia operatiboa proposatzen da analisi hori erraz egiteko, hemen aurkeztutako edukia handituta.

Azkenik, 5. atalean jasangarriaren gaineko eraginen *ex post* jarraipena jasoko da, hala aurreikusita dauden gauzapeko bitarteko txostenetan, nola plana aplikatu ondorengo amaierako ebaluazioan.

4.1. Aurretiko azterketa: garrantziaren azterketa

Oinarritzko Informazio Fitxetan eraginen lehen identifikazio eta balorazio subjektiboa eskuratuko da, eta horren ondorioz, sail sustatzaileak Aurreikusitako eraginen lehen zerrenda bat edukiko du²⁵. Hortik abiatuta, eragin horien **garrantzia** aztertu behar da prestaketa-fasean, eta azterketa horretan oinarrituta erabaki behar da zer analisi egin behar den hurrengo fasean **eraginak neurtzeko** eta, era horretan, balioztatze eta erabakiak hartzeko oinarri sendoagoa edukitzeko. Logikoa denez, eraginak ez direla oso garrantzitsuak ondorioztatuz gero, prozesua amaituko litzateke, garrantzirik izango ez duten neurketak egin gabe.

Gobernu-planek askotan jarduketa kopuru handia jasotzen dutenez, eraginen azterketa horiek bereiziz egin behar da, eta neurri garrantzitsuetan edo eragin handienekoetan arreta jarritz.

Eragin-indizeetan oinarrituta modu erraz batean egin daiteke garrantziaren azterketa; era horretan, irizpide gehiago edo gutxiago erabiliko dira jasangarritasun-ardatz bakoitzeko²⁶, eta horietako bakoitzari

²⁵ Ariketa hori aurretiko fasean ez bada egin, proposatutako galdetegiak erabil daitezke balizko eraginen lehen zerrenda bat egiteko. Ikus eranskinaren A.2ko 3., 4. eta 5. laukiak. Baliteke lehen ariketa horrek ondorioztatzea ekimenak ez duela ia eraginik jasangarritasunean; horrenbestez, ez luke zentzurik izango eraginak kalkulatzeko metodologia jarraitzea berau egiteko ondorengo faseetan.

²⁶ Eranskinaren A.3ko 19. laukian eredu zehatz bat proposatzen da; bertan, ardatz bakoitzeko bost irizpideren, haztapen objektiboen eta eragin-adierazleen zerrenda labur bat dago +3tik -3ra arteko tartean, eta horri esker, modu errazean irits gaitzke batez besteko balio haztatuetara (azken hauek grafikoki irudika daitezke). Irizpide-zerrenda hori handitu daiteke (eranskinaren A.3ko 19. laukia) ekimen

garrantzi erlatiboa emango zaio. Era horretan lortzen den planaren *profilak* (ez amaierako balio absolutu bat) eragin positiboak eta negatiboak daudela agerian utziko du, eta hori kalkulu-orri baten bidez aurkez daiteke.

Alderdiak garrantzitsuagoak izanez gero, aurreikusitako eraginen neurketa gehiago doitu beharko da. Garrantziaren azterketa **metodo eta irismenaren proposamen** batekin bukatzen da. Neurketa egiteko garaian, metodo sinpleak erabil daitezke (kalkulu-orri bat, adibidez) edo oso azterlan zehatzak, informazioa biltzeko landa-lan handia eta azterketa-metodologia oso sofistikatua erabilia. Erabakia honako faktore hauen mende egongo da:

- ✓ Hautemandako eraginen garrantzia.
- ✓ Azterketaren irismena: kontua bada hainbat proposamenen artean hautatzea, zehatza izan beharko da, asmoa eragina ebaluatzea edo beren eraginetatik abiatuta planaren diseinu bera hobetzea bada bainoago.
- ✓ Hainbat interes-taldetan eragiten duten eraginen arteko desoreka.
- ✓ Erabilgarri dagoen informazio kopurua edo informazio gehigarria lortzearen kostua.

Azkenik, erabaki beharreko azken gauzak hauexek dira: nor eta nola egin behar duen analisi-prozesua, baliabide finantzarioak eta pertsonalak, eta garatzeko dagoen denbora.

- Gauzatzeko ardura duen sail bakoitzak erabaki dezake nola egin ebaluazio hori, eta, Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari eskatuz gero, Garapen Jasangarriko Bulegoaren aholkularitza eduki ahal izango du.
- Partaidetzako eta interes-taldeei kontsulta egiteko prozesua egiteak markatzen du azterlan horiek edukitzeko *une* egokia: Azterketa-prozesuan sortutako dokumentazioa abiapuntu bikaina da interesa duten alderdiei azalpenak emateko; izan ere, era horretan partaidetza askoz baliagarriagoa izango da, eta erabaki politikoan **gardentasunari** balio handiagoa emango zaio.

4.2. Eraginen neurketa²⁷ plana egiteko fasean

Itxaroten dugu planaren aplikazioak bi mailatan izatea eraginak, eta plana prestatzeko fasean zehaztu behar dira:

- Plana edo bere neurriak zuzenean aplikatu ondoren aurreikusitako emaitza zuzenak²⁸, emaitza-adierazletan zehaztuko direnak.
- Plana edo bere neurriak aplikatzearen ondorioz aurreikusitako eragin zuzenak, eta eragin nahi zen abiapuntuko egoera arazotsua edo defizitarioa aldatzen dutenak; eragin-adierazletan zehaztuko dira²⁹.

Jarduera horrek lan handia eskatzen du agian, baina ezinbestekoa da ondoren, adierazle horietan oinarriturik, bitarteko eta *ex post* ebaluazio-faseei ekiteko. Dokumentu honen harira balioespen sinpleak

bakoitzaren berezitasunetara gehiago egokitzen diren beste irizpide batzuk jasotzeko edo irizpide osagarriak sartzeko, baldin eta, jasangarritasuneko hiru bektoreen artean onar daitezkeen ordezkaritasun-mugak ukitzen direla baderitzogu.

²⁷ Etapa hori plana egiteko faseari dagokio.

²⁸ Hala nola, diru-laguntzak, jarduerak, eraikitako errepide-kilometroak, etab.

²⁹ Esate baterako, lehiakortasunaren hobekuntza, aire-kalitatearena, klima-aldaketa, etab.

egitea baino ez dago pentsatuta, eta horietarako kalkulu-orri bat tresna egokia da: Kontua da garrantzi-analisia osatzea, irizpide garrantzitsuenentzat adierazle kuantitatibo egokien kopuru mugatu bat kalkulatzuz³⁰. Garrantziaren analisiaren kasuan bezalaxe, adierazleen haztapena gai labaina baino beharrezkoa da irizpide bakoitzerako balio sintetikoa lortzeko.

Oro har, baliagarria izaten da emaitzak jasangarritasun-ardatzen arabera eranstea, eta horretarako banako emaitzak haztatzeko sistema batean berriro sartu behar dira. Ez dago arau unibertsalik, eta errezetarik onena haztatzeko sistemaren gardentasuna da, eta horrekin batera sentikortasun-analisi bat (eragin garrantzitsuak eta interes-gatazkak), erabilitako haztapenen arabera azken emaitzaren sendotasuna edo aldakortasuna agerian uzten duena³¹.

4.3. Azken ondorioak

Eraginen gaineko aurreikuspenak neurtzeak edo zehazteak plana hobetzea dakarten ondorioak ateratzeko balio behar du.

Ariketa hori ere baliagarria da jarraipen-azterlanak eta ondorengo ebaluazioak (bitarteko eta *ex post* ebaluazioak) zuzentzeko.

Azterlanak, funtsean, eragin garrantzitsuak eta gertatzea espero diren interes-gatazkak zein diren identifikatzea ahalbidetu behar du, eta ondorioz, jarduketak berriro diseinatzea: (i) eragin negatiboak murrizteko eta emaitza globala hobetzeko edo (ii) planaren barruan orekatze-neurriak proposatzeko. Arrazoi teknikoak edo ekonomikoak gorabehera eragin negatiboak saihesterik ez badago, argi eta garbi adierazi behar du hori analisiak. Azkenik, planaren diseinua bilatutako helburuak lortzeko egokia bada baina jasangarritasun-ardatzetako batekin gatazkan sartzen bada, sail sustatzaileak hausnartu beharko du horrekin jarraitzea zuhurra edo gomendagarria den.

Baztertutako bektorea hiruretako edozein izan daiteke: jasangarritasuna ez da bakarrik ez beti ingurumenaren eta garapen ekonomikoaren arteko gatazka bat: Ingurumeneko bektorearen garapen positibo batek era sozial (kostuen banaketa) edo ekonomikoko neurritz kanpoko kalteak ekar ditzake.

Baina ez dago formularik ebaluatzeko bektore batean lortutako irabaziek beste batean izandako galerak egoki konpentsatzen dituzten³². Ez dago hierarkia objektiborik irtenbide bat *modu objektibo batez* lortzeko: Azken batean erabakiak politikoak dira. Izan ere, prozeduraren onura handiena prozesuaren gardentasuna da: ez ditu gatazkak saihesten baina aukerak garbi eta garbi adierazten ditu, bata edo bestea zergatik hartzen den azalduta.

³⁰ Horrelakoetan, baliagarria da 2020rako EGJEko aginte-koadrora eta jarraipen-adierazleetara jotzea; eranskinaren A.4ko 1. eta 2. tauletan jasota daude. Halaber, irizpideen zerrendak (eranskinaren A.3ko 19. laukia) azterna egokiak ematen ditu, baita uneko ekimenarekin lotutako beste adierazle espezifikoko batzuk ere.

³¹ Sistema neketsuago batzuek eraginak termino ekonomikoetara itzultzea ahalbidetzen dute (bestelako hipotesi eta balio-judizio batzuetara jota, jakina).

³² Zenbaitetan, halere, ez dago onartzerik hiru dimentsio edo ikuspegien arteko eragin-**ordezkagarritasunik**: beste bi ikuspegiatiko hobeak konpentsatu ezin dituzten kalte onartezinak gertatzen badira, edo sozial edo legalki ezarritako gutxieneko mailak urratzen direlako. Horrelakoetan, hobe da beste irizpide osagarri batzuk erabiltzea kalteak atzeraztekin direla edo etorkizuneko belaunaldiei eragingo zaizkien karga argiak nabarmentzeko. Ikus eranskinetako A.3ko 21. laukia.

5. GOBERNU EKIMENEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

5.1 Eskema orokorra

Honako hauen bidez jarraitzen da Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegian jasotako gobernu-ekintzaren plangintza:

a) Jarraipeneko sei hilean behingo txostenak

Gobernu-sailek **sei hilean behin** igorri beharko diote azalpen-memoria bat Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegian ezarritako konpromisoen betetze-mailari eta gorabeherari buruz. KINek Gobernu Kontseiluari helaraziko dio ezagut dezan eta jendaurrean jakinaraz dezan.

b) Bitarteko ebaluazioak

Halaber, dagokion plana onartzeko Gobernu Kontseiluaren akordioan ezarritako aldizkakotasunez, sail sustatzaileak planak ebaluatzeko informazioa igorriko dio Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari alderdi hauen inguruan:

- Jarduketan jokabidea, kontuan hartutako xedeen egokitasuna zehazteko.
- Aplikatzen ari den kudeatzeko eta jarraipena egiteko sistemaren kalitatea.
- Lortu nahi diren xedeak lortzeko baliatzen ari diren moduak.
- Aurreikusitakoarekiko aldeak.
- Amaierako emaitzen aurretiko estimazioa.
- Planak ekonomiako, gizarteko eta ingurumeneko jasangarritasun-baldintzen gainean duen eraginean ikusitako ezberdintasunak *ex ante* ebaluazioekin alderatuta.

Garapen Jasangarriko urteko txostenaren ondorioak hartuko dira kontuan bitarteko ebaluazioan, betiere aztertutako esparru sozialarentzat egokiak badira; Garapen Jasangarriko Bulegoak egingo du urtero txosten hori. Urteko txosten horrek strategiako jarduketak zenbateraino ezarri diren ebaluatzeaz gain (*jardunbide egokitzat* jotakoak nabarmenduta), jasangarritasun-irizpideak sektorekako sailen politiketan noraino **txertatu** diren ere ebaluatzen du; halaber, balaztak edo oztopoak eta hobetzeko proposamenak ere aztertzen ditu.

c) *Ex post* ebaluazioa

Plana amaitzean ebaluazio bat egingo da, beraren bidez ezarritako politika publikoen irismena eta eragina ezagutzeko.

Ebaluazioak hauxe du misiotzat:

1. Arduradunei herri-administrazioen erabaki-hartzean, konfigurazioan eta kudeaketan informazio egokia ematea, garatutako politika publikoetan aldaketak sartzeko, aurretik zehaztutako xedeak lortzeko eta,
2. Garatutako lanean botere publikoek hartutako konpromisoen eta sortutako asmoen betearazpen-mailaren gaineko erabakia eta ezagutza ekonomia- eta gizarte-eragileen eta, oro har, herritarren eskura jartzea.

Garatzen den *ex post* ebaluazioaren ikuspegi horrekin batera honako honi buruzko iritzia ere jasoko da:

- Garatutako esku-hartzearen arrakasta edo porrota.
- Asmatzeak, erroreak eta gabeziak diseinatutako estrategian.
- Beti aldatzen ari den errealitate batera egokitzeko ahalmena eta malgutasun maila.
- Eraginkortasuna eta efikazia.
- Aplikatutako kudeaketa- eta jarraipen-mekanismoen egokitzapena.
- Lortutako emaitzak eta eraginak, hasieran aurreikusi ez diren ondorioak nabarmenduta.
- Planak ekonomiako, gizarteko eta ingurumeneko jasangarritasun-baldintzen gainean duen eragina³³.
- Hurrengo esku-hartze baterako garatu beharreko ildo estrategikoak eta ekonomikoak aurreratuko dira.
- Beharrezko zuzenketak jasotzen dituen proposamen bat, horiei ondorengo plan batean heltzeko.

Bitarteko ebaluazioan bezalaxe, *ex post* ebaluazioetan **Garapen Jasangarriko urteko txostenaren** ondorioak ere hartuko dira kontuan, honako hauei buruz: estrategian jasotako gobernu-planaren esparruko jarduketan aurrerapen mailari buruz, dagokion sailaren politiketan jasangarritasun-irizpideek duten **txertatze** mailari buruz, eta zehaztutako balaztei, oztopoei eta hobetzeko proposamenei buruz.

Ebaluazio-dokumentua plana bukatu ondoko ekitaldian zehar igorri beharko zaio Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari. Planaren ostean beste denbora-aldi baterako beste bat badago izan ezik.

Gobernu-plan guztien *ex post* ebaluazioaren dokumentua Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, Koordinazio Zuzendaritzak txostena eman ostean, jakin dezan eta Legebiltzarrera bidal dezan.

5.2 Ebaluazioa ezartzea Gobernuaren plangintzan

5.2.1 Ebaluagarritasun-baldintzak

Esperientziak erakusten du sarritan ebaluazioa ez dela bidezkoa, baldin eta ebaluagarritasun-baldintza batzuk betetzen ez badira; hori dela eta, ebaluazioa egiten hasi aurretik, honakoak bermatu behar dira:

- Ebaluatuko den esku-hartzearen **asmoa argi uztea**. Argi dago diagnostikoaren kalitatea, xedeen definizio egokia eta esku-hartzeko strategiaren koherentzia ebaluagarritasuna baldintzatzen duten alderdiak direla; alegia, esku-hartzearen diseinuaren, programazioaren eta plangintzaren kalitateari dagokion guztia.

³³ Beren garaian neurri nagusiei buruzko garrantzi-ebaluazioak eta ekonomiako, gizarteko eta ingurumeneko eraginaren ebaluazioak egin ez zituzten planen kasuan (2020rako EGJE 2020 lehenagokoak direlako), horrelakoak *ex post* ebaluazio honekin batera egin beharko dituzte plana egiteko prozesurako aurreikusitako eraginak neurtzeko prozedurari berari jarraiki.

- **Nahiko adierazle neurgarri.** Adierazleak proposatutako xedeekin eta horien definizioarekin, kuantifikatzeko eta neurtzeko moduan, egokiro lotuta badaude, ebaluatzeko oinarritzko baldintza betetzen da.
- **Ebalua daitezkeen eta fidagarriak diren informazio-iturriak.** Informazio- eta jarraipen-sistemaren kalitateak ebaluazio-prozesuan lortutako emaitzen kalitatea baldintzatuko du.
- **Ebaluazio-prozesu inpartzialaz eragotzitako faktorerik ez egotea.** Esku-hartzearekin lotura duten langileen inplikazioa eta politika eta erakundeen testuinguruaren elementu eragileak erabakigarriak dira.
- Ebaluatzaile bat, **ebaluazio-metodo eta -teknika egokiak** erabilita, erabakitako denboran, eta dauden murriztapenekin bat datorren kostuaz, ebaluazioaren gaineko galderei erantzuteko gai izateko bideragarritasuna aztertzea, ondorio erabilgarriak lortzeko aukera handiaz. Ebaluaziorako aurreikusitako baliabideek egokiak eta nahikoak izan behar dute.
- Kontuan hartzea **ebaluazioak emandako informazioa erabilia izateko aukera dagoela.** Ez da gutxietsi behar ebaluazioaren emaitzak erabili, eragin eta komunikatzeko aukera.

Koordinazioko Idazkaritza Nagusiak, nahasitako sailekin elkarlanean, hainbat mekanismo eta prozesu ezartzea sustatuko du herritarrek eta interes-taldeek sortutako plangintzaren ebaluazioa eskura izan dezaten. Xede horretan, lehendik dauden informazio- eta komunikazio-tresnak erabiltzea lehenetsiko da, baita era daitezkeen elkarlanezko guneak ere.

Gauzak horrela, ebaluatzeko prozesu osorako Eusko Jaurlaritzaren politika publikoak ebaluatzeko gida jarri da antolaketa osoaren esku; hemen dago: http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48coorcont/es/contenidos/noticia/coordinacion/es_evaluaci/evaluacion.html <http://jakina/o53VisualizadorWar/o53vispagina.jsp?cod=24985&lenguaje=1&por=1>


5.2.2 Ikuspegia eta printzipio zuzentzaileak

Ebaluazioa, plangintza-prozesuan, ondorio zuzena eta beharra da, bai prozesu planifikatzailearen hasierako ikuskera, bai horren emaitzak ezagutzeko beharra eta hartutako neurriak zuzentzeko edo berriro bideratzeko aukera hartzen dituen prozesu zabaltzat (etengabea) jotzen den plangintzaren ikuskera hartzetik eratorritakoa.

Ebaluazio-metodoa ezartzea zeregin konplexua da; izan ere, kasu bakoitzeko baldintza bereziek zerikusia dute, besteak beste: planifikatu beharreko materialak, denboraren mugaketak, erabilgarri jarritako baliabideak eta apustu estrategikoaren garrantziak.

Hala ere, ebaluazio estrategikoaren hurbilketa integrala egiteko aukera ematen duen oinarritzko eskema planteatu daiteke, agerikoa dela esan ahal bada ere, ikusteak prozesu planifikatzailean bat etortzea eragin dezake.

2. irudia. Ebaluazioaren hurbilketa integrala



Iturria: Plante (1991), Osuna eta Márquezek aipatuta (2000). Política publikoak ebaluatzeko gida. IDR. Sevilla

Eskema horren gainean, nahiz eta dagokion planaren prozesuan eta garapenean berehalakoan gertatutako emaitza eta gainerako baldintzei aplikatuta, honakoak berregingo lirateke: Gobernu Onean aurrera egiteko Europako Gobernantzaren Liburu Zurian proposatutako printzipioei buruzko gaiak.

Hori horrela, aurreikusitako ebaluazio-prozesuek printzipio horiek aurreikusi beharko dituzte, ebaluazioari dagokion *ex post* ikuspegiari jarraiki, oinarritzko beste ikuspegi batzuk ere sartzeko aukera egonik, proposatutako eta heldutako ebaluazioaren balioa berrindartuko duen ikuspegi osoa prestatzeko:

- **Eragina**, planaren eragin globala balioztatuz haren helburuak eta ekonomiako, gizarteko eta ingurumeneko jasangarritasun-baldintzak, nahi eta nahi ez diren ondorioak aintzat hartuta.
- **Gogobetetasuna**, esku-hartzearekin inplikaturik dauden eragileen gogobetetasun-maila baloraturik (organo politiko arduradunak, kudeatzaileak, subjektu onuradunak, tartean dauden bestelako erakundeak).
- **Efikazia**, lortutako emaitzak baloraturik, ezarritako xede estrategikoen gainean.
- **Eraginkortasuna**, denboraren eta aurrekontuen aldetiko baliabideak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak nahikoa izan diren eta horiek egindako aurreikuspenetara egokituta egon ote diren baloraturik.
- **Egokitasuna**, xedek errealistak, lorgarriak eta neurgarriak izan diren baloraturik, erabilgarri zeuden eta eraginkortasunez erabilitako baliabideen arabera.
- **Koherentzia**, esku-hartzearen diseinua xedek lortzeko egokia izan den eta eremu bereko edo hurbileko beste eremu batzuetako beste esku-hartze batzuek osatu duten edo beste batzuk osatzen dituen baloraturik.
- **Estaldura**, xede diren herritarrengana heltzeko erabili diren mekanismoak egokiak izan diren eta horiek azkenean hartu diren beste kolektibo batzuetara desbideratu edo zabaldu diren baloraturik.
- **Iraunkortasuna**, egondako ondorio eta aldaketak denboran mantentzeko beharra eta bideragarritasuna baloraturik eta politikak berriro formulatu behar diren edo gelditu behar diren baloraturik.
- **Irekitasuna**, komunikazio efikazagoaz eta jendearentzat oro har hizkera ulergarriagoaz, funtzionamendu irekiagoa lortu ote den baloraturik.
- **Parte-hartzea**, tartean dauden eragileen inplikazio erreala, jarraipena izan duen prozesuaren onarpena eta erabaki-hartzeetan egindako ekarpenen eta lortutako emaitzen eragina baloraturik.
- **Erantzukizuna**, kontuak eskatzeko eta azalpenak exijitzeko ezarritako mekanismoen funtzionamendua baloraturik.

5.2.3 Ebaluazioaren kudeaketa Faseak

Ebaluazioak, plan baten kudeaketa-esparruan, honakoa inplikatzeko du: ebaluatzen den planaren ondorioak atera arte erabat atzeratu ezin diren eta planaren beraren bilakaerara eta ezarpenera egokitu behar diren prestatze, abiarazte eta amaieraren hiru faseei paraleloan ekitea:

- **Ebaluazioaren prestatze-aldia**

Ebaluazio-prozesuaren garapenera ekin aurretik, argiro ezarri behar dira ebaluazioaren xedea, sustatzen duten motibazio edo zioak eta aurreikusitako xede eta emaitzak. Honako galdera hauei erantzun behar zaie: Zergatik ebaluatu? Zer ebaluatu? Zertarako ebaluatu? Nola ebaluatu?...

Baldintza horiek zehaztuz gero, gero lan-plana egokitu ahalko da eta ebaluazio-prozesua zehazteko erreferente batzuk izan ahalko dira. Alderdi hau ezin da prestatze-prozesutik bereizi, ebaluazio-prozesuaren jatorria eta garrantzia gorabehera, baldin eta herritarren bizitza-kalitatea hobetzeko azken xedeari dagokionez duen izaera instrumentala alde batean uzten duen xede izatea eragiten badu. Nolanahi ere, ebaluazio-prozesuak lortzen duen kostu-onura baloratu eta orekatu egin behar da, bai eta prozesu honi emandako baliabideekin neurri zehatzak hartzeari uko egiten zaiola ere.

Ebaluazio zehatz bat abiaraz ote daitekeen jakiteko egindako balorazioan (beharrezko baliabideen erabilgarritasunaren, tarteko eragileen onarpen-mailaren eta lankidetzaren, erabilgarri dagoen denboraren, eta abarren gaineko zehaztapenari dagokionez), gomendagarria da abiarazi nahi den ebaluazio-mota, aurreikusitako bilketarako eta azterketarako teknikak eta aurrekontuaren eta ebaluazio-epeneen estimazioa identifikatzea. Alegia, nola egingo den ebaluazio-prozesua, izan ere, informazio hori gabe, ezin zaio honako galdera honi erantzun: «*ebalua daiteke?*».

Ebaluazioaren bideragarritasunari buruzko aurretiko gai horien gaineko hausnarketa egitean kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da ebaluazio-kostuari buruzkoa. Baldintza horren balorazioa garrantzi handikoa da, ebaluazio-prozesua benetan erabilgarria den berresteko. Alderdi horren gaineko hausnarketan, batik bat, erronka gisa jarri behar da ebaluatuko den planak edo jarduketak erabilitako izaeraren, dimentsioaren eta baliabideen eta ebaluazio horren kostuaren beraren arteko oreka egokia ezartzea.

Orekak dakar ebaluazio-egitekoaren dimentsioa Planaren edo jarduketaren ondorioarekin eta garrantziarekin bat etortzea; horretarako, beste behin ere, ebaluazio-prozesuari aplikatutako eskalako ekonomiaren ikuspegiak aukera eman dezake prozesu bakar batean zenbait jarduera edo planetan aplikatu daitezkeen informazioak lortzeko eta informazio bera zenbait ebaluazio-prozesutan berrerabiltzeko. Aukera honek –aurretik erabakia–, ebaluazio-prozesuari emandako baliabideak optimizatzeko bidez gainera, aukera eman dezake koherentziaren aldetik hobetzeko, eremuetan erabilitako datuei dagokienez.

- **Ebaluazioaren plangintza eta abiaraztea**

Hautatutako esku-hartzearen ebaluazioa egiteko egokitasunaren kontua gaindituta, honakoa galdetu beharko diogu geure buruari: «nork ebaluatzen du?». Horretarako, prozesua bideratuko duten baldintza teknikoak bereizi eta prestatu beharko dira; horien bidez, ekipo ebaluatzailea hautatuko da (egiteko hau bere gain hartuko duen organizazioaren kideak identifikatuta eta, hala badagokio, besteren bitartekoen bidez bete beharreko kanpo-beharrak ere bai).

Ebaluazio-prozesua bera abian jarri aurretik, beharrezkotzat jotzen da mekanismoak ezartzea, bai eta ebaluazio-prozesua komunikatzeko eta zabaltzeko beharrezko bitartekoak ezartzea ere; horrela, eragile parte-hartzaileen eta inplikatuaren multzoak horien berri izango du, bai eta hasieraren eta helburuen berri ere, lankidetzaz aktiboagoa eduki ahal izateko zabaltzen ari denean.

Horrenbestez, komunikatzeko eta zabaltzeko estrategia behar da, barne- eta kanpo-mailan arina izango dena eta, ibilbidea hasten denetik, parte-hartze aktiboa sustatuko duena, egin nahi den ebaluazioan «gako» identifikatutako eragileen aldetik.

Komunikatzeko estrategia hau ebaluazio-prozesuan mantentzen da, eta, ebaluazioaren ondorioak eta gomendioak eman ondoren, horiek zabaldu eta komunikatu behar diren unera arte heltzen da, prozesuaren erabilera baloratzeko eta, gero, ebaluatutako esku-hartzearen gaineko hausnarketa eta erabaki-hartzeak egiteko.

- **Ebaluazio-prozesuaren amaiera**

«Zer egin behar da ebaluazioaren gomendioak sartzeko?» galdera, ebaluazio-prozesuaren amaierako fasean sortzen den kontua bada ere, ebaluazioari emandako ikuspegi prospektibotik eta estrategikotik, garrantzitsua da, egindako prozesuari erabilera praktikoa eta nabaria emateko. Galdera horri erantzuna eman eta, gero, hobekuntza-programa prestatu eta zabaltzeko eta aplikatzeko beharrezko mekanismoak eta tresnak ezarriko dira. Une honetan emango zaio hasiera plangintza estrategikoko beste prozesu bati.

Eranskinaren A.5 paragrafoan **Ebaluazioaren Laburpen Exekutiboa** fitxaren eredu bat jasota dago, egindako ebaluazioa dokumentatzeko erabil daitekeena.

ERANSKINA

JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK TXERTATZEKO ESKULIBURUA

SARRERA: Prozesuaren ikuspegi orokorra

Eranskin honetan jasangarritasun-irizpideak gobernu-planetan txertatzeko jarraibide eta laguntza-elementu praktikoak daude, *Sailek gobernu-planak egiteko orientabideak* dokumentuan egindako planteamendura egokituta. Hala ere, berdin ere ezar daitezke maila horretakoak ez diren administrazioaren beste plan edo proiektu batzuetan. *Orientabideak* dokumentuak bezalaxe, soiltasuna izan da nagusi irizpideak sartzeko orduan; hortaz, ebaluazio subjektiboak lehenetsi dira kalkulu sofistikatuko prozeduren gainetik. Horrela da bi arrazoiengatik: (i) Batetik, metodo sofistikuak egokiagoak direlako proiektuei aplikatzeko (inbertsioak...) gobernu-planek duten kontzeptualizazio mailako dokumentuei baino; (ii) eta bestetik, arauak izapidetzeko prozesuetan neurritz kanpoko kostuak ez sartzeko.

Dokumentua planak egiteko prozesuaren lau mugarriren arabera dago antolaturik:

- Gobernu-planen egutegiaren plangintza
- Aurrerapen-dokumentua (*Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak*)
- Plan dokumentua egitea bera
- Planaren *ex post* jarraipena eta ebaluazioa

Jasangarritasun-irizpideen txertaketak planaren dokumentuak bezala egiten du aurrera:

- Plana noiz gauzatu behar den adierazten da.
- Planaren oinarrizko ildoak noiz zehaztu azaletik adierazten da.
- Plana egiteko eta egiaztatzeke prozesuan ondorioak garatu eta baloratzen dira.
- Jarraipena egiten da, eta emaitzak ebaluatzen dira plana ezarri ahala (bitarteko eta amaierako ebaluazioak).

Lehenengo hiru mugarrietan *ex ante* ebaluazio bat da aurreikusitako ondorioen gainean. Azkenekoan *ex post* ebaluazio bat da eragindako ondorioen gainean. Lehenengo hiruretan, ebaluazioaren xedea da ahalik eta araurik onena diseinatzea. Azkenekoaren bidez, berriz, bere ondorioen ebaluazio orokor baten barruan, asmoa da ikasitakoa zehaztea plana berriro egin beharko balitz ere.

Jasangarritasun-irizpideak

Irisgarritasun-irizpideek eragin ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak aztertzen dituzte, baita planak nola egin behar diren ere, eta zehazki:

- Herri-administrazioen organoek nola parte hartzen duten eta nola koordinatzen diren diseinu-prozesuan, partekatzen dituzten eskumenen arabera edo planak haien eskumen-esparruan zer eragin duen.
- Interes-taldeen, hau da, planak eragindako eragile sozioekonomikoen edo gizarte orokorraren iritzia nola hartzen duten kontuan, edo nola bideratzen den horien partaidetza elaborazioan, adierazitako helburuak hobeto lortzeko egokitzeko helburuz eta, eragindako kolektiboren batean izan ditzakeen ondorio edo eragin negatiboak egokiago baloratzeko.

Horregatik, jasangarritasun-irizpideak zein diren berrikusten da A.1 paragrafoan, Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia 2020an jasotako planteamenduetara jota.

Gobernu-planen egutegiaren plangintza

A.2 paragrafoan, berriz, lan-fitxa bat proposatzen da (2. laukia) gobernu-planen egutegia egiteko prozesuaren barruan bildu beharreko oinarrizko informazioa laburbiltzeko. Fitxa horren barruan hainbat galdera daude planak egiteko prozesuaren alderdi garrantzitsuak identifikatzen laguntzeko; horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: artatu nahi den arazoa edo gaia identifikatzea, erakundeen arteko lankidetzaren eta gizarte-eragileen partaidetzaren aurreikuspena eta, planak izan ditzakeen eragin ekonomikoen, sozialen eta ingurumenekoen lehen estimazioa.

Hiru galdera-zerrenda ere jasotzen dira ekonomiako, ingurumeneko eta gizarteko eragin horiek identifikatzen laguntzeko (A.2 paragrafoaren 3. eta hurrengo laukiak); helburua balizko eragin gaineke gogoeta erraztea da. Plan motaren arabera, galderetako asko ezin izango dira aplikatu.

Ardura duen taldeak, une horretan, lehen ondorioak atera beharko ditu plana konplexua den, beste sail eta herri-administrazio batzuekin elkarlanean aritzeko mekanismoak komeni diren, interes-taldeak zein diren, eta parte hartzeko zer tresna erabili beharko lirartekeen.

Fitxa horren bidez lehen elkarrizketa bat has daiteke Koordinaziorako Idazkari Nagusiarekin; horren arabera plana gobernu-planen egutegian sartzea edo ez erabakiko da.

Aurrerapen-dokumentua: Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak.

A.3 paragrafoan, planaren aurrerapen-dokumentuaren gidioa jasotzen da (Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak), eta bertan jasangarritasun-irizpideak txertatzeko jarraibideak eta gomendioak ematen dira. Asmoa Oinarrizko Fitxan zehaztutako edukiak hedatzea da. Orduan bezala, aurreikuspenak hiru esparrutan zehaztuko dira:

- Eragin ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa
- Beste sail eta administrazio publikoekin koordinatzeko tresnak
- Interes-taldeak eta gizarteak, oro har, parte hartzeko instantziak

Plangintza-fasean egindako aurretiko balorazioa nolakoa, horrelako sakona izango da analisisia.

Fase honetan planak izango dituen strategiako edo ekintzako ildo nagusiak aurreratzen dira; horrenbestez, hausnartu behar dugu prozedura gisa komeni den aldi berean hainbat aukera lantzea, eta,

lantalde sustatzaileak, horien merezimendu erlatiboen arabera eta interes-taldeen iritzien arabera, aukera onena edo nahiago duena hartuko du.

Horregatik, dokumentuaren fitxetan hainbat jarraibide aztertzeke aukera aipatzen da. Hori oso kontu garrantzitsua da jasangarritasunaren ikuspegitik. Izan ere, hainbat aukera kontuan hartzen badira baino ez ditu *ex ante* ebaluazio-prozesuak emaitza guztiak eskaintzen; izan ere, hainbat aukera baloratzea, alde onak eta txarrak zehaztea, eta onena aukeratzea ahalbidetzen du, eta, horrela, argi eta garbi geratzen dira aukera hori eta ez beste bat hautatzeko arrazoiak. Horrek planaren prestaketa-lana zailagoa izatea dakar, jakina. Nolanahi ere, ez da beti gomendagarria izaten, lehen planteamenduan eragin garrantzitsuak, aurrez aurreko jarrerak edo interes-taldeen, gizarte-taldeen edo lurraldeen artean bidezkoa ez den onuren eta kargen banaketa dagoela edo egon daitekeela agerian geratzen denean baino ez.

Paragrafo berean aurrerapen-dokumentuaren bi puntu zehaztasun handiagoz lantzen dira.

- a) Planaren **helburuak**: Sail sustatzaileak planaren helburu espezifikoak 2020rako EGJEn helburuetara ongi egokitzen diren zehaztu behar du; hau da, jasangarritasunaren helburu orokorra nola laguntzen duten. Erantzuna errazteko asmoz, dokumentuan (A.3ko 3.2 paragrafoa) hainbat galdera jarri ditugu gidari modura bederatzi helburuentzat (6. eta hurrengo laukiak) eta *zeharkako lau ikuspegi*entzat (15 eta hurrengo laukiak).
- b) Ekonomiako, gizarteko eta ingurumeneko eraginak: Aztertu beharreko ekimenen tipologia dela eta, metodo erraz bat proposatzen da 3.3 paragrafoan; hala, hiru eragin motak **irizpide** gutxi batzuen arabera ebaluatuko lirake, horietako bakoitzaren gainean aurreikusitako eragina **garrantziko** parametro *subjektibo* batekin kuantifikatuz (-3tik +3ra, adibidez), eta ardatzeko batez besteko eragina irizpideari egotzen zaion garrantziaren arabera kalkulaturik. Itxuraz subjektiboa bada ere, metodoa zorrozki eta sistematikoki gauzatuz gero, eraginaren aurreikuspena xehe-xehe ikusiko genuke, hainbat aukeraren arteko erabakia justifikatu ahal izango genuke, eta ondorengo *ex post* ebaluazio bat egin ahal izango genuke, eta kostu handirik gabe, gainera.

Irizpide-zerrenda oso luzea eta aldakorra izan daiteke, zer ekimen mota jasotzen diren. Dokumentu honetan ardatz bakoitzeko bost irizpidetako zerrenda *labur* bat jaso dugu (A.3ko 19. laukia), baina erraz irudika ditzakegu zerrenda luzeagoak. Metodo horri esker, hiru ardatz horietako bakoitzean aurreikusten den batez besteko balioa kalkulatu orri batean antola daiteke, eta grafiko batera eraman³⁴.

Horren emaitzari esker, lantalde sustatzaileak hauxe ondoriozta dezake: eragin garrantzitsuak (eta zer motakoak) dauden eta, horrenbestez, analisi sakonago bati ekitea komeni den; berau planaren hurrengo fase batean egingo litzateke, eraginaren azterketa espezifiko batekin batera. Halaber, planak Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia 2020ren helburuei zer ekarpen egiten dien zehazteko ere baliagarria da.

Ildo estrategikoen dokumentua eta jasangarritasunari buruzko alderdiak egiteko orduan, Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiaren aholkularitza eskura daiteke; azken hau, bere aldetik, Garapen Jasangarriko Bulegoan oinarrituko da honako hauek adosteko: plana 2020rako EGJEn egoki integratzeko jarraibide komunak; bere helburuen ekarpena; koordinatu eta hitzartzeko aurreikusitako tresnak, eta eraginaren gaineko beharrezko azterlan gehigarriak (hala badagokio).

³⁴ Suitzako ARE Espazioaren Garapenerako Bulego Federalarentzat egindako Excell orri bat eskuragarri dago.

Planaren dokumentuaren hedapena

Jasangarritasun-irizpideak sartzeko orduan aurrerapen-dokumentuan adostutakoa baino ez da gauzatu behar, plana egiteko fasean: koordinazio-bideak, parte hartzeko tresnak, eta jasangarritasun-kontsiderazioak zehatz-mehatz islatzea helburuetan eta jarduketa-ildoetan.

Eraginak ebaluatzeko azterlana izango da bereizgarria aurreko fasean horrela erabakitako kasuetan. Azterlan hori gizarte-eragileekin parte hartzeko instantzietan emandako input bat izan beharko litzateke, eta aukeren artean hautatzeko oinarri gisa balio behar izango luke horrela erabaki den kasuetan.

Eskuliburuan irizpideetan oinarrituriko ariketa *errepikatzea* planteatzen du. Oraingoan, baina, irizpide garrantzitsuak bakarrik aztertuko dira, eta eraginaren esleipena ez da modu subjektibo edo aprioristiko batez egingo, kasuari aplikatutako azterlanetan oinarriturik baizik; nolana ere, ez da horrelakorik egingo eragin-azterketa sofistikatuagoak behar dituzten kasu konplexuetan. Kalkulu-orriaren metodoak azpirizpideak aplikatzea ere ahalbidetzen du (dagozkien haztapenak barne) irizpide bakoitzaren gaineko eragina eskuratzeko.

Azkenik, planaren adierazle-taulak helburuen eta eraginaren arabera egokiak diren adierazleak ere hartu beharko ditu kontuan. Eskuliburuan 2020rako EGJ Eren aginte-koadroa (A.4ko 1. taula) eta bederatzi helburu estrategikoak jarraitzeko adierazleak (A.4ko 2. taula) jasota daude.

Ex post ebaluazioa

Azkenik, ekimenak jarraitzeko eta ebaluatzeko txostenetan (bitartekoa eta amaierakoa) jasangarritasun-irizpideak nola jaso behar diren azaltzen da dokumentuan. Ebaluazioa aurreikusitako eragin ekonomikoak, soziala eta ingurumenekoak *ex post* jarraitzera mugatzen da, baita aurreikuspenekiko balizko desbideratzeen kausak ere. Ebaluazio-txostenei ere zaizkie aplikagarri jasangarritasun-irizpideak; hortaz, interes-taldeen iritzia hartu beharko da kontuan horrelakoak egiteko orduan.

A.1. JASANGARRITASUN PRINTZPIOAK

Garapen jasangarria ez da sektorekako politikatzat hartu behar, baizik eta sektorekako politika guztietan txertatu behar den kontzeptutzat, administrazioaren funtzioaren nahitaezko printzipio gidarizat. Beraz, garapen jasangarria hasieratik txertatu behar da plangintzan eta Eusko Jaurlaritzaren, tokiko administrazioaren eta haren erakundeen kudeaketan dauden prozesuetan.

Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia 2020an printzipio hauek jaso dira (ikus 1. laukia):

- P.1. Belaunaldi barruko eta arteko erantzukizun printzipioa. Horrela, kargak ez zaizkie beste talde edo belaunaldi batzuei transferituko, ebidentzia zientifikorik ez dagoen kasuetan zuhurtasun-irizpideari jarraiki.
- P.2. Sailen eta sektorekako politika esparruen artean koherentzia-printzipioa eta koordinazioa (gardentasuna eta partaidetza, hasierako faseetatik), garapen jasangarriaren ikuspegia politika guztien muinean sartzeko.

P.3. Oreka- eta gardentasun-printzipioa politika bakoitzak ikuspegi hirukoitzean (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) dituen ondorioak aintzat hartzean; horrek hauxe dakar:

- Ingurumen-mugen barruan egotea.
- Ekonomia jasangarri baten garapenean laguntzea.
- Gizarte bidezkoago baten eraketan aurrera egitea.

P.4. Erantzukidetasun-printzipioa, administrazio publikoaren hainbat mailen artean elkartzea bultzatuz garapen jasangarria garatzeko gizarte eragileekin eta herritarrekin oro har (governantza ona).

Sailen politikak planteatzean adierazitako printzipioak eraginkortasunez txertatzeko orduan **hiru osagai hauek** landu behar dira:

- a) Planaren aurreikusitako eraginen ebaluazioa jasangarritasun ekonomikoan, sozialean eta ingurumenekoan.
- b) Euskal administrazioiko eta beste herri-administrazio batzuetako beste organo batzuekiko erlazioa eta lankidetzeta.
- c) Gizarte-eragileen, interes-taldeen eta, oro har, herritarren parte-hartzea.

Tratamendu hori planak egiteko eta ebaluatzeko ezarritako mugarrietan islatu beharko da:

- ✓ Planaren oinarritzko informazio-fitxetan
- ✓ Oinarritzko ildo estrategiko eta ekonomikoen dokumentuan
- ✓ Planaren dokumentuan
- ✓ Planaren bitarteko eta amaierako (*ex post*) ebaluazio-dokumentuetan

Hurrengo paragrafoetan jarraibide operatiboak ezarri dira erreferentzia-gida modura, aipatutako dokumentu bakoitzean jasangarritasun-irizpideen tratamendua errazago garatu eta baloratu ahal izateko.

1. laukia. Jasangarritasun-printzipioak

Garapen jasangarriak zerikusi handia du **politikak diseinatzeko** edo ekintzak ebaluatzeko **beste modu batekin**. Politikak diseinatzeko modu desberdin horrek inplikazioei buruzko azterketa zabalagoa eskatzen du, bai denborari, bai espazioari dagokienez:

- Denboran zehar dituen ondorioei begiratu behar zaie, etorkizuneko belaunaldietan ere izan baitezakete eragina.
- Zuzeneko eraginez haratago dituzten inplikazioak aztertu behar dira, beste arlo batzuk ere barne hartuz (ekonomikoak, baliabideak, gizarte-taldeak), ez dagokion politikaren berariazkoak bakarrik.

Hortaz, azterketaren denbora luzetara zabaldu behar da, eta espazioa eta **interes-taldeak** zeharka.

Praktikan, jasangarritasuna azterzea ez da hain erraza, ez eta begi-bistakoa ere. Askotan, azterketaren ardatz batean irabaziak daude, baina beste batzuetan galerak. **Konponbideak, prozedura moduan**, eragin moten azterketa sakona egitea eskatzen du, eta horrez gain, gardentasuna behar da ebaluazio prozesuetan. **Bestalde, interes-taldeen parte hartu behar dute, irtenbide orekatuak aurkitzeko.**

Prozesu hori zuzentzeko oinarritzko lau printzipio hauek ezarri behar dira:

- 1. Belaunaldi arteko erantzukizuna** (etorkizuneko belaunaldien aurrean erantzukizunak hartzea).
- Garapen jasangarriaren ikuspegia politika guztien muinean sartzea, **sailen** eta politika sektorialen esparruen arteko **koherentzia eta koordinazioa hobetzeko**.
Esku hartzen duten organismoen arteko konponbideen azterketa gurutzatua oso fase goiztiarretatik erantsi behar da, horretarako eragin ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa gardentasunez, modu parte-hartuan eta erlazionatuan ebaluatu diren proposamenetan oinarriturik.
Erabaki prozesuen gardentasuna eta haien eraginpeko **interes-taldeen parte hartzea** oso garrantzitsuak dira, sor daitezkeen interes gatazkak konpentsatzen direla bermatzeko. Horrela, erabakiek garapen jasangarriaren ikuspegiari dagokion garrantzia ematen lagunduko da.
- Politika bakoitzak ekonomia, gizarte eta ingurumen dimentsioetan dituen ondorioak modu orekatuan hartzea, hiru ardatzetan aurrerapen orekatua bermatzeko.
Gardentasun-printzipio zorrotz bat aplikatzeak bakarrik bermatzen du erabakiak eztabaida zintzo eta ireki baten ondoren hartzea, alternatibak zorrotz aztertuta, eta herritarrek, eragile nagusiek nahiz gizarte erakundeek erraz ulertu ahal izatea.
- Herri-administrazioaren maila guztien arteko **erantzukidetasuna**, gizarte-eragileekin eta herritarrekin oro har. Enpresa eta korporazio pribatuak ere inplikatu behar dute, **gizarte-erantzukizun korporatiboaren** printzipioetan oinarriturik. Politiken jasangarritasunak, beraz, batetik, (i) administrazioaren mailen arteko lankidetzak eskatzen du, eta, bestetik, (ii) interes-taldeen eta herritarrek, oro har, laguntzea.

Iturria: *EGJE 2020, 2011, 4. kapitulua.*

A.2. JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK OINARRIZKO INFORMAZIOAN

Oinarrizko informazio-fitxek plana egiteko prozesua zuzendu behar duen ibilbide-orria finkatzen dute. Fase goiztiar honetan erantzun behar zaie plan bat egiteko hiru alderdi garrantzitsuri:

- a) Planaren aurreikusitako eraginen ikuspegia jasangarritasun ekonomikoan, sozialean eta ingurumenekoan.
- b) Euskal administrazioko eta beste herri-administrazio batzuetako beste organo batzuekiko erlazioa eta lankidetzak.
- c) Gizarte-eragileen, interes-taldeen eta, oro har, herritarren parte-hartzea.

Fitxetatik abiatuta plana hedatu egiten da; bere hurrengo mugarrira *Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak* dokumentua izango da.

Dokumentu honetan aurkeztutako laguntza-tresna guztietan zeharka erantsi dugu *Osasuna politika guztietan* ikuspegiarekin lotutako iruzkina, berria eta bereziki interesgarria dena; izan ere, uste dugu etxebizitza, garraioa, hezkuntza eta ingurumena osasun-sistemaren kontrolatik kanpoko faktoreak direla baina, era berean, erabakigarriak herritarren osasunean eta, ondorioz, ongizatean. Osasuna sortzen duten hainbat baliabide daude (ekonomikoak, hezkuntzakoak, gizarte-laguntzakoak, etxebizitza...), *aktiboak osasunean* izenekoak; horiek bizi-erronkei aurre egiteko aukerak areagotzen dituzte. Gizarte-desberdintasuna eta osasuneko eragin negatiboa zuzenean lotuta daude; hortaz, jasangarritasun-estrategia baten esparruan ezinbestekoa da ekitatearen ikuspegia osasun-ondarea handitzera ere orientaturik eranstea.

2. laukian jaso behar dituen hamar informazio-atal ageri dira.

Hainbat gida-galdera ere erantsi dira aipatutako hiru alderdiak zehazten laguntzeko.

2. laukia. Prestaketa-fasearen oinarrizko informazioa: Jasangarritasun-irizpideekin lotutako gida-galderak.

FITXEN ATALAK	JASANGARRITASUNAREKIN LOTUTAKO GIDA GALDERAK
1. Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Zein dira planaren helburu nagusiak? ✓ Nola daude helburu horiek lerrokatuta Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia 2020ren (bederatzi) helburuekin? ✓ Zein da plan honek aurre egin nahi dion arazo espezifikoak? ✓ Nori eragiten dio? (kolektiboak/interes-taldeak, geografia-eskualdeak...) ✓ Arazoari irtenbide baliozkoak bila dakizkioke plana abiarazi gabe?
2. Aurrekariak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Planaren testuinguru politikoa ✓ Jasangarritasunik ezaren arazo batez hitz egin daitezkeen egoera batetik (ekonomikoa, soziala edo ingurumenekoa) abiatzen al gara? ✓ Aurreko planen ebaluazio bat egin al da? Zer motakoak? (diseinua, emaitzak, eraginak...) Oraingo planarentzat garrantzitsu izan daitezkeen zer emaitza lortu dira?
3. Esku hartzen duten sailak eta eskumen-informazioa	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Autonomia-administrazioaren (i), foru-administrazioaren (ii), administrazio zentralaren (iii), udalen (iv) zer beste sail eta organismok izan dezaketen interesa edo eragina jaso dezakete (esku hartzen duten eskumenengatik, albo-eraginengatik edo planaren eraginkortasun handiagoa/txikiagoa dakarten sinergien balizko sorreragatik) sustatu beharreko planaren aldetik? ✓ Sailaren beraren edo beste gobernu-erakunde batzuen edo herri-administrazioan iraganeko edo etorkizunerako aurreikusitako beste ekimenekiko lotura.
<p>4. Jarduketaren eragina/intzidentzia:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ekonomikoa • Soziala • Ingurumenekoa • Araudikoa • Antolaketakoa • Aurrekontu eta finantzakoa • Gobernuaren beste jarduketa batzuetan • Erakundeen arteko harremanetan 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Planak politika berriak garatzen ditu edo aurreko ekimenen jarraipena al da? ✓ Kontuan hartutako aukera guztiek edo batzuek eragin ekonomiko, sozial edo ingurumeneko garrantzitsurik izango al dute? ✓ Kontuan hartutako aukera guztiek edo batzuek eragina izango al dute osasuna sortzeko ahalmena duten faktoreetan (berdeguneak, garraio publikoa, toki-ekonomia, gizarte-partaidetza, kultur jarduera, eta gizarte-kohesioa)? ✓ Planaren kostuaren (zentzu guztietan) eta bilatutako onuren arteko proportziorik al dago? ✓ Egokitzen jotzen al da eraginaren azterketa espezifikoak egitea? Noiz abiarazi nahi da? ✓ Zein da aurrekontu-kontsignazioaren maila?
5. Izapidetzeko egutegia eta faseak	
6. Gauzatzeko epea	
7. Planaren jarraipena eta ebaluazioa	



8. Esku hartzen duten erakundeen arteko lankidetzarako metodologia	<ul style="list-style-type: none">✓ Zer koordinazio- (i), lankidetz- (ii), komunikazio-neurri (iii) aurreikusi dira sinergiak aprobetxatzeko (a), plana izapidetzeko edo ezartzeko garaian etorkizuneko gatazkak saihesteko (b)?✓ Administrazioaren beste sail edo erakunde batzuekin lantaldeak eratuko al dira? Zeinekin?
9. Gizarte-eragileen parte-hartzea	<ul style="list-style-type: none">✓ Prozesuan zer interes-talde edo aditu kontsultatuko dira? Nola eta noiz egin behar da?
10. Plana hedatzea	<ul style="list-style-type: none">✓ Komunikazio-jardueraren bat aurreikusi al da? Noiz? Nork gauzatuko du?

- ✓ Gogoeta-ariketa irekia beharrezkoa da eragin sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak identifikatzeko. Etapa honetan lehen zerrenda bat egingo da, eta hurrengo hiru laukietan zehaztea errazteko, horien zerrenda zabala ere jasota dago, Europako Batzordeak erkidegoko ekimenen eraginak ebaluatzen dituzten sistemaren barruan proposatutako galdetegitik egokitua³⁵. Asmoa eragin ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak errazago identifikatzea da; horregatik, galdera-zerrenda borondatezkoa, irekia eta orientagarria da.

3. laukia. Balizko eragin ekonomikoak identifikatzeko gida

ERAGIN EKONOMIKOA	GAKO GALDERAK
Merkatuaren eta lehiaren funtzionamendua.	Ekimenak eragiten al du ondasunen, zerbitzuen, kapitalen eta langileen mugimendu askean? Kontsumitzaileen aukeren murrizketa eragin al dezake, prezioen garestitzea lehia askearen murrizketagatik? Ondasunen eta zerbitzuen ekoizle berrien sarrerarentzat oztopoa edo eragozpena al da? Eragin positiboa edo negatiboa izan dezaketen taldeak al daude? Lehiaren aurkako praktikak edo monopolioak sortzea, merkatuak segmentatzea... laguntzen al du?
Lehiakortasuna, merkataritza eta inbertsio-fluxuak	Nola eragiten du euskal enpresen produktibitate globalean/posizio lehiakorrean? Nola eragiten du barrera komertzialetan? Inbertsioak EAETik kanpora joatea/enpresen ekoizpen-jarduera deskokatzea eragin al dezake? Euskadi barruko inbertsioak sustatzen al ditu? Toki-ekonomiaren mobilizazioa sustatzen eta errazten al du?
Enpresen kostu operatiboak (ETEak bereziki)	Enpresei doitzeko, egokitzeko edo transakzioeko kostuak eragiten al dizkie? Negozio batzuen funtzionamenduaren erregulazio zorrotzagoren bat al dakar? Funtsezko sargaien (energia, lehengaiak, makinak, lana...) kostuan edo erabilgarritasunean eragiten al du? Finantzaketarako sarbidean eragiten al du? Inbertsio-erabaketan eragiten al du? Produktu batzuk merkatutik ateratzea eragin al dezake? Produktu jakin batzuk merkaturatzea mugatzen edo debekatzen al du? Enpresa batzuk ixtea eragingo al du? Edo jarduera edo enpresa berriak sortzea? Egoera parekagarrietan produktu batzuk beste batzuen gainetik diskriminatzea eragiten al du?
Enpresen gaineko administrazio-kargak	Enpresek duten informazioa emateko beharretan (datu mota, maiztasuna, prozesu konplexuagoak) eragiten al du? Zer eragin izan dezake ETEetan?
Herri-administrazioak	Eragina al du epe labur edo luzera herri-administrazioen aurrekontuetan? Sektore publikoaren administrazio-lanak handitzen al dira? Erakunde publikoak sortzea edo berregituratzea exijitzen al du?
Jabetza-eskubideak	Jabetza-eskubideetan (lurrak, higiezinak, aktibo ibilgetuak...) eragiten al du edo nolabait mugatzen da jabetzak eskuratzeko, saltzeko edo erabiltzeko eskubidea? Desjabetzeak gertatzen al dira?
Ikerketa eta berrikuntza	Ikerketa akademikoa edo industrial mugatzen edo sustatzen al da? Ekoizpen-metodo, teknologia eta produktu berriak barreiatzen laguntzen al du? Osasunaren faktore erabakigarriez edo osasuneko aktiboez ikertzen al da? Jabetza intelektualaren eskubideetan eragiten al du? (patenteak, merkataritza-markak...) Baliabideen produktibitatea/eraginkortasuna bultzatzen al du?
Kontsumitzaileak eta familiak	Kontsumoko azken prezioetan eragiten al du? Kontsumitzaileen gaitasuna mugatzen al du Europako barne-merkatuari onura ateratzeko? Eraginen bat al du ondasunen eta zerbitzuen kalitatearen eta erabilgarritasunaren gainean, barietatean edo fidagarritasunean? Kontsumitzaileen informazioa eta babesaldatzen al du? Pertsonen eta familien finantza-egoeran eragin esanguratsurik al du, epe laburrean zein luzean? Familiaren eta haurren babes ekonomikoa aldatzen al du? Oinarriko ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko eragiten edo laguntzen al du? (enplegua, elikagaiak eta elikagai-segurtasuna, etxebizitza, gizarte- eta osasun-zerbitzuak, hezkuntza, aisia-instalazioak...)Eragin positiboa edo negatiboa izan dezaketen taldeak al daude?
Ekoizpeneko eskualde/sektore	Ekoizpen-sektore batzuetan espezifikoki edo neurritz kanpoko moduan eragiten al du? Ondorioak al ditu eskualde jakin batzuetan, adibidez, enpleguari edo errenta-sorrerari

³⁵ Europako Batzordea, *Impact assessment guidelines*, SEC (2009) 92, 2009/01/15.

zehatzak	dagokionez? Neurriz kanpoko eragina al du horietan?
Hirugarren herrialdeak eta nazioarteko merkataritza	Euskadiren nazioarteko konpromisoetan eragiten al du? Euskadiren eta munduko gainerakoaren arteko merkataritza-fluxuetan eragiten al du? Taldea jakin batzuetan eragiten al du (ekoizleen eta/edo kontsumitzaileen taldeak)? Nola? Garapen bidean dauden herrialdeei egokitzeko kostuak eragiten dizkie? Garapen bidean dauden herrialdeetan ekoiztako ondasun eta zerbitzuetan eragiten al du?
Testuinguru makroekonomikoa	Eragin globalik al du BPGren eta enpleguaren hazkunde-ahalmenaren gainean? Eragin zuzenik al du egonkortasun makroekonomikoan? Nola eragiten du inbertsio-baldintzak hobetzen eta merkaturaren funtzionamendu onean?

4. laukia. Balizko eragin sozialak identifikatzeko gida

ERAGIN SOZIALA	GAKO GALDERAK
Enplegua eta lan-merkatua	Enplegua sortzen laguntzen al du? Enplegua galtzea dakar zuzenean edo zeharka? Lanbide, langile autonomoen edo besteren konturakoen talde batzuentzat ondorio negatibo espezifikoak al ditu? Adin-talde batzuetan bereziki eragiten al du? Talderen batean eragiten al du sexuaren, gizarte-klasearen, ezgaitasunaren, jatorri/etniaren, kokapen geografikoaren edo beste batzuen arabera? Enplegu-eskarian eragiten al du? Lan-merkatuaren funtzionamenduan eragiten al du? Familia- eta lan-jardueren uztarketan eragiten al du? Faktore psikosozialetan eragin positiboa edo negatiboa al du? Hala nola estres psikosoziala (laneko segurtasunik eza, bereizkeria) edo laguntza eta kohesio soziala (familia-, auzo-, gizarte-sareak)
Lan-kalitatearen estandarrak eta eskubideak	Enplegu-kalitatean eragiten al du? Lanaren gutxieneko estandarrak murrizten al du? Langileak edo langabetuak lanbide-heziketan (hasierakoa edo etengabea) sartzean eragiten al du? Langileen osasunean, segurtasunean edo duintasunean eragiten al du? Langileen oraingo eskubideak eta betebeharrak zuzenean edo zeharka aldatzen al ditu, bereziki irazpenaren aurreko informazio-, negoziazio- eta babes-eskubideari dagokionez? Eragin positiboa edo negatiboa nozitu dezaketen taldeak al daude? Langile gazteen baldintzetan eragiten al du? Langileen oraingo eskubideak eta betebeharrak zuzenean edo zeharka aldatzen al ditu? Lanpostuetako aldaketan eta berrikuntza teknologikoak sartzearen aurrean berregituratzeko eta egokitzeko gaitasuna errazten edo mugatzen du?
Gizarteratzea eta talde partikularren babesa	Merkatu-sarreran edo lan-merkatuetako sarrera/irteera trantsizioan eragiten al du? Zuzenean edo zeharka desberdintasun/berdintasun handiagoa sortzen al du? Ondasunak eta zerbitzuak berdintasunez eskuratzeko aukeran eragiten al du? Enplegu-zerbitzuetarako edo interes ekonomiko orokorreko beste zerbitzu publiko batzuetarako sarbidean eragiten al du? Gai zehatzen gainean erabilgarri dagoen informazio publikoa handitzen al du? Pertsona-talde (hala nola zaugarrienak edo txirotasun-arrisku handiena dutenak: umeak, emakumeak, zaharrak, ezgaituak, langabetuak, gutxiengo etnikoak, linguistikoak edo erlijiosoak, asilo politikoaren eskatzaileak), enpresa edo beste erakunde (elizak...) edo herri espezifiko batzuetan besteetan baino gehiago eragiten al du? Hirugarren herrialdeetako nazionaletan nabarmen eragiten al du?
Genero-, tratu- eta aukera-berdintasuna	Guztionezko bazterketarik ezaren, tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa aldatzen al du? Gizonen eta emakumeen gainean eragin ezberdina al du? Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen al du? Gizabanakoei edo taldeei tratu-ezberdintasunak zeharka eragin diezazkieke sexua, gizarte-klasea, etnia- edo arraza-jatorria erlijioa edo sinesmenak, ezgaitasuna, adina edo sexu-orientazioa direla kausa?
Gizabanakoen datu pertsonalak, bizitza pribatua eta familiarra	Pertsonen gainean administrazio-eskakizun gehigarriak eranstean ditu edo administrazio-kudeaketaren konplexutasuna handitzen al du? Gizabanakoen pribatasuna aldatzen du, haien etxea eta komunikazioak barne? Pertsonen askatasunean eragiten al du? Joan-etorrien askatasun-eskubideetan eragiten al du? Familia-bizitzan edo familiarren lege-, gizarte- eta ekonomia-babesean eragiten al du? Haurren eskubideetan eragiten al du? Datu pertsonalak erregistratzea al dakar edo pertsonak beren datu pertsonaletara jotzeko duten eskubidean eragiten al du?

ERAGIN SOZIALA	GAKO GALDERAK
Gobernantza, partaidetza, administrazio ona, justiziarako sarbidea, komunikabideak eta gizarte-etika	<p>Interes-taldeek gobernantzako gaietan duten inplikazioan eta arlo horretako orientabide berrietan eragiten al du?</p> <p>Interes-talde guztiek tratu bera jasotzen al dute, aniztasunari beharrezko errespetua eskainita? Kultura- edo hizkuntza-aniztasunean eragiten al du?</p> <p>Alderdien autonomian eragiten al du beren eskumeneko arloetan? Adibidez, negozioz kolektiborako eskubidean edo grebarako eta manifestaziorako eskubidean eragiten al du?</p> <p>Herri Administrazioen erantzukizunetan eragiten al du?</p> <p>Pertsonen eskubideak aldatzen al dira auzitegiatarako sarbidearekin lotuta?</p> <p>Auzitegien aurrean errekurritzeko eskubidea jasotzen al da?</p> <p>Herritarrek gai zehatz bati buruz informatuago egotea lortzen al da? Herritarrek informaziorako duten eskubidea aldatzen al du?</p> <p>Alderdi politikoen edo herritar-erakundeen eskubideak aldatzen al ditu?</p> <p>Komunikabideetan, beren aniztasunean edo adierazpen-askatasunean eragiten al du?</p> <p>Gai bioetikoak sorrarazten al ditu (klonazioa, gorpuak edo giza gorputzaren zati batzuk irabazi asmoz erabiltzea, ikerketa eta esperimentazio genetikoak, informazio genetikoaren erabilera)?</p>
Osasunaren sustapena eta prebentzioa	<p>Herritarren edo gizabanakoaren osasun-baldintzetan eragiten al du, horien artean bizi-itxaropena, hilkortasuna eta morbiditatea, bizi-kalitatea eta ongizatea ingurune sozioekonomikoaren gaineko eraginaren ondorioz (laborala, errenta, hezkuntza, enplegua, nutrizioa, etxebizitza, azpiegiturak, osasun-zerbitzuak, segurtasuna)?</p> <p>Ingurunerako gai kaltegarriengatik osasunaren gaineko arriskuen aukerak handitzen edo murrizten al dira?</p> <p>Osasunean eragiten al da zarataren edo ur-, aire- edo lurzoru-kalitatearen mailetan izandako aldaketengatik?</p> <p>Osasunean eragin al dezake energiaren erabileran eta hondakin-deuseztatzean izandako aldaketen ondorioz?</p> <p>Faktore psikosozialei lotutako osasunaren erabakigarrietan eragiten al du? (hala nola estres psikosoziala, gizarte-laguntza eta -kohesioa, autoestimua, autonomia edo beste batzuk)</p> <p>Bizi-estiloari lotutako osasunaren erabakigarrietan eragiten al du? (hala nola dietak, jarduera fisikoa, edo tabakoaren, alkoholaren edo drogen kontsumoa, sexu seguruaren praktika, aisia-jarduerak edo beste batzuk)</p> <p>Desberdintasun motaren bat aurreikusten da adinagatik, sexuagatik, ezgaitasunagatik, gizarte-talde bateko kide izateagatik, mugikortasunagatik edo eskualdeagatik...?</p>
Delituak, terrorismoa eta segurtasuna	<p>Eragiten al du segurtasunaren, delinkuentziaren edo terrorismoaren gainean? Ba al dago eragin negatiboa edo positiboa izan dezakeen talderik?</p> <p>Eragiten al du gaizkileak atzemateko aukeran edo delituzko ekintzen emaitzen aprobetxamendu materialean?</p> <p>Baliteke delitu kopurua handitzea? Legeak aplikatzeko gaitasuna aldatzen al du?</p> <p>Segurtasun nazionaleko interesetan eragin al dezake?</p> <p>Eragina izan al dezake askatasun eta segurtasunerako eskubidean, bidezko epaiketa baterako eskubidean eta defentsarako eskubidean? Biktimen eta lekukoaren eskubideetan eragiten al du?</p>
Babes sozialeko sistematarako eta hezkuntzarako sarbidea eta ondorioak	<p>Ba al dago eragin positiboa edo negatiboa izan dezakeen talderik?</p> <p>Zerbitzuetan eragiten al du beren kalitateari edo sarbide libreari dagokionez?</p> <p>Langileen hezkuntzan eta mugikortasunean (osasuna, hezkuntza...) eragiten al du?</p> <p>Pertsonen hezkuntza publiko edo pribatuan, irakaskuntza profesionalean edo trebakuntza jarraituan sartzeko duten eskubidean eragiten al du?</p> <p>Mugaz haraindiko edo erkidego arteko zerbitzu-horniduran edo mugaz haraindiko lankidetzan eragiten al du?</p> <p>Osasun- edo gizarte-arretako zerbitzuen finantzaketa, antolaketa edo sarbidea aldatzen al du?</p> <p>Unibertsitateen askatasun akademikoan eta autonomian eragiten al du?</p>
Kultura	<p>Kultur ondarearen gaineko eraginak egon al daitezke?</p> <p>Kultur aniztasuna alda al dezake?</p> <p>Herritarrek kultur agerraldietan parte hartzean edo kultur baliabideetarako sarbidean eragiten al du?</p> <p>Kultur jarduera eta bere hazkundera toki-esparrutik sustatzen al da? Ba al dago eragin negatiboa edo positiboa izan dezakeen talderik?</p>
Eragin sozialak beste erkidego eta herrialde batzuetan	<p>Beste politika global batzuentzat (garapenerako lankidetzak kasu) garrantzitsuak izan daitezkeen hirugarren herrialdeetan eragin sozialik al du?</p> <p>Euskadiren nazioarteko konpromisoetan eragiten al du?</p> <p>Garapen bidean dauden herrialdeen txirotasunean edo baliabide txikieneko biztanleen errentan eragiten al du?</p>
Kapital soziala	<p>Erakundeak, tokiko elkarteak, sareak edo gizarte talde informalak, elkarte-sare txikiak dutenei arreta berezia jarrita, sortzea sustatzen eta errazten al du? Erkidegoan duten zuzeneko lan parte-hartzailea errazten eta kontuan hartzen al du? Erkidegoaren auto-konfiantzako sentimendua sustatzen al du?</p>

5. laukia. Balizko ingurumen-eraginak identifikatzeko gida.

INGURUMEN ERAGINA	GAKO GALDERAK
Klima	Atmosferara isuritako berotegi-efektuko gasetan eragiten al du? Ozono-geruza aldatzen duten gaien isurietan eragiten al du? Klima-aldaketaren aurrean egokitzeko ahalmenean eragiten al du?
Garraioa eta energia	Energiaren eta erregaien kontsumoa eta/edo eskaria handitzen edo murrizten al du? Ekonomiaren intentsitate energetikoa eragiten al du? Iturri energetikoen (ikatz, gasa, energia nuklearra, berriztagarriak...) konbinazioan eragiten al du? Garraioaren eskaria (bidaiariak eta zama) handitzen edo murrizten edo bere banaketa modalean eragiten al du? Ibilgailuen isuriak handitzen edo murrizten al du? Garraio publikoaren erabilera sustatzen eta errazten al da? Mugikortasun aktiboa (bizikleta edo ibiltzea adibidez) sustatzen al du? Esparru publikoak eskari horretara behar bezala egokitzen al dira? Garraio bideetan irisgarritasun integratua sustatzen al du? Ba al dago eragin positiboa edo negatiboa izan dezakeen talderik?
Airearen kalitatea	Airearen azidotzean, eutrofizazioan edo osasunarentzat kaltegarriak diren edo uztei edo eraikinei kalteak dakartzkien edo ingurumena (lurzoruak, ibaiak...) narriatzea dakarten kutsatzaile fotokimiko edo kaltegarrien isurietan eragiten al du? Ba al dago eragin positiboa edo negatiboa izan dezakeen talderik?
Bioaniztasuna, flora, fauna eta paisaia	Gune jakin batzuetan espezie/barietate/arraza kopurua murrizten edo handitzen al da? (hau da, bioaniztasuna murrizten edo kontserbazioa handitzen al da?) Babestutako edo arriskuan dauden espezieetan edo bere habitatetan edo ekologikoki zaugarriak diren guneetan eragiten al da? Habitatak zatikatzea eragiten edo migrazio-ibilbideak, korridore ekologikoak edo atsedeen hartzeko guneak nolabait nahasten al dira? Babestutako guneen paisaia-balioak hondatzen al dira?
Uraren eta baliabideen kalitatea	Lurrazaleko edo lurpeko ur naturalen kalitatea edo kopurua handitzen edo murrizten al da? Itsasbaterreko eta itsasoko uren kalitatea handitzen edo murrizten al da? (esate baterako, hondakin-uren, elikagaien, olioen, metal astunen eta bestelako produktu kutsatzaileen isuriengatik) Edateko uraren baliabideetan eragiten al du? Elikagaien segurtasunean eragiten al du? Ba al dago eragin positiboa edo negatiboa duen talderik?
Lurzoruaren eta baliabide naturalen kalitatea	Lurzoruen azidotzean, kutsaduran edo gazitasunean, edo higadura-tasetan eragiten al du? Landu daitekeen lurzoru erabilgarriak murrizten (etxegintzagatik edo herri-lanak egiteagatik) edo handitzen (adibidez, lurzoruen kutsadura desagerraraziz) al dira?
Lurraren erabilera	Lurzoru berria (<i>greenfield</i>) hartu behar duten jarduerak proiektatzen al dira? Arrazoi ekologikoengatik zaugarritzat hartutako lurzoruan eragiten al da? Lurraren erabileran aldaketak sartzen al dira? (adibidez, landa- eta hiri-erabileren artean, edo nekazaritzako labore ezberdinengatik) Ba al dago eragin positiboa edo negatiboa izan dezakeen talderik?
Baliabide berriztagarriak eta ez-berriztagarriak	Baliabide berriztagarrien erabilera aldatzen al da berriztatzeko gaitasuna gaindituta (arrantzalekueetan, adibidez)? Baliabide ez-berriztagarrien erabilera (lurrazaleko urak, mineralak...) handitzen edo murrizten al da?

INGURUMEN ERAGINA	GAKO GALDERAK
Enpresen eta kontsumitzaileen ingurumen-ondorioak	<p>Ekoizpen edo kontsumo jasagarria bultzatzen al da?</p> <p>Ekologikoki adiskidetsuak diren produktuen prezioak <i>versus</i> adiskidetsuak ez direnak aldatzen al dira? Lehenengoak bigarrenen aldean murriztea sustatzen al da? ,Proiektu horien eskuragarritasunean eragiten al du?</p> <p>Ondasun eta zerbitzu ekologikoak <i>versus</i> ekologikoak ez direnak sustatzen edo murrizten al dira inbertsioak, maileguak, aseguruak... baloratzeko arauak aldatuz?</p> <p>Gehiago edo gutxiago kutsatzen duten jarduera ekonomikoak bultzatzen al dira beren funtzionamendu-arauak aldatuz?</p> <p>Ba al dago eragin positiboa edo negatiboa izan dezakeen talderik?</p>
Hondakinen sorrera, berrerabiltzea eta birziklatzea	<p>Sortutako hondakin kopuruan (solidoak, hirikoak, nekazaritzakoak, industriakoak, meategietakoak, erradiaktiboak, toxikoak) edo tratatzeko, birziklatzeko edo botatzeko moduan eragiten al du? Ba al dago eragin positiboa edo negatiboa izan dezakeen talderik? Birziklatzea sustatzen eta errazten al du esparru guztietan (etxea, lantokia, aisialdia, gune publikoak...)?</p>
Ingurumen-arriskuen aukera eta dimentsioa	<p>Prebentzioan edo suteak, leherketak, hausturak, behea jotzeak, istripuak edo ustekabeko isuriak gertatzeko aukeran edo prebentzioan eragiten al du?</p> <p>Ingurumenetik kanpoko organismoen edo genetikoki aldatutako ustekabeko edo baimendu gabeko barreiatzea gertatzeko arriskuan eragiten al du? Ba al dago eragin positiboa edo negatiboa izan dezakeen talderik?</p>
Animalien ongizatea	<p>Animalien osasunean edo ongizatean (gizakiek emandako tratuagatik, adibidez) eraginen bat al du?</p> <p>Pertsonen eta animalien elikadura-segurtasunean eraginen bat al du?</p>
Nazioarteko ingurumen-eraginak	<p>Erkidegoaren beste politika batzuentzat garrantzitsuak diren hirugarren herrialdeen edo autonomia-erkidegoen ingurumenean eragiten al du? (adibidez, garapenarekiko lankidetzapolitikarentzat)</p>
Hiriko ingurumena ³⁶	<p>Hiri trinkoaren eredua sustatzen al du?</p> <p>Berdeguneak sortzea sustatzen al du? Bere diseinuak segurtasun- eta irisgarritasun-irizpideei erantzuten al die? Gizarte-kohesioa, ongizate psikosoziala eta osasunarekin zerikusia duten aldeko portaerak sustatzen al ditu?</p> <p>Hiriaren erabilera mistoa (oinezkoak, bizikletak, garraio intermodala)?</p> <p>Irisgarritasun integratuko irizpideak aplikatzen al ditu?</p>

³⁶ Agerikoa da hiri-diseinuak osasunaren determinatzaileetan eragiten duela eta osasuneko aktibo gisa. Hiri-ereduei, berdeguneen sorrerari eta erabilerak baketzeko eta pertsona guztiek erabiltzeko diseinuari eta erlazioari buruzko jardunbide egokien txostenak eta gomendioak ematen dituzte osasunaren nazioarteko erakundeek.

A.3. AURRERAPEN DOKUMENTUA (OINARRIZKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKONOMIKOAK) ETA BERE HEDAPENA: JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK

3.1 Dokumentuaren asmoa eta edukia

Oinarrizko ildo estrategikoen eta ekonomikoen planaren funtsezko ezaugarriak, oinarrizko informazio-fitxetan aurreratuta, zehaztu behar dituzte, ikuspegi hirukoitz batetik:

- (i) Identifikatutako arazoak eta gizartearen eskaera zehaztea.
- (ii) Estrategia eta aurreikusitako eraginak mugatzea, jasangarritasunaren ikuspegitik.
- (iii) Planaren ekonomia eta aurrekontua kuantifikatzea.

Dokumentuan honako hauek gehiago zehaztu behar dira: (i) jasangarritasun ekonomiko, sozial eta ingurumenekoarekin lotuta aurreikusitako eraginak; (ii) Euskadiko administrazioaren eta beste herri-administrazio batzuen beste organo batzuekiko erlazioa eta lankidetzak; eta (iii) gizarte-eragileen, interes-taldeen eta, oro har, herritarren partaidetza.

Paragrafo hauetan dokumentuaren paragrafoak betetzeko jarraibideak ageri dira:

- a) Planaren asmoa, 2020rako EGJEn helburuei egindako ekarpenaren ikuspegitik.
- b) Eragin ekonomiko, sozial eta ingurumenekoaren garrantzia eta kalkulua aztertzea.

3.2 Planak 2020rako EGJEn helburuei egindako ekarpena

2020rako EGJEk 9 helburu estrategiko eta zeharkako 4 ikuspegi ditu zehazturik. Bultzatzen duen sailak, planaren helburu espezifikoak formulatzean, haren helburuekin dauden loturak finkatu beharko ditu. Hurrengo laukietan 2020rako EGJEn helburuak eta guneak zein jarduketako-ildoak ageri dira, galdetegi modura, gogoetarako prozesu hau zuzentzeko helburuz.

6. laukia. 1. helburu estrategikorako ekarpena.

1. HELBURU ESTRATEGIKORAKO EKARPENA: Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea.
<p>Jakintzan, sormenean, lankidetzan eta gaitasunetan oinarritutako ekonomia berritzailea, ekintzailea eta teknologikoki aurreratua bultzatzen laguntzen al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Garatzen ari diren sektore jasangarriak eta, horien artean, energia berriztagarrien industria laguntzen ditu. • Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea sendotzen du. • Ekoizpen-ehunaren lehiakortasuna hobetzen du berrikuntzaren bitartez. • Beste batzuk.
<p>Enplegu berdeak sortzea sustatzen al du lehengaien edo gai naturalen kontsumoa eta ekoizpen-mendekotasuna murriztuz, jasangarritasuna lehiarako abantaila bihurtuta?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Materialen eraginkortasunari lotutako berrikuntza eta ekodiseinua bultzatzen ditu, produktuen bizikloaren ikuspuntutik. • Hondakinak balioztatzea eta materialak berrerabiltzea sustatzen du. • Tokiko ekonomiak bultzatzen ditu hurbiltasuneko zirkuitu laburretan oinarrituriko lehiarako abantaila onura ateratzeko. • Beste batzuk.
<p>Enpresak nazioartekotzeko erraztasuna ematen al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zientzia- eta teknologia-sistemaren nazioartekotzea bultzatzen du. • Hazkunde azkarreko herrialdeetan (Brasil, India edo Txina, besteak beste) industrialdeak sortzea sustatzen du. • Nazioartekotzeko prozesuetan trebatzeko bekak finantzatzen ditu. • Beste batzuk.
<p>Merkatuko instrumentuetan jasangarritasun-irizpideak sartzen al ditu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ekoizpena jasangarritasunerantz orientatzeko asmoz (teknologia garbiak, material berriak, sektore berriak) epe luzeko finantza-baliabideak eta arrisku-kapitaleko beste iturri batzuk eta epe luzeko kreditua mobilizatzen ditu. • Fiskalitate berdeko irizpideak modu esanguratsuan eta gero eta gehiago eransten ditu, zerga-sistema berrorientatuta. • Beste batzuk.

7. laukia. 2. helburu estrategikorako ekarpena.

<p>2. HELBURU ESTRATEGIKORAKO EKARPENA: Euskadi erabat integratzailea den eta enplegu, hezkuntza, prebentzio zein elkartasun arloetan kohesionatuta dagoen herrialde gisa sendotzea.</p>
<p>Gizartearen integrazioa eta kohesioa bermatzen laguntzen al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsonak gizarteratzea eta beren autonomia sustatzen du, elkartasunetik bideratutako partaidetza soziala sustatuz eta gizarte-ekimenarekiko lankidetzatza sendotuz gizarteratzeko programen garapen operatiboan. • Langile etorkinak eta beren familiak integratzen (baita kulturalki ere) laguntzen du, etorkinen hezkuntza-desabantailan eraginda. • Euskadiko Lan Sistema Publikoaren garapen integralean aurrera egiten du. • Beste batzuk.
<p>Prebentzioa, osasunaren sustapena eta autonomia pertsonalarena sustatzen al du, baita baliabideak berdintasunez eskuratzea ere, determinatzaile sozialen ikuspegitik?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsonan eta ikuspegi komunitarioan oinarrituriko arreta sozio-sanitarioko sistema bat eraikitzen du. • Osasunaren eta mendekotasunaren determinatzaile sozialen gainean era proaktiboan eragiten du. • Pertsonak behar dituzten erlazio- eta lotura-premiak gogobetetzen laguntzen duten esparru sozialak sustatzen ditu. • Beste batzuk.
<p>Izaera espezifikoko enplegu-politika aktiboak proposatzen al ditu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enpleguaren kalitatea sustatzen al du, enplegu prekarioa eta azpienplegua etetez. • Adin handieneko biztanleen, bereziki emakumeen, enplegu-aukerak handitzen ditu, haien enplegarritasuna lagunduta. • Erakundeetan adina kudeatzeko politikak sustatzen ditu, baita zahartze aktiboko estrategiak ere. • Beste batzuk.
<p>Instrumentuetan jasangarritasun-irizpideak sartzen al ditu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Osasunaren gaineko eraginaren ebaluazioa ezartzen du osasuna sektorekako politiketan ikustarazteko eta txertatzeko tresna modura. • Ezkutuko ekonomiaren aurkako borroka egiten du, azpiokupazioa murrizteko eta administrazioaren diru-sarrerak handitzeko tresna gisa. • Beste batzuk.

8. laukia. 3. helburu estrategikorako ekarpena.

3. HELBURU ESTRATEGIKORAKO EKARPENA: Gizarte babeseko sistemak indartzea, pertsonengan garapen harmoniko, osasungarri eta bidezkoa bermatzeko.

Jaiotza-tasa handitzeko balio duten politika aktiboen esparru globalaren esparrua garatzen laguntzen al du?

- Uztartzeko politika berdinzaleak eta eraginkorrak bultzatzen ditu.
- Lanaldia berrantolatzeak akordio sozialaren alde egiten du, lan-, eskola- eta merkataritza-ordutegi arteko desdoikuntzak gaindituta.
- 0 eta 2 urte arteko haurtzaindegiko plaza publikoak betetzeko plana ezartzen du.
- Beste batzuk.

Gaur egungo ongizate-estatuaren jasangarritasun fiskala (mendekotasuna, diru-sarrerak bermatzeko errenta, osasuna) laguntzen al du?

- Sistema sozio-sanitarioa berregokitzen du gastuaren eraginkortasun handiagoa lortzearen, baina prestazioaren kalitateari eutsita.
- Ahalegin fiskala egokitzen du errealitate berriak aintzat hartuta.
- Herritarren erantzukizuna estimulatzen du zerbitzu publikoen arrazoizko erabilera egin dezaten.
- Beste batzuk.

Instrumentuetan jasangarritasun-irizpideak sartzen al ditu?

- Finantza-tresna berriak, publikoak zein pribatuak, sartzen ditu babes sozio-sanitarioko sistema bultzatzera bideratuta.
- Uztartzeko arau-esparru bat eta gizarte-hitzarmen bat aldeztzen ditu.
- Gastu publikoaren eraginkortasuna eta kontrola bermatzen ditu.
- Eskudun administrazioen arteko koordinazioa indartzen du.
- Beste batzuk.

9. laukia. 4. helburu estrategikorako ekarpena.

4. HELBURU ESTRATEGIKORAKO EKARPENA: Gure natur baliabideei eta biodibertsitateari eustea, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatuta.
<p>Hiri trinkoaren eredia finkatzen laguntzen al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lurzoruaren kontsumoari mugak jartzen dizkio lurraldearen antolamendurako artezpideetan; dagoeneko eraikitako hiriaren gainean jarduten du. • Hirien diseinu ekoeraginkorra sartzan du, beharrezko ez diren mugikortasunak saihestuz, garraio kolektiboari lehentasuna emanez, eta gastu energetiko eraginkorragoa bilatuz. • Azpiegituren eta ekipamenduen erabilera optimizatzen du, lurraldearen ikuspegi integrala edukita. • Beste batzuk.
<p>Ekosistemen eta baliabide naturalen (lurzorua, ura, airea eta paisaia) gaineko presioa murrizten al du horien kalitatea hobetuta?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Uraren eta ur-baliabideen kudeaketaren kalitatea hobetzen du. • Paisaiaren banalizazioaren aurka borroka egiten du, aniztasun biologikoari eusten lagunduta. • Beste batzuk.
<p>Landa-garapen integrala sustatzen al du lurraldeko balio naturalak zaintzeko?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Landa-inguruneari lotutako jarduera ekonomikoak bultzatzen ditu (turismoa, nekazaritza-elikagaien industria...). • Nekazaritzako ustategien belaunaldi-aldaketa bultzatzen du. • Bioaniztasuna eta paisaia mantentzen laguntzen duten nekazaritza-praktikak babesten ditu. • Beste batzuk.
<p>Instrumentuetan jasangarritasun-irizpideak sartzan al ditu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lurzoru-bankuak sortzea bultzatzen du. • Merkatuko mekanismoak eranstean ditu natur baliabideek sortutako ondasun publikoen egiazko balioa azalertzeko. • Beste batzuk.

10. laukia. 5. helburu estrategikorako ekarpena.

<p>5. HELBURU ESTRATEGIKORAKO EKARPENA: Jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna minimizatzea, berotegi efektuko gas-isuriak murriztea eta klima-aldaketaren eraginak arintzea.</p>
<p>Eraginkortasun energetikoa hobetzen eta energia-kontsumoa murrizten laguntzen al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Automobil elektrikoaren eta ordezko beste energia batzuetan oinarritutako beste batzuen garapena eta erabilera babesten ditu. • Eraikuntzaren sektorea modu antolatu batez energia-balantze ia nuluko etxegintza bihurtzea. • Eraikinen zaharberritze integrala sustatzen du. • Industrian eta beste sektore batzuetan eraginkortasuna nabarmentzen du kontsumoa murrizteko eta lehiakortasuna hobetzeko. • Beste batzuk.
<p>Energia berriztagarriak sortzea eta erabiltzea sustatzen al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elektrizitate berriztagarri gehiago sortzea ahalbidetzeko ahaleginak areagotzen ditu, batez ere hauetan oinarrituta: energia eolikoa –lurrekoa eta itsasokoa– eta fotovoltaikoa, biomasaren aprobetxamendua eta, epe luzerago, itsas energia. • Erabiltzaileek energia berriztagarriak gehiago erabiltzea bultzatzen du, bereziki biomasan, eguzki-energia termikoan eta trukatzeko geotermikoan oinarrituriko aprobetxamendu termikoentzat. • Erakundeen eta gizartearen adostasuna sustatzen du energia berriztagarrien eta azpiegituren inguruan. • Beste batzuk.
<p>Klima-aldaketa arintzea eta egokitzeko ekintzak sustatzen al ditu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hustutegiaren xurgatze-ahalmena handitzeko sistemak sustatzen ditu. • Klima-aldaketara egokitzeari buruzko I+G+Bko garapen-ildoak indartzen dira, erabakiak hartzea eta emaitzak zabaltzea bideratuta. • Beste batzuk.
<p>Instrumentuetan jasangarritasun-irizpideak sartzen al ditu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ekoizpen-prozesuetan teknologia erabiltzea fiskalki sustatzen da aintzat hartutako produktuaren edo prozesuaren ziklo osoan zehar berotegi-efektuko gasen isuriak, kuantifikatzeko moduan, murriztea bultzatzeko. • Arauetan eta laguntzak emateko orduan berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea ahalbidetzen duten ekoizpen-prozesuak eta ekipoak erabiltzeari buruzko balorazio-irizpideak jasotzen dira. • Beste batzuk.

11. laukia. 6. helburu estrategikorako ekarpena.

6. HELBURU ESTRATEGIKORAKO EKARPENA: Lurralde barruan egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratuko eredu jasangarriago bat garatzea.
<p>Garraiabide jasangarrienak sustatzen al dira?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Trenbidea sustatzen da pertsonak eta salgaiak garraiatzeko egitura-ardatz gisa. • Lurralde historiko bakoitzean txartel bakarra bultzatzen da, eta agian herrialde osoan. • Beste batzuk.
<p>Azpiegitura eta zerbitzu integratuetan oinarritutako irisgarritasuna sustatzen al da mugikortasuneko baldintza egoki eta seguruetan?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mugikortasun-planak egitea bultzatzen da erakunde-maila guztietan eta mugikortasuna sortzen duten jarduera-zentroetan. • Informazio- eta komunikazio-teknologiak sartzea sustatzen da, mugitzeko beharrak murrizte aldera. • Beste batzuk.
<p>Instrumentuetan jasangarritasun-irizpideak sartzen al ditu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kanpoko kostuak barneratzeko sistemak aplikatzen edo sustatzen dira, baita garraio publikoa eta garraio-azpiegiturak finantzatzera bideratzea ere. • Tarifa-sistema bakarra ezartzen da. • Herriguneetan ibilgailu pribatua ez erabiltzeko neurriak sustatzen dira. • Azpiegitura eta kudeaketa intermodalen sistema integralak ezartzen dira. • Disuasio-aparkalekuak egiten dira, garraio publikoko loturekin batera. • Beste batzuk.

12. laukia. 7. helburu estrategikorako ekarpena.

<p>7. HELBURU ESTRATEGIKORAKO EKARPENA: Kalitatezko hezkuntza- eta balio-sistema sortzea, eskola-arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta, hezkuntza- zein trebakuntza-edukien aldetik, lan-merkatuak eta gizarteak bizitza osoan eskatzen dituzten gaitasunetara egokitua, jasangarritasuna arlo guztietan barne hartuta.</p>
<p>Bizitza osoan zehar bizitza profesionalak eta sozialak eskatutako gaitasunak eskaintzen dituen trebakuntza-sistema garatzen laguntzen al du, jasangarritasuna barne hartuta?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskola goizegi uztea murrizten duten gaikuntza profesionaleko programak bultzatzen dira. • Bizitza osoan zeharreko trebakuntza-eskaintza garatzen da, eta horretara jotzea errazten da. • Trebakuntza-aldian trebakuntza eta enplegua uztartzea errazten da. • Arrail digitala murrizten da. • Beste batzuk.
<p>Balioak eta, horien artean, jasangarritasunarekin lotutakoak, irakastea sustatzen al da?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza-, lan-, familia- eta gizarte-munduaren arteko lankidetzaren sistema sustatzen da balioak irakasteko (balio-eskola). • Herritarrak sentsibilizatzea eta kontzientziazatzea sustatzen da garapen jasangarriaren hiru ikuspegietan. • Beste batzuk.
<p>Euskal kulturaren eta haren nortasuna osatzen duten elementuen nazioarteko proiektzioa bultzatzen al da?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskal kultur sektoreko enpresak merkatu berrietan kokatzea errazten duten laguntza-ildoak sustatzen dira. • Euskadi barruan eta kanpoan, erakunde publikoekin eta pribatuekin, lankidetzaren hitzarmenak egitea defendatzen da, euskal kulturaren baterako nazioartekotzea eskaintzeko helburuz. • Beste batzuk.
<p>Instrumentuetan jasangarritasun-irizpideak sartzen al ditu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Esperientzia profesionalaren eta arautu gabeko ikaskuntzaren bidez lortutako gaitasun profesionala egiaztatzeko sistema zabaltzen da. • Beste batzuk.

13. laukia. 8. helburu estrategikorako ekarpena.

<p>8. HELBURU ESTRATEGIKORAKO EKARPENA: Herritarrentzako berritzailea, eraginkorra, irisgarria eta gardena den administrazio publikoa zabaltzea.</p>
<p>Kudeaketa publikoa, herritarrekin harremanetan jartzeko mekanismoetan berrituz, modernizatzen laguntzen al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gardentasuna areagotzen da politikak formulatzeko prozesuetan, gauzapenean eta emaitzen ebaluazioan. • 2.0 tresnak indartzen dira herritarrekin komunikatzeko bide osagarri modura, prozesuen ahalik eta gehien digitalizatuta. • Jasangarritasun-irizpidez erostea eta kontratatzea bultzatzen da, administrazioaren eginkizun eredugarria indartuta. • Beste batzuk.
<p>Herri Administrazioaren eraginkortasuna sustatzen al da eskumenen antolaketa eta banaketa berrikusiz, erakunde barruko eta arteko lankidetzak bultzatuz, eta koordinaziorako mekanismoak sendotuz?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Administrazioari dagokion eginkizun eredugarria onartzen da, erosketa eta kontratazio publikoa irizpide sozialez eta ambientalez eta berrikuntzaren motor gisa egitea sustatuz. • Herri-administrazioaren ekimenak eta programak egiteko eta berrikusteko (ebaluazioa) prozesuetan herritarrek eta interes-taldeek parte hartzeko modua sistematizatzen eta normalizatzen da. • Eragileak parte hartzeko mekanikan eta prozesuetan trebatzea bultzatzen da. • Beste batzuk.
<p>Instrumentuetan jasangarritasun-irizpideak sartzen al ditu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Politika eta programa garrantzitsuenen emaitzen eta inpaktuen ebaluazioa sistematizatzen da ikasteko eta hobetzeko tresna modura. • Beste batzuk.

14. laukia. 9. helburu estrategikorako ekarpena.

9. HELBURU ESTRATEGIKORAKO EKARPENA: Euskadik Milurteko Helburuak betetzen eta, oro har, herrialde pobreenen garapen jasangarrian laguntzea.

Hirugarren Munduko herrialdeen garapen jasangarria aktiboki laguntzen da lankidetzako proiektuen bidez?

- Herri Administrazioak bultzatutako garapenerako lankidetzako politika txertatzen da eraginkorragoa izan dadin (dimentsio/kalifikazio handiagoko esku-hartzeak ahalbidetuta, hala badagokio).
- Garapen bidean dauden herrialdeekin lankidetzako hitzarmenak laguntzen dira.
- Beste batzuk.

Garapen bidean dauden herrialdeekin merkataritza eta turismo arduratsuek bultzatzen al dira?

- Merkataritza eta turismo arduratsuen irizpideak erabiltzen dira enpresen gizarte-erantzukizunaren parte gisa eta, erosketak eta kontratazio publikoan.
- Jasangarritasuneko nazioarteko ziurtagiriak sustatzen dira.
- Beste batzuk.

Instrumentuetan jasangarritasun-irizpideak sartzen al ditu?

- Aurrekontu-esleipena BPGren % 0,7ra iritsi arte handitzen da, Milurteko Helburuen artean jasota dagoen modura.
- Beste batzuk.

15. laukia. Zeharkako 1. Ikuspegirako ekarpena.

ZEHARKAKO 1. IKUSPEGIRAKO EKARPENA: Jasangarritasunerako berrikuntza eta ezagutza.
<p>Hezkuntzako, I+G+Bko eta IKTetako inbertsioa areagotzen laguntzen al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko ikerketa- eta berrikuntza-sistemak elkarren artean hobeto lotzen ditu, eta beren errendimendua hobetzen du. • Gure unibertsitateen ahalmen mailak handitzen ditu. • Ezagutzako gastuei lehentasuna ematen dio; adibidez, pizgarri fiskalak eta beste finantza-tresna batzuk erabiliz I+G+Bn inbertsio pribatu handiagoak sustatzeko. • Beste batzuk.
<p>Ikerketaren berrikuntza gehiago lortzea errazten al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zientziaren eta enpresaren munduen arteko lankidetzak handitzen du. • Ekintzaileei «ideiak merkaturatzea» eragotzen dieten oztopoak ezabatzen ditu. • Espiritu ekintzailea sustatzen du enpresa ekintzaile gazteak lagunduz. • Kultura ekintzailea eta espiritu sortzailea sustatzen ditu enpresa berritzaile berriak sortzeko eta daudenak eraldatzeko metodo gisa. • Enpresak gehiago laguntzen ditu ezagutza handiko produktuak, zerbitzuak eta ekoizpen-prozesuak baliatuz. • Beste batzuk.
<p>«Euskal Berrikuntzako Lankidetzak» abiaraztea sustatzen al ditu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Herri Administrazioaren mailen artean eta, administrazioaren, unibertsitatearen eta enpresen arteko programazioa / baterako sorkuntza / baterako lankidetzak handitzen ditu. • Enpresek berrikuntzan laguntzen duten baldintza orokorrak hobetzen ditu; esate baterako, ETEek jabetza intelektuala babesteko aukera handiagoa izatea, baita eskaeren politiketarako ere (kontratazio publikorako, adibidez). • Beste batzuk.
<p>Berrikuntza soziala, berrikuntza irekia, sektore publikoaren berrikuntza eta ekoberrikuntza, erronka global eta lokal berrien erantzun gisa, bultzatzen al ditu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Beste batzuk.

16. laukia. Zeharkako 2. Ikuspegirako ekarpena.

ZEHARKAKO 2. IKUSPEGIRAKO EKARPENA: Gazteak mugimenduan.
<p>Hezkuntzako eta trebakuntzako hezkuntza-sistemen inbertsio eraginkorra bermatzen laguntzen al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntzako maila guztietan (eskolaurretik goi mailako ikasketetaraino) funtsezko eskumenak eta balioak jasotzen dituen planteamendu integratuaren bidez, eskola-arrakasta lortzera bideraturik. • Beste batzuk.
<p>Hezkuntza-sistemaren irekiera eta garrantzia indartzen al du talentua sortzen eta erakartzen laguntzeko?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleak lekualdatzeko programa kopurua handitzen du, eta Europar Batasuneko programekin bat etorrarazten ditu. • Goi mailako irakaskuntzaren erakartasuna sustatzen du, kanpoko talentuak hartzeko eta nazioarteko lan-merkatura hedatzeko. • Beste batzuk.
<p>Gazteak lan-merkatuan sartzea hobetzen al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Orientabidea, aholkularitza eta praktikak barne hartzen dituen ekintza integratua dakar. • Goi mailako hezkuntzaren eta enpresaren munduen arteko lankidetzak handitzen du. • Merkatu-txokoak zaintzeari garrantzia ematen dio, langile trebatuen eskaerei azkarrago erantzuteko. • Lehen enplegua lortzen eta ibilbide profesionalari ekiten laguntzen du. • Ekintzailatza-prozesuak sustatzen ditu, berezko eta kanpoko finantza-tresnak lortzen lagunduz. • Beste batzuk.
<p>Etxebizitza izateko aukera sustatzen al du, gizarteratzea ahalbidetzen duen gazteen garapen autonomoa egituratzen laguntzen duen ardatzetako baten moduan?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Beste batzuk.

17. laukia. Zeharkako 3. Ikuspegirako ekarpena.

ZEHARKAKO 3. IKUSPEGIRAKO EKARPENA: Enplegua ekonomia global batean.
<p><i>Malgurtasuna</i> bultzatzen laguntzen al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Trantsizio ekonomikoak kudeatzeko, langabeziari aurre egiteko, eta jarduera-tasak handitzeko modu onenak zehazten ditu. • Lan-merkatuaren segmentazioa murrizten du, eta enpleguaren kalitatea hobetzen du. • Lan-mugikortasuna errazten du, lan-eskaintza eskarira egokituz. • Beste batzuk.
<p>Familia eta lana uztartzea sustatzen al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bizitza pertsonalaren, lanekoaren eta familiakoaren arteko oreka-forma berriak sustatzen ditu. • Zahartze aktiborako politikak sustatzen ditu, piramide demografikoaren kudeaketa laguntzeko. • Jaiotza-tasa estimulatzen du, era horretan jasangarritasun ekonomikoa eta soziala bermatuta. • Beste batzuk.
<p>Etengabeko ikaskuntza bultzatzen al du? Eta horretarako honako hau egiten al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aintzatespena sustatzen du. • IKTen erabilera sendotzen du arlo horretan sortzen dituzten aukerak baliatzeko. • Trebakuntza-eskaintza eskaeretara egokitzen du, arlo pertsonalekoetara zein profesionalekoetara. • Beste batzuk.
<p>ETEak nazioartekotzeko erraztasuna ematen al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enpresa-ingurunea hobetzen du. • Enpresa-taldeak sustatzen ditu. • Finantzazioa lortzeko aukera hobetzen du. • Garraio- eta logistika-sareen bitartez nazioarteko merkatu bakarrean modu eraginkorrean sartzea bermatzea. • Enpresak sortzeko administrazio-izapideak sinplifikatzen ditu. • Beste batzuk.

18. laukia. Zeharkako 4. Ikuspegirako ekarpena.

ZEHARKAKO 4. IKUSPEGIRAKO EKARPENA: Bizi-kalitatearen baldintzatzaileak.
<p>Kontsumo-ohitura jasangarriak garatzen laguntzen al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kontsumoak epe luzera zein laburrera, gure ingurunean zein hemendik kanpo duen eragina kontuan hartzen da, natur baliabideak birsortzeko aukera ahalbidetzeko. • Ondasun publikoen arazoizko erabilera baloratzen da horien balioa agerian uzteko. • Beste batzuk.
<p>Herritarren osasunaren baldintzatzaileei garrantzia ematen al zaie?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arreta prebentzioan jartzen da eta ez hainbeste osaketan. • Politikan osasuna barne hartzen da. • Beste batzuk.
<p>Hiri jasangarriagoen garapena bultzatzen al da?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gure udalerriak modu integralean ikusarazteko prozesuan aurrera egiten da, hiriak modu parte-hartzaile batez berriro diseinatuz. • Tokiko kultur adierazpenak sustatzen dira. • Beste batzuk.
<p>Instrumentuetan jasangarritasun-irizpideak sartzen al dira?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jasangarritasun-balioak sustatzen dira, herritarren eta beste eragile sozioekonomiko batzuen portaera arduratsua bilatuta. • Herri-administrazioaren ekintza eredugarria nabarmentzen da aldaketaren eragile moduan. • Ongizate, aurrerapen, bizi-kalitate eta abarren adierazleak garatzen aurrera egitea, Eustatekin elkarlanean. • Beste batzuk.

3.3 Ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-eraginen ebaluazioa

3.3.1 Hiru fasetako ariketa

Oraingo honetan ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-eraginak fasetan ebaluatzeko metodologia proposatzen da; lehenik *Oinarritzko ildo estrategikoak eta ekonomikoak* dokumentuan txertatzen da eta, ondoren, planaren dokumentuan bertan edo horren justifikazio-dokumentuetan.


Beste herrialde aurreratuago batzuek eraginen ebaluazioa edo aurreikuspena planarekin paraleloan egindako azterlan espezifiko gisa egiten dute. Sail sustatzaileen iritzia mendeko gelditzen da *paraleloko azterketa* horren formatua beren borondatez onartzea.

Nolanahi ere, ebaluazio-metodologiak ondoz ondoko hiru etapa ditu; lehenengoa modu natural batez lotzen da Oinarritzko ildo estrategikoen eta ekonomikoen fasearekin, eta hurrengo biak planaren garapenarekin berarekin:

- **Aurretiazko** fase bat³⁷; bertan garapen jasangarriko duen garrantzia planteatzen da garatzeko hiru ardatzen gainean aurreikusten diren eraginen arabera, eta, horren ondorioz, hurrengo analisiaren sakontasuna zehazten da (metodoa eta prozedura), horrelakorik beharrezkoa izanez gero. Fase horren emaitzak plana egiteko prestatze-lanarekin lotuta daude eta, ondorioz, *Ilde estrategikoak eta ekonomikoak* dokumentuan erantsi behar dira.
- **Eraginak neurtzeko** fase bat (kualitatiboa gutxienez); ezarritako irizpide guztiak barne hartu behar ditu, kausa-prozesuak eta eragindako kolektiboen (positiboki edo negatiboki) arteko banaketa azalduta, baita alderdi ekonomikoek, sozialek edo ingurumenekoek izan dezaketen eragin ezberdinagatik edo interes-taldeek arteko banaketa ezberdinagatik sor litezkeen gatazkak gardentasunez agerian utzita ere. Etapa hori **plana egiteko fasean** sartzen da, eta emaitzak erabilgarri egon behar dira herritarrek eta interes-taldeen **parte hartzeko edo horiekin egiaztatzeko jarduerak** gauzatu aurretik.
- **Ondorioen** amaierako fase bat; eraginen analisiaren oinarrian bere elementu batzuk zuzentzera eramanez behar du, beharrezkoa bada (planak garapen jasangarriari egindako ekarpena hobetzea), edo atzemandako eragin negatiboak *orekatzeko* neurri osagarriak eranstera. Ordezko neurrien eraginak aztertu badira, ebaluazioaren ondorioek globalki egokiena den aukera hautatzera eramango lukete. Etapa hori ere sartzen da aurrekoarekin batera **plana egiteko fasean**, eta emaitzak baliagarri izango dira planaren edukiak berrikusteko eta jasangarriagoak egiteko eta, ondorioz, hobeak eta interes-taldeen errazago onartzeko modukoak.

³⁷ Paraleloko azterketa bat eginez gero, aurretiazko fasean planaren eta haren helburuen deskribapena jasoko litzateke, Oinarritzko ildo estrategikoen eta ekonomikoen dokumenturako adierazitako moduan.

3. Irudia. Urratsak jasangarritasuna aztertzeko prozesuan



3.3.2 Aurretiazko analisia: Eraginen garrantzia eta haien azterketaren

irismena

Aurretiazko fasean (Planaren *Ibilbide-orria* markatzen duen oinarritzko informazioa) eraginen lehen identifikazioa eta balorazioa egin ahal izan da, eta ondorioz sail sustatzaileak aurreikusitako eraginen lehen zerrenda bat du³⁸. Ildo estrategikoen dokumentura bideratzen duen prestatze-fasean horien lehen balorazio subjektiboa egin behar da eraginen **garrantziari** buruzko aurretiazko ondorioa ateratzeko (A2 jarduera 3. eta hurrengo irudietan). Ariketa horren ondorioz, eraginei egin beharreko analisi mota erabakiko da, betiere baloratzeko eta erabakiak hartzeko oinarri sendoa edukitzeko.

Aurretiazko gomendioa: Maiz, gobernu-ekimenek jarduketa kopuru handia dakarte; horrek eraginak aztertzea zailtzen du, eta bideraezina ere egin dezake. Horrelakoetan, komenigarria izan daiteke ariketa neurririk garrantzitsuetan oinarritzea. Aurretiazko fasearen ariketak balio behar du eragin garrantzitsuak izan ditzaketen ekintza nagusiak identifikatzeko.

4. Irudia. Jasangarritasuneko eragina ebaluatzeko aurretiazko analisia



Fase honetan eraginen neurketa errazteko eta sistematizatzeko xedez, jasangarritasun-ardatz bakoitzeko irizpide kopuru txikia erabiltzea proposatzen da, baita irizpide bakoitzari eragin-*adierazle* bat ematea ere: Xedea ez da, oraingoz, **zenbakizko adierazleak** definitzea (hots, estatistika-datuak), bitarte ez oso zabal baten barruko *marnitude-ordenako adierazle subjektibo bat* ematea baizik (esaterako, +3 eta minus 3 arteko hein batean):

³⁸ Ariketa hori ez bada aurretiazko fasean egin, proposatutako galdetegiak erabil daitezke balizko ondorioen lehen zerrenda bat egiteko. Ikus aurreko 3. eta hurrengo laukiak. Baliteke lehen ariketa horrek ondorioztatzea ekimenak ez duela eragin nabarmenik jasangarritasunean; horrenbestez, ez luke zentzurik edukiko eraginak kalkulatzeko metodologia jarraitzeak berau prestatzeko hurrengo faseetan.

- +3: Eragin positibo oso adierazgarria
- +2: Eragin positiboa
- +1: Eragin positibo txikia
- +0: Aurreikusitako eraginik gabe
- -1: Eragin negatibo txikia
- -2: Eragin negatiboa
- -3: Eragin negatibo adierazgarria

Horretarako irizpideen zerrenda ugari erabil daitezke. Jarraian bi zerrenda zehatz proposatu ditugu; lehenengoan 5 irizpide daude jasangarritasun-ardatz bakoitzeko, eta bigarrenean 9³⁹.

19. laukia. Jasangarritasun-irizpideak

ZERRENDA LABURRA ^a	ZERRENDA LUZEA ^b
JASANGARRITASUN EKONOMIKOKO IRIZPIDEAK: E.1. Enpleguaren eta errentaren hazkundea. E.2. Ekoizpen-kapitala mantentzea (giza kapitala eta soziala). E.3. Lehiakortasuna eta ahalmen berritzailea hobetzea. E.4. Merkatuko prezioak hartzea. E.5. Etorrizuneko belaunaldiari finantza-karga transferitzea.	JASANGARRITASUN EKONOMIKOKO IRIZPIDEAK: E.1. Biztanleko BPG E.2. Azpiegitura eta zerbitzu eraginkorrak. E.3. Balio erantsiko inbertsioak. E.4. Zorpetze publikoaren jasangarritasuna. E.5. Baliabideen erabilera eraginkorra. E.6. Lehiakortasuna. E.7. Lan-potentziala. E.8. Ahalmen berritzailea, ekoizpen-ikerketak. E.9. Esparru arauemailea.
INGURUMENEN JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK: A.1. Habitat naturalak eta bioaniztasuna mantentzea. A.2. Baliabide berriztagarrien erabilera kontrolatzea. A.3. Baliabide ez-berriztagarrien erabilera geldiaraztea. A.4. Kutsadura geldiaraztea. A.5. Ingurumen-hondamendiak murriztea.	INGURUMENEN JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK: A.1. Bioaniztasuna. A.2. Klima. A.3. Isuriak. A.4. Landa-paisaia, erabili gabeko guneak eta kultur garrantziko guneak. A.5. Ura. A.6. Materialak, erakundeak, hondakinak. A.7. Energia. A.8. Lurzorua, lur goldagarria, emankortasuna. A.9. Ingurumen-arriskuak.
JASANGARRITASUN SOZIALEKO IRIZPIDEAK: S.1. Osasuna eta segurtasuna sustatzea. S.2. Pertsonen hezkuntza, garapen pertsonala eta nortasuna bermatzea. S.3. Kultura, ondare historikoa eta kapital soziala sustatzea. S.4. Legearen aurreko berdintasuna, segurtasun juridikoa eta eskubide-berdintasuna bermatzea. S.5. Belaunaldi barruko eta arteko elkartasuna sustatzea.	JASANGARRITASUN SOZIALEKO IRIZPIDEAK: S.1. Hezkuntza eta ikaskuntza. S.2. Osasuna, ongizatea, prebentzioa eta segurtasun juridikoa. S.3. Askatasuna, independentzia, gizabanakoaren nortasuna. S.4. Nortasun kolektiboa, kultura. S.5. Balio sozialak. S.6. Elkartasuna eta komunitate-zentzua. S.7. Irekitasuna eta tolerantzia. S.8. Gizarte-segurantza, txirotasun-tasa. S.9. Aukera- eta tratu-berdintasuna, parte-hartzea.

^a Suitzako Batzorde Federalaren irizpideak; ^b Suitzako Zuzenbide Konparatuko Erakundearen irizpideak.

³⁹ Suitzako Gobernu Federalak erabilitako metodologia hartzen da. Adierazleen zerrenda laburra Gobernu Federalak berak hartutako sistemari dagokio. Zerrendarik luzeena Suitzako Garapen Jasangarriko Sail Arteko Batzordearen irizpideari dagokio. Harreman zuzena dago bi zerrendon adierazleen artean. Gobernu Federalak, gainera, beste 8 adierazle gehiago erabiltzen ditu *kasu gatazkatsuak* nabarmentzen dituztenak.

Bietako edo zerrenda erabil dezakegu estimatutako ondorio guztiak aletzeko eta jasangarritasun-ardatz bakoitzerako batez besteko eragin-balioak eskuratzeko (irizpide guztientzat batez besteko balioak aurkitzeak ez dakarkio argitasun handiagorik analisiari). Sistema hori oso modu errazean kudeatu daiteke kalkulu-orri batekin⁴⁰. Nolanahi ere, ariketaren atalik zailena irizpide bakoitzaren garrantzia ardatz bakoitzaren barruan neurtzea da batez besteko balioak eskuratzeko⁴¹.

20. laukian zerrenda laburreko adierazleak deskribaturik daude, interpretatzeko baliagarria dena.

20. laukia. Zerrenda laburraren irizpideen deskribapena

<p>JASANGARRITASUN EKONOMIKOKO IRIZPIDEAK:</p> <p>E.1. Enplegua eta errentak sortzen dira beharizanen arabera, eraginak gune geografikoen eta gizarte-taldearen artean modu onargarrian banatzea bermatuta.</p> <p>E.2. Termino kuantitatiboetan eta kualitatiboetan giza kapitalean eta sozialean oinarrituriko ekoizpen-kapitalaren mailari eusten zaio.</p> <p>E.3. Ekonomiaren lehiakortasuna eta potentzial berritzailea handitzen ditu.</p> <p>E.4. Baloratzeko tresna nagusia merkatuko prezioak dira; horiek faktoreen urritasunari eta kanpokotasunei buruzko seinaleak egoki jasotzen dituzte.</p> <p>E.5. Kudeaketa publikoak ez du etorkizuneko belaunaldientzat uzten jardueren karga (zor publiko edo balio-galera modura).</p>
<p>INGURUMENEN JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK:</p> <p>A.1. Naturaguneak eta bioaniztasuna mantentzen dira.</p> <p>A.2. Baliabide berriztagarrien erabilera maila naturala edo birsortzearena baino txikiagoa izan behar da.</p> <p>A.3. Baliabide ez-berriztagarrien erabilera baliabide berriztagarrien garapen potentzialaren azpitik mantentzen da.</p> <p>A.4. Gizakiek eta ingurune naturalak pairatzen duten kutsadura maila kaltegarrien azpitik mantentzen da.</p> <p>A.5. Ingurumen-hondamendien eragina saihesten edo murrizten da, eta istripu-arriskuak kasu hauetan baino ez dira onargarriak: baldin eta gerta daitekeen egoerarik okerrean sortzen diren kalteak iraunkorrak ez badira, eta belaunaldi bateko aldia gaintzen ez badute.</p>
<p>JASANGARRITASUN SOZIALEKO IRIZPIDEAK:</p> <p>S.1. Gizakien osasuna eta segurtasuna babestu eta sustatzen dira.</p> <p>S.2. Pertsonen hezkuntza, garapen pertsonala eta nortasuna bermatzen dira.</p> <p>S.3. Kultura sustatzen da, baita ondare historikoa eta balio zein baliabide sozialak mantentzea eta garatzea ere gizarte-kapital orokorraren zati modura.</p> <p>S.4. Legearen aurreko berdintasun-printzipioa, segurtasun juridikoa eta aukera-berdintasuna. Genero-berdintasuneko printzipioa, gutxiengoen eskubideak eta babesa, eta giza eskubideen errespetua betetzen dira bereziki.</p> <p>S.5. Belaunaldien eta munduko herrien arteko elkartasuna estimulatu da.</p>

Iturria: Suitzako Batzorde Federala.

Garrantziaren azterketa edo analisi horrek ekimen jakin baterako irizpide sentikorrenak edo espezifikoak agerian uzteko ere balio du, eta horiek hurrengo etapan zehatzago baloratu –eta kuantifikatu– ahal izango dira (hala badagokio, garrantziaren adierazleekin edo estatistikako adierazleekin ebaluatu daitezkeen **azpiirizpideez** lagunduta) jasotako ekimen motaren **neurria**.

Planaren diseinuak helburu espezifikoak lortzea ahalbidetzen badu baina jasangarritasuneko beste bektoreren batekin gatazkan sartzen bada, hauxe aztertu behar dute arduradunek: horrekin jarraitzea zuhurra edo gomendagarria den, edo balantza orekatzea ahalbidetzen duten neurri orekatzaileak eransterik dagoen. Baina *azken batean erabakiak politikoak dira*: Ez dago formularik ebaluatzeko bektore batean lortzen diren irabaziek beste batean izandako galerak egoki konpentsatzen dituzten. Gizartean edo legean ezarritako gutxiengoko mailak urratzen dituzten kasuetan izan ezik, ez dago

⁴⁰ Beharrezko kalkuluak egiteko fitxategia ere jasotzen da.

⁴¹ Metodoa bereziki baliagarria da hainbat neurri alderatu nahi ditugunean; horrelakoetan, aukerak antola daitezke irizpide berberetan oinarrituta.

hierarkia objektiborik ebazpena *modu objektibo* batez lortzeko. Izan ere, prozedura horren onurarik handiena prozesuaren gardentasunean datza: ez du gatazkarik saihesten baina argi eta garbi azaltzen du zer aukera dauden, eta zergatik hartzen den aukera bat edo beste bat.

Batzuetan baliteke hiru ikuspegi edo dimentsioen arteko eraginak **ordezkaezinak** izatea (galera batzuk onartezinak izan daitezke, eta ezin dira konpentsatu beste bi dimentsioetan egindako hobekuntzen bitartez); horregatik, gomendagarria izan daiteke azaldutako beste irizpide osagarri batzuk erabiltzea (deskribatzaileak edo *literarioak*), modu eskematiko edo funtzio batez ere aurkez daitezkeenak. Taula honetan ageri dira.

21. laukia. Irizpide gehigarriak

1. Arazoaren egoera	Ekimenak dagoeneko maila kritikora iritsi den egoera larriagotuko al du?
2. Joera	Jadanik negatiboa den joera areagotuko al da?
3. Ez du atzerakorik	Ekimenak sortzen dituen eragin negatiboak itzultzea zaila edo ezinezkoa izan al daiteke?
4. Etorkizuneko belaunaldientzako karga	Eragin negatiboak geroago agertuko al dira? Etorkizuneko belaunaldiei gehiegizko karga ekarriko al die?
5. Arriskuak eta ziurgabetasunak	Ekimena arrisku larriekin (kalte handiak sortzeko aukera, gertatzeko aukera txikia badago ere) eta ziurgabetasun handiekin lotuta al dago (ez da zehazki ezagutzen aurreikusitako eraginek edo etorkizuneko joerek zer eragin izan ditzaketen)?
6. Gutxieneko mailak	Ekimenaren bidez gutxieneko baldintza ekonomiko, sozial edo ingurumenekoren bat urratzen al da (mugak edo atalaseak adibidez)?
7. Eragin espazialaren muga	Eragin negatiboek espazio-esparru zabal batean eragiten al dute?
8. Interes-gatazka	Planaren oinarritzko helburuen eta garapen jasangarriko bektoreen baten artean edo bektoreen artean gatazkarik al dago?

Iturria: Suitzako Batzorde Federala.

Hurrengo irudian (5.a) egindako balorazioak, ikuspegi sintetiko orokorra edukitzeko, kalkulu-orri batekin nola jaso litezkeen ikus dezakegu alegiazko irudi batean⁴².

5. Irudia. Garrantziaren azterketa: Emaitzen aurkezpen grafikoa irizpideen arabera

⁴² *Excell tool for conducting a relevance analysis and an outline sustainability analysis* liburutik hartua.

Baloratzeko irizpideak		Eraginaren dimentsioa							Ezezaguna	Garrantzi-erlatiboa	Zuhurgabetasuna				Oharrak
Zk.	Deskribapena	-3	-2	-1	0	1	2	3			Ezdeusa	Txikia	Ertaina	Handia	
Ekonomia															
Aukera 1	Ek1 Errenta eta Enplegua								20%	X					
	Ek2 Ekoizpen-kapitala								20%	X					
	Ek3 Lehiakortasuna eta berritzeko ahalmena								20%	X					
	Ek4 Merkatuko mekanismoak eta egiazko kostuak								20%	X					
	Ek5 Kudeaketa publikoa								20%					X	
Ingurumena															
Aukera 1	In1 Natur inguruneak eta bioaniztasuna								20%	X					
	In2 Baliabide berriztagarriak								20%	X					
	In3 Baliabide ez-berriztagarriak								20%	X					
	In4 Kutsadura								20%	X					
	In5 Ingurumen-hondamendien arriskua								20%	X					
Gizartea															
Aukera 1	Gi1 Osa Osasuna								20%	X					
	Gi2 Hezkuntza, garapen pertsonala eta nortasuna								20%	X					
	Gi3 Kultura eta ondare artistikoa								20%	X					
	Gi4 Legearen aurreko berdintasuna, segurtasun juridikoa eta eskubide-								20%	X					
	Gi5 Elkartasuna								20%	X					


6. Irudia. Garrantziaren azterketa: Emaitzen aurkezpen grafikoa irizpide osagarrien arabera

Irizpide gehigarriak		Arazoaren eskala				Ezezaguna	Ziurgabetasuna				Oharrak		
zk.	Deskribapena	Ezdeusa	Txikia	Ertaina	Handia		Ezdeusa	Txikia	Ertaina	Handia			
Kontu gehigarriak													
Aukera 1	1 Arazoaren estatua									X			
	2 Joera									X			
	3 Atzerazintasuna									X			
	4 Etorbizuneko belaunaldientzako karga											X	
	5 Arriskuak/ziurgabetasunak									X			
	6 Gutxieneko maila galdagarriak									X			
	7 Eraginaren espazio-mugapena									X			
	8 Interes-gatazkak									X			

7. Irudia. Garrantziaren azterketa: Emaitzen aurkezpen grafikoa jasangarritasun-bektoreen arabera

Batez besteko eragin haztatuak

Eraginak



Eraginaren balorazio ezezagunen kopurua (ziurgabetasun ertain edo handia)

Ekonomia	0
Ingurumena	0
Gizartea	0

Eragin-baloraziorik gabeko irizpide kopurua (eragin-ezezaguna)

Ekonomia	0
Ingurumena	0
Gizartea	0

Aukera 1

Iruzkina/Laburpena

Hauen informazioa jasotzea: eragin nagusiak, beharrezko analisi gehigarria, irizpide garrantzitsuen hautapena...

Aurreko analisiak egon daitezkeen *argi gorriak* (edo gutxienez, anbar-kolorekoak) identifikatzea ahalbidetuko du. Planaren eztabaida publikoari begira, komenigarria izan daiteke **aurreikusitako eraginaren neurketa zorrotzago bat** edukitzea, orain arte egindako balorazio subjektibotik harago joanda. Jasangarritasuna ebaluatzea eskatzen duen lege-esparrua badago, neurketa hori guztiz beharrezkoa izango litzateke (aurreko 3. irudiaren B2 etapari dagokio). Momentu horretan, sail sustatzailearen borondatezko erabakia da planaren diseinua hobetzeko edo interes-taldean aurrean hautatutako aukerak justifikatzeko.

Bi kasu horietan, aurretiko fasea amaitzeko, azterlan hori planteatu beharreko konplexutasunari eta sakontasunari buruzko gogoeta bat egin eta, horren gainean erabaki bat hartu beharko litzateke; izan ere, azterlana oso sinplea izan daiteke (beste kalkulu-orri bat), edo xeheki zehaztutako azterlan bat, informazioa biltzeko landa-lan handia eta analisi-metodologia oso sofistikatu bat (modelizazioa, kostu-onura analisia...) behar dituen.

Edozelan ere, ebaluazioko azterlan sinplea edo eraginaren azterlan zehatza egitea erabaki daiteke, horretarako honako hauetan oinarriturik:

- ✓ Zein da azterlanaren xedea: adibidez, ordezkotako proposamen artean hautatzea, eragina ebaluatzea edo planaren diseinua bera hobetzea ondorio horiek oinarri hartuta.
- ✓ Nor dira neurriak eragindako interes-taldeak, pentsatzekoa denez esku hartu beharko dutenak (kontsultako/partaidetzako fasean, adibidez).

- ✓ Hautemandako eraginen garrantzia.
- ✓ Erabilgarri dagoen informazio kopurua edo informazio gehigarria lortzeko kostua (eraginen ereduak egiteko, adibidez).

Lauki honetan bi aukerak konparatzen dira:

22. laukia. Eraginaren ebaluazio zehatzak eta sinpleak: Ezaugarriak

	<i>Ebaluazio sinplea</i>	<i>Ebaluazio zehatza</i>
Aztergaia	<ul style="list-style-type: none"> • Eragin txikiko ekimenak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ekimen konplexuak eta epe luzerakoak, eragin askotarikoak eta adierazgarriak dituztenak.
Analisiaren irismena	<ul style="list-style-type: none"> • Dauden adierazleetan oinarriturik estimazio eskematikoa egiten da, kalkulu-orriak erabiliz, adibidez. 	<ul style="list-style-type: none"> • Analisi osoa eta sakona, planaren ezaugarriei egokitutako irizpide- eta adierazle-sistema bat erabiliz.
Kontsumitutako denbora eta baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> • 3 eta 7 lanegun bitartean. 	<ul style="list-style-type: none"> • 15 eta 25 egun bitartean, eta sarritan, askoz gehiago.
Ebaluazioan egindako lanak	<ul style="list-style-type: none"> • Dauden dokumentuen eta datuen bigarren mailako analisia. • Ez dago ia kalkulurik. 	<ul style="list-style-type: none"> • Datuak <i>ad hoc</i> biltzea (beharrezkoa bada) dauden bigarren mailako datuak osatzeko. • Kalkulu eta estimazio zehatzak.
Jasangarritasun-analisiaren helburu potentziala	<ul style="list-style-type: none"> • Lehen mailakoa: Planaren <i>ex post</i> ebaluazioa erraztea. • Bigarren mailakoa: Planaren hainbat alternatiba konparatzea, eta plana hobetzeko tresna eta laguntza gisa balio izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Plana hobetzeko laguntza eta tresna, egiteko prozesuaren hasieratik etenik gabe gauzatuta edo programaren kontzeptuzko garapenaren funtsezko une batzuetan errepikaturik (ikaskuntza). • Alternatibak konparatzea: • Planaren <i>ex post</i> ebaluazioa (implementatu ondoren).
Xehetasun-azterketa osagarrien beharra	<ul style="list-style-type: none"> • Ezohiko kasuetan bakarrik. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lortutako aurretiko emaitzak eskatu bezainbeste.
Dokumentazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Laburra eta hitz gutxikoa (kalkulu-orri batetik ateratzen dena, adibidez). 	<ul style="list-style-type: none"> • Argitaratzeko eta zabal hedatzeko moduko dokumentazio zehatza.

Hainbat metodo aplikagarri edo erabilgarri daude, kasuak kasu:

- Erabilgarri dauden estatistiken analisia.
- Informazio berria sortzeko inkestak.
- Tailerrak eta elkarrizketak adituekin.
- Ereduen aplikazioa.
- Bestelako metodo kuantitatibo batzuk (kostua-etekina analisia, kostua-eraginkortasuna analisia, irizpide anitzeko analisia).

Oro har, **agertokiaren analisia** egitea ere gomendagarria da egoeraren joera-bilakaera ikusteko (i) esku-hartzerik gabe –erreferentzia-puntua edo abiapuntuko egoera, alegia– eta (ii) esku-hartzearen ondorioz. Analisi hori konplexua eta kostu handikoa da, eta berez lotura handiagoa du planaren oinarritzko helburuekin jasangarritasun-irizpideekin baino.

Azkenik, aurretiazko azterlanaren azken etapan (A3) honako hau ere erabaki behar da: analisi-prozesua nork eta nola egiten duen (3. irudiaren B eta C etapak), finantza-baliabideak eta pertsonalak, baita horretarako dagoen denbora ere.

Ebaluazioaren egilea nor den ez da garrantzirik gabeko gaia. Oro har, plana gauzatzeaz arduratu behar den sailak berak egin behar du; halere, eraginak sail askori dagozkenez, agian komeni da batzorde zehatz bat sortzea eragin-azterketaren jarraipena egiteko.

Interes-taldeen partaidetza eta kontsultarako prozesua izan daiteke azterlan horiek (zehatzak edo ez, kasuaren arabera) edukitzeko *une* egokia: Analisi-prozesuan sortutako dokumentazioa abiapuntu bikaina da alderdi interesdunei azalpenak emateko eta partaidetza informatua askoz baliagarriagoa izan dadin, era horretan erabaki politiken **gardentasunaren** balioa handituz⁴³.

3.3.3 Eraginen analisia

Analisiaren fasea planaren azterlanen garapenarekin batera gertatzen da. Hiru jarduera nagusi barne hartzen ditu:

- ✓ Eraginen kausaltasun-prozesuaren funtsezko azalpena (mapa/eraginen matrizea).
- ✓ Eraginen kalkulua.
- ✓ Eraitzen aurkezpen laburra.

Planaren eraginak egoki baloratzeko, horien eta planaren edo haren neurrien aplikazioaren arteko kausa-loturak argi eta garbi azaldu behar dira. Planaren aplikazioak eraginak hiru maila eta une ezberdinetan sortuko ditu:

- Planaren emaitza zuzenen mailan (*output level*): planaren edo haren neurrien aplikazio zuzenaren ondorioa dena (diru-laguntzak, jarduerak, eraikitako errepide-kilometroak...).
- Planak helburu-taldeetan dituen ondorioen mailan (*outcome level*): Aldaketak helburu-taldeetan portaeretan planaren edo haren neurrien aplikaziora doitzearen edo hari erantzutearen ondorioz (estimulatzeagatik edo desaktibatzeagatik: sortutako enpresak edo enpleguak, egindako ikastaroak, garraio publikoaren erabilera, etab.).
- Azken eraginaren mailan: Programaren azken helbururako ekarpena (lehiakortasuna hobetzea, airearen kalitatea, klima-aldaketa, etab.).


Era berean, eraginak nolakoak diren ere bereizi behar da:

- Oinarrizkoak (zuzenak) edo bigarren mailakoak (eraginak)
- Aldi baterakoak edo iraunkorrak
- Jarraituak edo behin bakarrik gertatzen direnak
- Berehalakoak edo denboran zeharrekoak

Eraginen mapa/matrizea ikustea garrantzitsua da azterlanaren irismena, adierazle egokiak eta, azkenik, metodologia zehazteko.

⁴³ Suitzan, adibidez, Gardentasunari buruzko Legea dela kausa, nahitaezko urratsa da.

8. Irudia. Eraginen analisi-faserako etapak



Gida honetan ebaluazio sinpleak egitea baino ez dago jasota, edozer ekimen motari aplikagarriak oro har, eta horrelakoetan, kalkulu-orria (aurreko faseko garrantzi-analisan erabil zitekeenaren antzekoa) tresna egokia da. Nolanahi ere, eragin bat handitzat hartzen bada, zehatz-mehatz aztertu beharko da, ebaluatu ahal izateko beharrezko informazioa emanda.

Helburua garrantziaren analisia modu errazean osatzea da, irizpide garrantzitsuetarako adierazle kuantitatibo egokien kopuru txiki bat kalkulatu. Irizpideekin bezalaxe, adierazleak haztapena ere kontu zaila baina beharrezkoa da irizpide garrantzitsu bakoitzarentzat balio sintetikoa lortzearen. Jarduera horrek baliabide asko behar izaten ditu, eta bere balioa ebaluazio-ariketatik aurreikusten dugun baliagarritasunarekin alderatu behar dugu.

Fasea bukatzeko, lortutako emaitzak modu labur batean aurkeztuko dira. Emaitza horiek adierazle kopuru handian banatzen baditugu, ikuspegi orokorra lausotu daiteke. Egokia izaten da emaitzak jasangarritasun-ardatzetan eranstea; horretarako, berriro ere, banakako emaitzak haztatze sistema bat ezarri behar dugu. Haztatze bakoitzean balio-judizio bat ere egiten da, erantsitako emaitzak alda ditzakeena. Ez dago arau unibertsalik eta haztatze-sistema gardena izatea da errezetarik onena; horrekin batera, sentikortasun-analisi bat ere beharrezkoa da azken emaitza, erabilitako haztapenen arabera, sendoa edo aldakorra den agerian uzteko⁴⁴. Emaitzen aurkezpen grafikoak ondorioak hautematea erraztuko du.

3.3.4 Amaierako ondorioak


Eraginen laburpenak ondorio batzuetara iristea ahalbidetu behar du:

⁴⁴ Kostu handiagoko sistemak eraginak termino ekonomikoaren arabera azter ditzakete (eta hor, zalantzarik gabe, beste hipotesi eta balio-judizio batzuek esku hartzen dute).

- ✓ Azterlanaren bitartez saihestu beharreko eraginak eta egon daitezkeen gatazkak zein diren identifikatu behar dugu.
- ✓ Gatazka horiek egoteak gida gisa balio behar du planaren barruan konpentsatzeko neurriak proposatzeko edo jarduketak, emaitza globala hobetzearren, berriro diseinatzeko. Hobekuntzak planteatzen zailak izan daitezke planak oso jarduketa orokorrak aurkezten baditu.
- ✓ Eragin negatiboak arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik saihesterik ez badago, horren berri eman behar du analisiak.


Ariketa horrek balio ere egiten du eragineko edo *ex post* ebaluazioko azterlanak zuzentzeko.

9. Irudia. Eraginen analisiaren ondorioak



Hurrengo irudian prozesu osoa ikus dezakegu:

10. Irudia. Eraginen analisia. Ebaluazio-prozesua



A.4. GOBERNU PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA: 2020RAKO EGJE-REN JASANGARRITASUN ADIERAZLEAK

Planetan aginte-koadroaren inguruko jarraipen-sistema bat ere jaso behar da; bertan adierazle estrategikoak eta helburuen neurketarekin eta jarraipenarekin lotutako beste batzuk biltzen dira.

Planaren helburuak adierazteko orduan, 2020rako EGJEn helburuak lortzeko egindako ekarpena ezarri behar da, eta aginte-koadroaren adierazleek, ahal den neurrian, lotura-puntuak ere zehaztu behar dituzte 2020rako EGJEn aginte-koadroarekin eta jarraipen-adierazleekin. Bi taula hauetan bi horiek erlazionatzen dira.

1. taula. 2020rako EGJEn Aginte Taula

Esparrua eta adierazle nagusia	EB-27		Espainia		Euskadi	
	Gaur egungoa ⁴⁵	2020rako helburua	Gaur egungoa	2020rako helburua	Gaur egungoa ⁴⁶	2020rako helburua
Enplegua						
Langabezia-tasa (20-64 urte)	% 69,1	% 75	% 63,7	% 74	% 68,5	% 75
I+G+B						
BPGtik I+G+Bra bideratutako gastu publikoa eta pribatua	% 2,01	% 3	% 1,38	% 3	% 2	> % 3
Energia eta klima-aldaketa						
Berotegi-efektuko gasen isuriak ⁴⁷	- % 11,3	- % 20	+ % 27	- % 20 ⁴⁸	+ % 6	- % 20 ⁴⁹
Berriztagarrien proportzioa energiaren azken kontsumoa	% 10,3	% 20	% 10,7	% 20	% 6,5	% 17
Energiaren kontsumo-aurrezpena		% 20		% 25,2 ⁵⁰		% 20
Hezkuntza						
Eskola-uzte goiztiarraren tasa	% 14,4	% 10	% 31,2	% 15	% 12,6	% 10
Goi mailako ikasketak dituzten 30-34 urteko biztanleen proportzioa	% 32,3	% 40	% 39,4	% 44	% 41	> % 40
Pobrezia eta gizarte-bazterketa						
Pobrezia edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden biztanleak	113,7 mil. % 23,1	93,7 mil.	10,6 mil. % 23,4	9,2 mil.	417.000 % 19,3	< % 15

⁴⁵ 2009. urtea

⁴⁶ 2008. urtea

⁴⁷ 1990 erreferentziako oinarri-urtea, gaur egungo urtea 2008

⁴⁸ Sektore ez lausoak, eta 2005. urtearekiko

⁴⁹ Erreferentziako urtea 2005

⁵⁰ 2020rako joerako kontsumoaren gaineko aurrezkia, intentsitate energetikoaren % 2ko urteko murrizketaren baliokidea.

2. taula. Politiken jarraipen-adierazleak

	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	IRISMENA	JOERA
1. helburu estrategikoa. Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea.				
I-1.1	IUS	Berrikuntzaren Europako Indizean kokatzea (IUS, Innovation Union Scoreboard).	EGJE 2020 adierazle propioa	↗
I-1.2	Baliabideen produktibitatea	BPGren eta Materialen Etxeko Kontsumoaren arteko zatidura (€/kg).	I. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↗
I-1.3	Biztanleko BPG	BPGren eta biztanle kopuruaren arteko zatidura.	I. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↗
I-1.4	Irekidura maila	Nazioarteko merkataritzaren ehunekoa BPGren aldean.	EGJE 2020 adierazle propioa	↗

2. helburu estrategikoa. Euskadi erabat integratzailea den eta enplegu, hezkuntza, prebentzio zein elkartasun arloetan kohesionatuta dagoen herrialde gisa sendotzea.

I-2.1	Errenta pertsonalaren kontzentrazio-indizea	Errenta pertsonal eskuragarriaren Giniren indizea.	EGJE 2020 adierazle propioa	↘
I-2.2	Gizarteratze maila	Babesteko, gizarteratzeko eta pertsonen autonomia bermatzeko programetan parte hartzen duten pertsonen ehunekoa arrisku-egoeran dauden pertsonen aldean.	EGJE 2020 adierazle propioa	↗
I-2.3	Gizarte-eraberritasunak heriotza-tasan	Pertsonen heriotza-tasa eta 20 eta 64 urte bitartekoen oinarritzko ikasketak goi mailako ikasketen aldean.	EGJE 2020 adierazle propioa	↘
I-2.4	Gazteen okupazio-tasa	20 eta 29 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa	EGJE 2020 adierazle propioa	↗

3. helburu estrategikoa. Gizarte babeseko sistemak indartzea, pertsonengan garapen harmoniko, osasungarri eta bidezkoa bermatzeko.

I-3.1	Jaiotza-tasa	Jaiotza kopurua biztanleria osoaren aldean, milatan.	EGJE 2020 adierazle propioa	↗
I-3.2	Zor publiko gordin kontsolidatua	Euskal administrazioen zor publiko gordin kontsolidatuaren ehunekoa BPGren aldean	EGJE 2020 adierazle propioa	↘
I-3.3	Gizarte-gastu publikoa	Hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan egindako gastu publikoaren ehunekoa BPGren aldean.	EGJE 2020 adierazle propioa	↔

	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	IRISMENA	JOERA
4. helburu estrategikoa. Gure natur baliabideei eta biodibertsitateari eustea, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatuta.				
I-4.1	Eraikitako eremuak	Artifizializatutako azaleraren ehunekoa azalera osoaren aldean.	II. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↔
I-4.2	Landako biztanleria	Biztanleriaren ehunekoa hirigunerik gabeko eta 2000 biztanle baino gutxiagoko guneetan.	EGJE 2020 adierazle propioa	↔
I-4.3	Hiri-hondakinak	Biztanle bakoitzak sortzen dituen hiri-hondakinak.	II. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↗
I-4.4	Hegazti arrunten indizea	Haztegiko hegaztien, basoko hegaztien eta hiriko hegaztien indizea.	I. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↗
I-4.5	Arriskuan dauden espezieak	Arriskuan dauden espezien ehunekoa, espezie guztien aldean.	EGJE 2020 adierazle propioa	↗

5. helburu estrategikoa. Jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna minimizatzea, berotegi efektuko gas-isuriak murriztea eta klima-aldaketaren eraginak arintzea.

I-5.1	Mendekotasun energetikoa	Energia-inportazioen ehunekoa barneko kontsumoaren aldean.	II. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↗
-------	--------------------------	--	--------------------------------------	---

6. helburu estrategikoa. Lurralde barruan egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratuko eredu jasangarriago bat garatzea.

I-6.1	Garraioak kontsumitzen duen energia	Garraioak kontsumitzen duen energiaren ehunekoa BPGren aldean.	EEDS (b)	↗
I-6.2	Merkantzien garraioa errepidetik	Errepide bidezko merkantzien garraioa garraio guztiaren aldean.	EGJE 2020 adierazle propioa	↗
I-6.3	Bidaiarien garraio pribatua	Bidaiarien garraio pribatuaren ehunekoa garraio guztiaren aldean.	EGJE 2020 adierazle propioa (c)	↗

	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	IRISMENA	JOERA
7. helburu estrategikoa. Kalitatezko hezkuntza- eta balio-sistema sortzea, eskola-arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta, hezkuntza- zein trebakuntza-edukien aldetik, lan-merkatuak eta gizarteak bizitza osoan eskatzen dituzten gaitasunetara egokitua, jasangarritasuna arlo guztietan barne hartuta.				
I-7.1	PISA ebaluazioa	Batez besteko errendimendu orokorra irakurketan, zientzietan eta matematiketan.	EGJE 2020 adierazle propioa	↗
I-7.2	Argitalpen zientifikoak	Euskal unibertsitateetan egindako ISI (Institute for Scientific Information) argitalpen kopurua.	EGJE 2020 adierazle propioa	↗
I-7.3	Euskal kultura nazioartean hedatzeko laguntza	Euskal kultura nazioartean hedatzeko jardueretarako aurrekontua.	EGJE 2020 adierazle propioa	↗
I-7.4	Etengabeko ikaskuntza	Trebakuntza-jardueraren bat egiten ari den 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen ehunekoa.	EGJE 2020 adierazle propioa	↗

8. helburu estrategikoa. Berritzailea, eraginkorra, abegitsua eta herritarrentzat gardena den administrazio publiko bat ezartzea.

I-8.1	Hauteskundeetako parte-hartzea	Hauteskundeetan parte hartzea (Europakoetan, nazionaletan, autonomikoetan eta tokikoetan).	EGJE 2020 adierazle propioa (c)	↗
I-8.2	Administrazio elektronikoa	Telematikoki egin daitezkeen administrazio-prozesu osoen ehunekoa prozesu guztien aldean.	EGJE 2020 adierazle propioa	↗
I-8.3	Administrazioarekiko asegabetasuna	Arartekoak administrazioari buruz jasotako kexa kopurua.	EGJE 2020 adierazle propioa	↘

9. helburu estrategikoa: Euskadik Milurteko Helburuak betetzen eta, oro har, herrialde txirolek garapen jasangarria lor dezaten laguntzea.

I-9.1	Garapenerako laguntza ofiziala	Garapenerako emandako laguntza ofizialaren ehunekoa BPGren aldean.	I. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↗
I-9.2	CO ₂ isuriak biztanleko	Tona CO ₂ isurpen biztanleko.	II. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↘

- (a) EDS – UE: Europar Batasuneko Garapen Jasangarriko Estrategia
 (b) EEDS: Espainiako Garapen Jasangarriko Estrategia
 (c) Europar Batasuneko estrategian oso antzeko adierazle bat dago

A.5. EX POST EBALUAZIO TXOSTENA

Programa baten jasagarritasunaren ebaluazioa programaren ebaluazioaren barruan sartzen da. 23. laukian *Orientabideak* dokumentuak ebaluazio-txostenentzat gomendatzen duen gidoi orokorra jasota dago.

23. laukia. Ex post ebaluazio baten fitxa sinoptikoa

Ex post ebaluazio-txostenean ebaluatutako esku-hartzearen deskribapen laburra jaso behar da (ebaluazioaren motibazioa, xedea, helburu espezifikoak eta irismena). Baina batez ere, ikasitako emaitza, ondorio, gomendio eta irakaspen garrantzitsuenak argi eta garbi aurkeztu behar ditu.

1.- SARRERA

Edukiaren aurkezpena eta ebaluazio-txostenaren egitura.

2.- EBALUATUTAKO ESKU HARTZEEN DESKRIBAPENA

Helburuen xehetasun zehatza, programaren teoria (aurre egin nahi zaien arazoak, beharrak; neurriak, ekintzak...), aurrekariak, antolaketa eta kudeaketa, helburu-hartzaileak, esku hartzeko sektorea edo esparrua, esku hartzen duten eragileak, kokaturik dagoen esparrua, kronograma eta dagoen gauzapean-fasea, aurrekontua eta bideratutako baliabideak.

3.- EBALUAZIOAREN METODOLOGIA, HELBURUAK ETA IRISMENA

Ebaluazioa dakarren motibazioaren azalpena, horren irismena, helburuak eta tipologia. Ebaluazioak erantzun dituen galderak eta horretarako aztertutako ebaluazio-irizpideak zehaztuko dira.

Ebaluazio-txostenak informazioa biltzeko erabiliko (ikerketa-teknika kualitatiboak eta kuantitatiboak) metodologia eta informazio-iturriak (dokumentazioa, informatzaileak, gakoak, literatura...) behar beste zehaztasunez deskribatu beharko ditu. Gainera, elkarrizketatuen eta aztertutako dokumentuen zerrenda osoak ere jaso ahal dira, betiere parte-hartzaileen pribatutasuneko eta konfidentzialtasuneko eskubidearen aurkakoa ez bada.

Bertan ebaluazioaren testuingurua ere azaldu ahal da, emaitzak nola erabiliko diren, eta bukatutakoan hartuko diren erabakiak.

4.- JASOTAKO INFORMAZIOAREN ANALISIA

Bertan ebaluazioaren helburuen berri eman nahi da. Hartarako, txostenaren zati handiena jasotzen du, eta bertan galderei eta ebaluatutako irizpideei erantzun behar zaie landa-lanean zein testuingurua eta dokumentuak aztertzeko etapan bildutako informazioaren analisiatik abiatuta.

5.- EBALUAKETAREN EMAITZAK

Ebaluazioaren galderei erantzun ondoren agertutako ebidentziak, eta lantalde ebaluatzaileak ezagutza objektiboan eta teknikoan oinarriturik horien gainean plazaratutako interpretazioak.

Ebaluatzen ari den esku-hartzeari egotzitako emaitzak interesa duten alderdien ekarpenekin lotu daitezke.

6.- ONDORIOAK

Ebaluatutako irizpideen analisia oinarri hartuta esku-hartzeari buruz egindako judizioak, arrakasta-faktoreei edo antzemandako arazoei dagokienez; horretarako bildutako informazioaren interpretazioetan oinarriturik, logika objektiboari eta sistematikoari jarraiki.

Ondorioak ebaluatzen ari den esku-hartzerako gai garrantzizkoetan oinarritu behar dira.

7.- GOMENDIOAK

Esku-hartzearen eraginkortasuna eta kalitatea handitzeko asmoz ebaluatutako esku-hartzearen gainean egindako hobekuntza-proposamenak, horretarako haren indarguneen eta aukeren balioa agerian utziz eta ahulguneen balizko zuzenketak, irtenbideak edo alternatibak eskainiz.

Gomendioak egindako ebidentzian eta analisisian oinarrituta egon behar dira, eta, garrantzizkoak eta errealistak izan behar dira; gainera, ekintzarako lehenetsunak ezarri behar dituzte.

8.- HARTUTAKO IRAKASPENAK

Esku-hartzea ebaluatu ondoren antzemandako jardunbide egokiak, etorkizuneko jarduketetan erabil daitezkeenak. Berehalako esku-hartzea gainditzen duten orokortasunak jaso behar dituzte, eduki lezaketen garrantzirik handiena nabarmenduta.

9.- ERANSKINAK

Eranskin gisa honako hauek gaiara daitezke, besteak beste: baldintza teknikoaren agiria eta ebaluazio-proposamena aukeratzeko irizpideak: erabilitako bibliografia-iturriak, informazioa biltzeko erabilitako tresnen ereduak (gidoia elkarriketen edo eztabaida-taldeen, galdetegien... kasuan).

Egoki iritzi gero, bertan egileek kontsultatzeko orduan eskainitako iritziak edo interpretazioak ere jaso daitezke:

- Planaren arduradunak
- Esku-hartzearen kudeatzaileak
- Planaren finantza-erakundeak
- Erakunde laguntzaileak
- Onuradun zuzenak edo zeharkakoak
- Herritarrak oro har
- Antzeko esku-hartzeen beste profesional eta arduradun batzuk
- Sektoreko adituak

Programa baten ebalazioak helburu ugari izan ditzake, baina, oro har, honako hauek:

- Programaren emaitzak neurtzea.
- Plana hedatzea justifikatzen zuten itxaropenak bete diren baloratzea (bere eraginkortasuna neurtzea).
- Programaren kudeaketari buruzko irakaspenak hartzea etorkizunean hobetu ahal izateko.
- Eta, azkenik, baliabideak eraginkortasunez bideratu diren neurtzea, lortutako emaitzak eta horretarako kostuak alderatuta (eraginkortasuna).

Programa batek Euskadiko jasagarritasunari egiten dion ekarpenaren gaineko *ex post* ebaluazioa beste handiago baten barruan sartzen da. Kasu honetan helburu hau dago:

- Oro har, planaren eragin ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak ezagutzea.
- Zehazkiago, planak 2020rako EGJEn helburuei benetan zer ekarpen egin dien ebaluatzea.

Eta plana diseinatzeko prozesuaren ikuspegitik, helburu hauek daude:

- Planak izandako eragin ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak *ex ante* ebaluazioan egindako estimazioarekin bat datozen egiaztatzea, edo desbiderapenak gertatu diren eta, ondorioz, komeni den (i) konpentsatzeko neurriak hartzea –planaren bitarteko ebaluazioa bada–, (ii) planaren etorkizuneko edizioetan diseinu-aldaketarik egitea.
- Horrekin batera, ebaluatu behar da jasagarritasunaren beste bi printzipioak (lankidetzak/koordinazioa administrazio publikoekin eta interes-taldeen egiazko parte-hartzea) behar bezala egin diren.

Nola erantsi jasagarritasun-alderdiak ebaluazio-txostenetan?

Asmoa da ebaluazioak ekimenak prestatzeko prozesuan jasangarritasun-irizpideak zehaztutako hiru osagaiak barne hartzea, horretarako jasangarritasun-alderdien ebaluazioan bakarrik oinarriturik, hala bitarteko ebaluazioan (lau urteko programa baten funtzionamenduan hasi eta bi urtera), nola programa burutu ondoko amaierako ebaluazioan:

1. Prestatzeko prozesuan egon den erakundeen arteko egiazko lankidetzeta eta koordinazioa.
2. Gizarte-eragileen eta interes-taldeen parte-hartzea, eta diseinua egiteko orduan parte-hartzea nola gertatu den.
3. Ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-eraginak.

Lehen bi osagaiak baloratzeko helburua zentratzeko hainbat galdera dituzten bi lauki erantsi ditugu.

24. laukia. Erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazio mailaren balorazioa zuzentzeko galderak

Parte-hartzea	Planaren emaitzan nahasita edo interesatuta dauden gobernu-sail guztiek hartu al dute parte prozesuan? Hasierako fasetik? Zer fasetan? Planaren emaitzan nahasita edo interesatuta dauden foru- eta udal-administrazioek hartu al dute parte prozesuan? Hasierako fasetik? Zer fasetan? Partaidetzeta jarraitua izan al da prozesuan zehar? Absentzia garrantzitsuak. Kausak eta ondorioak.
Koordinazioa	Herri Administrazioen beste erakunde batzuen iragandako ekimenen edo indarreko edo aurreikusitako ekimenen emaitzak kontuan hartu al dira? Ekimenak <i>ex ante</i> edo <i>ex post</i> eragin ditzakeen administrazio zentralaren edo autonomia-erkidegoen ekimenak kontuan hartu al dira? Deskoordinazioko balizko instantziak. Kausak eta ondorioak.
Lankidetzeta	Baterako lantalde bat eratu al da, programatutako sekuentziak, eguneko gai-zerrenda eta ondorioak dituen? Informazioa aurretiaz landu al da behar beste denboraz eta banaketaz? Parte-hartzea aktiboa izan al da? Lankidetzaren ondorioz hasierako proposamenak aldatu dituzten proposamenak aurkeztu al dira? Garapen Jasangarriko Bulegoarekin lan eta lankidetzako dinamika bat sortu al da?
Gogobetetzea	Parte hartu duten erakundeen artean adostu al da garatutako ekimena? Parte hartu duten erakundeen poza edo eragozpenak egiaztatu al dira (ebaluazio-fasean edo alde zuzenetik)? (i) prozesuarekin; (ii) amaierako proposamenarekin.
Jarraipena	Plana jarraitzeko edo monitorizatzeko instantziaren bat ezarri al da sustatzaileaz gaineko beste erakunde publiko batzuen partaidetzarekin?
Ondorio globala	Prozesuaren balorazioa. Hartutako irakaspenak. Hobetu daitezkeen atalak.

25. laukia. Interes-taldeen partaidetzaren balorazioa zuzentzeko galderak

Parte-hartzea	Dagokien interes-talde guztiak hartu al dira kontuan? Guztiak erregularitasunez parte hartu al dute? Horrela izan ez bada, zergatik? Behar beste denbora eman al zaio parte hartzeko prozesuari? Parte-hartzea zer fasetara zabaldu da? Hainbat ekimen-aukera planteatu al dira? Funtsezko fase edo mugarri guztiak bete al dira? Komunikazioa egokia izan al da? Aldez aurretik dokumentazio/informazio garrantzitsua eman al da jakinaren gainean daudela parte har dezaten? Aditu-taldeekin lan egin al da?
Entzute aktiboa	Parte-hartze aktiboko prozesua egon al da planaren edukietan eragiteko aukerarekin? (<i>versus</i> parte-hartze berreslea) Interes-taldeen egindako proposamenen bat erantsi al da planaren testuan? (arazoan identifikazioa, proposatutako ekintzak...)
Gogobetetzea	Interes-taldeen gogobetetzea baloratu al da? (i) prozesuarekin; (ii) amaierako proposamenarekin.
Jarraipena	Plana jarraitzeko edo monitorizatzeko instantziaren bat ezarri al da gizarte-eragileen eta/edo interes-taldeen partaidetzarekin? Planaren ezarpenari buruzko etengabeko informazioko mekanismoren bat al dago?
Ondorio globala	Prozesuaren balorazioa. Hartutako irakaspenak. Hobetu daitezkeen atalak.

Eraginen ebaluazioa prestatzeko fasean egindako planteamendurekin eta analisi motarekin bat etorriko da. Heltzeko hiru modu proposa daitezke eskuliburu honen ikuspegiari jarraiki:

1. Hurbilketa deklaratu arin gisa, oinarrizko informazioko fitxa egiteko proposatutako galdetegiak erabilia (ikus aurreko 3. eta hurrengo laukiak). Oraingoan, dena den, erantzuna gertatutako eragin edo ondorioetan zentratzen da, ez aurreikusitakoetan. Planteamendu hori nahikoa da eragin txikiko ekimenentzat edo *ex ante* ebaluaziorik ez dutenentzat.
2. Irizpide anitzeko ebaluazioko ariketa gisa, aurrerapeneko dokumentuaren fasearentzat proposatutako metodoaren urratsak berriro eginda (ikus aurreko 3.3 paragrafoa), bereziki fase horretan egin ez bada. *Ex post* ariketa errepikatzeak *ex ante* eta *ex post* ebaluazioen arteko kontraste gisa balio du, baldin eta irizpide anitzeko ebaluaziorik ez bada egin. Emaiza ezberdinak badaude (adibidez, era bateko edo besteko eragin negatibo handiagoak) zuzenketa-neurriak hartzera eraman behar du (bitarteko ebaluazioei dagokienez), edo planaren etorkizuneko edizioetan ekintzak zuzentzeko proposamenak egitera.
3. Eraginaren analisi espezifiko gisa berau esanguratsua izan den kasuetan.

Azkenik, planak 2020rako EGJEn helburuak lortzeko egindako ekarpenaren balorazio espezifiko ere jaso behar da, ekimenean espezifiko esleitutako jasagarritasun-adierazleen jarraipena eginda. Analisi horrek hauxe hartu behar du kontuan:

- ✓ Eraginaren kausaltasunaren aurretiko analisia egitea ezinbestekoa da adierazleetan ikusitako aldaketak planaren ondorio direla ziurtatzeko.
- ✓ Adierazleen irismena gorabehera, eraginak sarritan txikiak dira, eta ezin dira hauteman adierazle globalen bitartez (horrenbestez, komeni da planaren helburu-taldeei aplikatutako adierazleak ere jasotzea).

26. laukia. Helburu eta adierazle estrategikoei egindako ekarpenaren ebaluazioa zuzentzeko galderak

Nahasitako 2020rako EGJ Eren helburuak	Planak zer ekarpen egin du helburu estrategikoak betetzeko? (ikus 6. eta hurrengo laukiak)
Ekimenean barne hartu diren lotutako adierazleak	Helburu estrategikoei lotutako adierazleak aukeratu al dira? Adierazleen hasierako balioekin batera, epe laburrean/ertainean/luzean lortu beharreko helburuak edo xedeak jaso al ziren?
Lortutako emaitzak	Emaitzen eta helburuen arteko kontrastea: <ul style="list-style-type: none"> • Planaren emaitza zuzenak (operatiboak) • Helburu-taldearen gaineko emaitzak • Eragina (helburu estrategikoaren gaineko intzidentzia) Planaren alderdi ekonomikoan, sozialean eta ingurumenekoan aurreikusi gabeko desorekak ikusten al dira?
Emaitzen justifikazioa	Ekimenak ezarritako xedeak lortzen nola lagundu duen azaltzea. Desadostasunik badago, kausen interpretazio bat egitea justifikatzeko: <ul style="list-style-type: none"> • Diseinuaren edo kudeaketaren (implementazioa) arazoa al da? • Neurrien diseinua desegokia al da? • Plana arrakastatsu gerta dadin kritikoak diren kasuek edo baldintzek huts egin al dute? • Ekimenak ez al zuen behar beste baliabiderik aurreikusitako eragina lortzeko? • Aurreikusitako tresnek/ekintzek ez al dute aurreikusitako erantzuna sortu helburu-taldean? • Komunikazio-arazorik izan al da? Prozesuaren kudeaketan? • Aurreikusi gabeko arazorik sortu al da?
Baieztatzeko edo berrikusteko proposamenak	Hartutako irakaspenak Berrikusteko edo doitzeko proposamenak Gomendioak